


ITZULERA BATEN HISTORIA

Martin Ugalde



euskal literatura-elaberria

ELKAR

ITZULERA BATEN HISTORIA

Martin Ugalde

Elaberria

Elkar

1go. argitaraldia: 1990, iraila
2. argitaraldia: 1992, urtarrila

Azaleko ilustrazioa: J.F. IGARTUA

© Martin Ugalde
© ELKAR S.A. Donostia, 1990

L.G.: NA-2.319-1991
ISBN: 84-7529-896-6

ELKAR S.A. Argitaletxea
Esterlines, 10 – Tel. 426319
20003 Donostia
Pannecau, 52 – Tel. 59254390
64100 Baiona

ITZULERA BATEN HISTORIA

*Eusko Jaurlaritzaren
1990eko "Jon Mirande"
Elaberrri Saria*

*1936ko gerra-gorrito hark
suntsitu zituen milaka
eta milaka familiei*

Bat

Rosa heldu zitzaigunen Santa Barbara kantoiko etxean bizi ginen Caracasen.

Nire ama nekatu egin zen egun batzuk besterik irauten ez zuten neska gazteez; etortzen ziren interioretik (ekialdetik eta Andesetatik gehienak), hiriburuko argiek liluratuta; onenean (onenean diot!) aurkitzen zuten neskametzarako lana, baina gizontxo bat arrimatzen zitzaien bezain laster alde egiten zuten. Rosa etorri aurretik, gogoratzen zait, izan genuen gaztetxoa zen oso neska polita, eta edertasun lehiaketarako aukeratua izan zela eta nire amak gusto handiko soineko luzea egin zion hamasei urteko ilusio polit hari hegoak ez moztarren eta lehen saria irabazi zuen!... Agur esatera etorri zen. Hala, nire amak egonkorrago zen norbait behar zuenez gero, hurren hartu zuena Rosa izan zen.

Ez ba polita zelako edo gazte zelako!, alderantziz: neska motz-zabal-borobil itsusi eta adinekoa zen, amatxo baino zaharragoa.

Baina txukuna zirudien eta hitz-isila; mendian geratu ziren senideei laguntzeko zerbait irabazi nahiz egin zuen autobusezko bidaia luzea; gainera, mendebaldeko Andes mendietatik zetorren, langile eta esku-garbien fama duten indioen jatorrikoa

Oso berezia, horixe bai.

Geu sei ginen etxean; gurasoak, mutila zaharrena, bi urte gazteago nintzen bederatzi urteko neskatila, neu, eta beste bi ahizpa txiki. Eta etxe osoa aldatu zen Rosa Chacón etxeratu zitzaigunean; ikusi nueneko, zirrara egin zidan.

Rosak ez gintuen gure izenez deitzen; nire anaia, geure artean erabiltzen genuen "Tasio" ezizenaz beraz tratatzen zuen, eta ni neu "la muchachita", neskatoa, nintzen; nire amari, "Misia" edo "Misialantxa" esaten zion; bi txikiei "niña Irene" eta "niña Pilar", eta aitari: "jefe", "el jefe", errespetu handiz beti... Hala ere, egin zion behin amari, eta oraindik etorberria zen, galdera zuzen-ausarta: ea etxeko jauna eta etxeko andrea ezkondata zeuden... Ni neu ez nintzen bertan, baina amak kondatu zigun mahaian afaltzen ari ginela (Rosa, afaria zerbitzatu ondoren joaten baitzen) eta barre egiten zuen amak esaterakoan: hain omen zegoen zut-tente eta serio, haur egiteko balego bezala zuen bere urdail-magala aurrera botea, besoak gorputz lodi-borobilari erantsita, kolatuta, eta dena amantal zuriaz paketatuta, begi txiki eta beltzak zuzenki amaren begietan. Amatok esan omen zion:

"Hara, eta zergatik egiten didazu galdera hau?"

"Ba, barkatuko didazu, 'Misia' baina etxe honetan ez dut eztaietako argazkirik ikusi"...

Legezko zen, nonbait, beraien artean ezkonduak zeuden bikoteek status preziatua etxeko lekuri egokienean erretratuaren bidez erakustea. Rosa Chacónen mundua zen hau, noski, eta mundu hau gure etxera aldatu zuen naturaltasun osoarekin. Hau agerian geratzen zen noiz-nahi: Rosak inposatzen zuen. Sukaldeko lanak agindu zitzaizkionetik, bera izan zen sukaldeko nagusi, bere eremua zen; arropa lisatzeko erabiltzen genuen gelatxoa, arraskatxo eta guzti, bere mende zegoen, eta neu eskolan etxerako ematen zizkidaten lanak egitera bertara biltzen nintzenean, baketsuena zelako, Rosa isilik eta ni

neure lanetan ari nintzela askotan so geratzen nintzaion ikusbera: sudurrik gabeko aurpegi borobil zapaldu hartan zerbait gailurtzen ziren bi masailtxoetan finkatzen zituen alambrezko betaurreko arin-xume haiek. Hemen askatzen zuen motots beltza gerriraino; egia esan, japoniar bat zirudien!; ilekorda mehe beltz hau misteriotsua gertatu zitzaidan; kopeta bi jirabiran lotua eramaten zuen, punta atzean lotzen zuela; bakarrik lisatzeko gelan, beretu zuen gelan, erabiltzen zuen gerritik beheraino libre askatua, puntan ikusteko begia zuela..., eta pentsabide honen bihurrikieriaz barruko farreari heldu ezinik bere atzean nengoen batean, mototsaren atzeko muturretik ikusten balego bezala esan zidan: "Soy tan fea, mi amor!?" (Hain itsusia al naiz, maitel!?)

Beldur apur bat ematen zidan Rosak.

Beti ezustean harrapatzen ninduen: bere izter zabal baldar haiekin ibiltzeko modu harrigarria zuen, eta usterik gutxienean hor azaltzen zitzaidan, zuriz!, agerkunde bat bezala. Ez zen etxean lotarako geratzen; hau izan zen bere baldintzetako bat. Behin aitortu zidan, inguruan pasatzen zen errekatxoaren zubipeko txabola batean bizi zela; hasiera batean neuk ez nekien noiz sinetsi, egiatia zela egiaztatu ahal izan nuen arte. Gauak etxetik kanpora egiteko baldintza hori bi gauetz bakarrik hautsi zuen: armadak "kolpea" eman zuen hartan.

Bazkaltzen ari ginen. Aita falta zitzaigun, eta hortaz arduratu ginen; tiroak entzuten genituen goialdetik, koarteleetik, eta laster ohartu ginen Rosak, ezagunak genituen ahalmen batzuz gain beste dohai bat ere bazuela: "Hau nire arazoa da, ezagutzen ditut kolpeak, hamaika ikusia bainaiz; zuek... "musiuek", arrotzak, ez duzue esperientziarik honetan"... Hasi zen ate eta leihoak isten, maratila eta traste guztiez baliatuz...

Hor dator aita!, eta lasaitzen gara.

Baina Rosak hartzen du "jefea" bere kontura patioko bazter batean, sekretuki, bien arazoa bailitzan... eta hala ere entzun diogu geuk mahaitik esaten:

"Jefe, Rosa Chacónek badaki hemen zer datorren, eta barkatuko didazu, baina utzidazu egiten; zeuk entzun zazu hainbat gustatzen zaizun 'kolpe musika' irratigailuan, eta esango diguzu gobernuak... eta besteek, iraultzaileek!, zer esaten duten... zuretzat geratzen da hori; gainontzekoaz arduratzen utzidazu, mesedez, eta egon lasai"...

Aita, "el jefe", neskameak esan zionera moldatu zen; irratigailua martxan eta Beethoven entzuten; ezin nuen sinetsi!..., baina jaten ari zen bitartean aitak ikusten zuen, geuk mahaitik bezala, Rosaren ardura guztia: dena ixteaz gainera gure aldameneko bilar saloitik hasi zen garagardo botilaz betetako kajak binaka igo eta kalera begira zeuden leiho hertsia kaja horiez kondenatzen; izerditan zebilen emakumea batetik bestera geuri keinuz isilik egoteko aginduaz; bilar-jokoko taberna hustu eta gure etxea bete zuenean agindu zigun zorrozki:

"Orain, mesedez, ez leihoetara edo atera hurbildu inola ere, tiroak leku horietatik sar daitezke eta; bestalde, deika nornahi datorrela, kasorik ez! Ezta bizilaguna bera badator ere!, inork ez daki eta kasu hauetan arerioa nor den!; ez hitzegin; irratigailua bajuxeago"... begiratu zion aitari, eta honek baietz!... txundituta nengoen, ama ere isilik... "beno, orain banoa, eta egon lasai, berehala itzuliko naiz"...

"Nora zoaz!", arduratu zen aita, zutituz.

"Hau nire egitekoa da"...

Eta irten egin zen!... Giltzaz itxita utzi gintuen; lehenik, goikoa, aitak beste giltza bat bazuen ere, eta geu, zer gerta ere, adi geundenez gero, sentitu genuen eskaileraz beheko atea ere isten, "klik-klak", giltza handiko sarraila baitzuen.

Hau nahikoa ez zela konturatuaz, aita jaitsi eta atalaga bota zion beheko ate handiari.

Eta hor geratu ginen kanpotik itxita, zer gertatuko zai; irratigailuaren hotsa oraindik gehiago beheratu, eta kaleak hutsik zeuden seinale nabarmena zen kotxeen zaratarik eza, isilune itzela!; noizbehinkako tiroak, goraxeago geratzen zen San Karlos koartelean edo Mirafloresko Presidentzian bertan... Bien bitartean, diskretasunezko marmar batez adierazten zigun Beethoven, Bach eta Brahms-en musikak kolpea martxan zela, eta noizbehinkako hitzak: "Normaltasun osoan dago nazioa, agintea armadaren eskuetan, koartel denak kontrolpean"... Eta hau segurtatzeko, kolpe-musika gozo-bakeko giroan... Gure ama beti eskuak lanean, norbaitentzat jertse bat ehotzen; anaia, betiko axolagabekeria harro hura alde batera utzi eta ni baino kikilduago, amagandik hurbil zegoen mahai azpian; neu, berriz, nire eskola-lanak egiten ari nintzela banuen begia gure aita bere aulkian burubelarri Aste Santuko musika entzuten jarrita zegoela ikusteko; Rosari behin entzun nion ateraldia etorri zitzaidan gogora: aitak operako musika jarri zuen saloian, ohi zuen moduan, eta Rosa lisatzeko gelatxora ihesi heldu zen esanez: "El jefe ya soltó las gallinas"... eta irratigailuko "merengue" eta "cumbia" k biztu zituen bere munduan sentitzeko...

Honetaz, erlojuaz ohartu nintzen. Neuk belarri ona izan dut beti, baina tentsio hartan ez nuen isiltasun teinko-gogor hura besterik entzuten, hori zen nagusi, eta noizbehinka sabai isil hura zulatzen zuten tiroak, batzuk lodiak, kainoi burrunbada batzuk kristalen dardarrekin; bonba bat lehertu zen hurbil zegoen nonbait... "etxebizitza batean sartzeko, agian!" (hau aitaren azalpena amari..., ez dakit zergatik esan zuen hau) eta erlojuari begiratu nion une berean entzun nion denborari bere "tik-tak" mekanikoaren bihotza! Ez genekien zer gertatzen ari zen, ikaratzen gintuzten gerrazaratak eta isiltasuna ziren gure erreferentzia bakarra... Eta Rosa Caracasko kaleetan pasatzen ari zenarekin kezka sortu zitzaidan...

Amari galdetu nion ahapeka, ea Rosa nora joan zen, eta erantzun zidan berehala itzuliko zela... Rosa Chacón ezezaguna gertatu baitzitzaidan berriz egun honetako jokabidean!...

Nor zen emakume hau?

Ez genuen egitan inondik ezagutzen, eta gu konturatu ere gabe etxeko buru bilakatu zitzaigun. Nire aitari "jefe" deitzen zion, eta agindutako guztia azkar eta ongi betetzen zuen; nire amak esandakoak, berriz, oso modu onez eta zintzo, inoiz kasketaldirik gabe; baina gauza asko bere gisa eta duinki egiten zituen; ez zuen etxean, jendaurrean, erretzen, baina lisatzen zuen gelan terrazara ematen duen atea ireki eta purutxoak erretzen zituen, eta hauek laburtzen zitzaizkionean, "candela" ahoan sar eta barruan, aho itxiarekin, erretzen ere bazekien... Ni neu, estudiatzeko bake bila joaten nintzen gelako nire txokora, eta liluratuta egoten nintzen atzetik begira leihoko argiaz lanean ari zenari; ez dakit nola izan daitekeen, baina askotan nire pentsua asmatzen zidan kolpeko begiraldi batez; irrifarrez askotan, batzuetan serio, baina justu neuk barruan nerabilena

biluzik uzten zidan; ez nintzen haurtxo bat, banituen ia hamar urte, baina hala ere izutu egiten ninduen honelakoetan; bestalde, maite nuen, eta Rosagandik hurbil nengoenean babestua sentitzen nintzen oso!... Ni neu eskolara oinez joaten nintzen, lau-bost kaleko gauza besterik ez baitzen; aitak beti egiten zizkidan oharrak: "zeu xuxenean eskolara, entzun?, ez inoiz geratu, ez inori begiratu, eta norbaitek zerbait esaten badizu, entzungor egin, ez inolatan ere geratu"... Nire anaia txoria bezain libre zen, baina ni neu ez nintzen mutila... Osorik ulertzen ez banuen ere, pasa nuen izudura itsu baten truke jabetu nintzen aitak niganako zuen obsesio hartaz.

Gertatu zen, neu Santa Barbara kantoitik Balconcito kantoiko moja-eskolara gora bidean nindoala atzetik zetorren kotxe bat geratu zela nire parean, eta: "muchachita"... esan zidan; neuk kasorik ez, ezta begiratu ere, aitaren agindua ondo betetzeko, eta kotxea nire martxa berean, nire parean beti... nire estuasuna!, zangoak ezin nituen arindu... egurrezkoak bilakatu balira bezala..., "acércate, nena"... nahi gabe ere begiratu egin nuen eta han ikusten dizkiot gizon kaskasoil itsusiari bere begi gorri ikaragarriak!, eta izuak bapatean bultzata abiatu nintzen aringa eskolaraino. Nire eskola-lagun bati bakarrik esan nion gertatua, gure etxetik gertu bizi zen Yolandari, baina honek ez zion garrantzirik eman. Eskola ostean, goiz luzea!, inoiz ez bezala neronek atetik kanpora begiratzeko arreta hartu nuen... eta han zegoen kotxe gorri-handia kalean goraxeago, beheraka abiatzeko zai, noski!... Sartu egin nintzen azkar eskolara!, eta mojari zer gertatzen zen adierazi nionean, honek nire beldur-izua aurrean zuela etxera deitu zuen telefonoz; esan zidan, bertan geratzeko bazkaltzen, eta arratsaldean etxekoak etorriko zirela nire bila. Halaxe, arratsalde larria pasa eta gero, han zegoen irteeran Rosa Chacón nire zai!..., nire poxa garbi-usain ederreko musua lehenengo aldiz eman nionean... Ez zen, halere, kotxe gorririk ageri, ez eta gero bidean agertu ere... Etxeraino bitarte labur honetan Rosak galdaketa larria egin zidan: zer-nola gertatu ziren gauzak. Etxera heldu bezain laster, amak gauza bera, eta aitaren beldurrak nengoela... honek ez zidan gertatutakoaz ezer esan, seguraski ni gehiegi ez izutzearren, inoiz baino maitekorrago egon baitzen nirekin ilunabar hartan etxean, eta gero, oheratzerakoan. Konturatu nintzen hiruren arteko sekretu bat flotatzen zegoela etxeko giroan... Eta usain honi entzun nizkion airean harrapatu ahal izan nituen hitzak: amak, "bizioso" esan zuen; aitak, "eroa", eta Rosak, berriz, "mal de ojo". Neuk ez nekien nire gertaera barruko zertaz ari ziren hitz hauek. Amak, urrezko katea bere urrezko eskapularioarekin: Karmengo Ama eta Jesusen Bihotza kendu egin zizkidan, eta nire izenarekin nuen kotxano-urrezko esklaba bat eta belarritakoak ere bai, denak. Eta erabaki zen harrez gero Rosarekin egingo nituela eskolarako joan-etorriak. Hurrengo goizean kutun bat agertu zen Rosaren eskuetan: esku beltza kordoi more batekin zintzilik; amari ez zitzaion gehiegi gustatu, eta honi oihalezko eskapularioa erantsi zion. Irten aurretik, biok eskaileran, Rosak jarri zidan amuletoa eskapularioarekin, eta bere esku beroa (beroa sentitzen nuen Rosaren eskua honelakoetan) buru gainean jarri, gotzaiek batzuetan egiten duten gisa, eta esan zidan begiak itxita, ikusi nizkion isten!... esan zidan: "Que Dios te bendiga, m'hija". Gero agindu zidan ni aurretik joateko, betiko pausoan, eta ez atzera begiratzeko, zeren eta segur egon nintekeen bera, Rosa Chacón, nire atzetik zetorrela. Ni neu hobeto

sentituko nintzen bere eskua nirean joan balitz, eskutik eraman banindu, baina agindua bete nuen, eta heldu nintzen eskolara, eta ez zen kotxe handia agertu. Eta horrela joan ziren beste hiru egun berdin: alferrikako dardar ikaratan. Burura etorri ere egin zitzaidan, Rosak zer pentsatuko zuen bere baitan nire beldur hartaz, behin eta berriz etxera heldu eta gero galdetzen baitzidan kotxetzar haren kolorea zein zen; neuk egia bera errepikatzen nion behin eta berriz: gorria edo granatea zela, eta amak erakutsi zizkion bi koloreetako matazak... Laugarren egunean bagindoazen gorantz, betiko distantzia gordeaz, bakoitza berean, eta hor hurbiltzen zait atzetik... nire zentzu berean eskuineko betertzetik ikusi nuen motor gorri handia... eta gizonak esan zidan zerbait, ez dakit zer!... nire ikara!... eta berehala beso luze eta indartsu baten agerkundeak liluratu ninduen: burdinezko barraz kotxearen kristala eta txapa zanpa-zanpa!... egiten hasi zen, eta une berean garrasika: "viejo sinvergüenza"... "ahorita te denuncio a la policía por la placa!"... dena instant bateko gertaera izan zen!!... Kaskasoilak zanpatu zuen bere oinez azeleragailua, perretxikoa, eta gorabideko kaletxo horretan trafiko gutxi zegoenari esker izan zuen ihesbidea, bestela han akabatzen du Rosak kaskasoil itsusia!...; beso luzeko jakaren barrutik atera omen zuen Rosak, esan zidanez, burdinezko barra harrigarri hura... Gizona zirudien!!... Rosak gorde zidan eskutxoa bere esku txikiaren golkoan eta gorantz goazela madarikazioz betetako errosario luzea esanez heldu ginen eskolara; utzi ninduen atean eta agur esaterakoan jarri zidan bere esku labur bero hura berriz buru gainean esanez: "Dios te bendiga, m'hija, y la Virgen!))..."

Sarritan aipatzen zuen Ama Birjina...

"Etorriko naiz gero zure bila... Ez zaitetz larritu..., kokoliso alu hori ez zaigu gehiago agertuko".

Bere zango zanbo zabalarekin balantzan bezala jaisten ikusi nuen beherantz, azal iluneko emakume mihilabur-uxaka eta aldi berean gozoa, besteenganako zintzo-leial hura...

Oraindik, oraintxe!, sentitzen ari naiz, hemen ez badago ere, guregatik gaurko "kolpe" egoeran kalera joaten arrixkatu eta oraindik itzuli ez denarenganako maitasuna... hemen dago aita irratia entzuten, baina kezkatu, beti bezala, hain baita fina, eta bai baitira bi ordu gutxienez Rosa irten zela erosketarako erabiltzen duen poltsa berde-zuri harekin; nire anaia mahai azpian komikiak irakurtzen ari zela abenturaren loak hartua, eta beti erne eta maitekiro lanean ari den neure amari galdetzen diot ea Rosa nora joan den eta noiz itzuliko den... "Laster helduko da"..., dio, baina ez dago lasai... ezagutzen dut nire amaren baretasun ernea...

Bi ahizpa txikiak lotan zeuden.

Honetan nengoela, orain han, orain hemen... atea joa zutela iruditu zitzaidan, eta keinu egin nion aitari... Aitak jaitsi zuen pixka bat gehiago tonua...; ama oraindik mekanikoki ehotzen, burua auskalo non; eta hala ere laster elkartu ginen begiradaz lauok, adi!, lehen mugitu zena anaia izan zen, erdi lo eta komikietako abenturak buruan zituela heldu zen ateraino; neu, Rosa ikusi zai nengoen, konfidantza handia bainuen egin behar zuena egin eta gero xuxen etxeratuko zela...

Bai, beheko atean norbait zegoen; baina ez zen Rosak agindutako deia; aita hurbildu zitzaion anaiari atean, etxeko atean, ireki gabe; gero, eskailerak baitzeuden kaleko ate zabaleraino, eta beheko atea atalagaz itxia aurkituko zuen Rosak, eta atea jo behar: aitak ireki zuen goikoa, zaratarik gabe... eskailera tramua hutsa zegoen, eta beheko atean diskretuki bi kolpe entzun ziren berriz; Rosak agindutakoak hiru ziren, bi aldiz; ahaztu egin ote zaio?, esan zuen aitak, eta giltza galdu... edo kendu!...; neuk, ezetz, Rosa ez zela honelako gauzak ahazteko emakumea, eta ez irekitzeko!...; egia esan, neuk kotxe gorriko burusoil begigorriaren bengantza nuen buruan!! Horixe izan zitekeen!!... Ezetz esatera joan nintzaien aita eta amari, ez irekitzeko; eta hirurok honela geundela, amak, beti bezain duin eta lasai ehotzen ari zela, eserita zegoen aulkitik esan zigun: "ez ireki, ez da Rosa".

Baina ateko kolpeez gainera ahots bat ere entzun nuen neuk behean, gizon ahotsa!..., esan nion aitari..., nire ikara!..., eta aitak galdetu zuen ea nor zen; kalekoak esandakoari ahotsa entzun zionean, aita mantso jaisten hasi zen, kezka ziurtatzeko; gure ikara handiz... eta igo zen azkar esanez bilarretako nagusia, Kamilo, zela, gailegoa, eta ireki egingo ziola... Ez genuen beheko giltzarik, baina aitak bazekien atalaga kenduz gero zaharraren olguraz baliaturik ate handia irekitzen, eta halaxe, langa kendu eta ireki zuen beheko atea; Kamilo beldur zen, eta sartu ondoren aitak atea berriz atalagaz itxi, igo eta garagardotxo bat eskaini zion bizilagunari. Kamilok zioenez, atzerritarrok honelakoetan bertokoek baino zaurgarriagoak gertatzen ginen; eta agindutako garagardoa ematerakoan esan zion aitak, barkatzeko, Rosak igo zuela, berez!, beheko almagazean aurkitu zuen garagardo kaja pilo bat, gure leihoak trangatzeko; Kamilok, baietz, berak esan ziola libre zela Rosa hori egiteko... guregatik; ez Rosarentzat, alegia, guretzat baizik... Nire aita ausartu zen galdetzera, ea zergatik ez zion Rosari mesede hori opa, oso emakume ona zela, eta...

Ez zekien zergatik, baina Rosa bera zela begi txarrez ikusten zuena, "badakizu, indioen gauzak" eta behin "musiú del carrizo" deitu ziola, eta batere arrazoirik gabe...

Honetan entzuten ditugu aldiko hiru kolpe sail, Rosarenak!, eta gure aita jaisten da eskaileretatik behera eta kentzen dio ateari Rosari enbarazu egiten zion atalaga, eta ama, anaia eta lauok goiko atean gaudela ikusten dugu Rosa eskailerak gora zetorrela txalupa baten antzera balantzaka, bere erosketetarako kapazo hutsarekin; eta serio oso, beti bezala benetan ari da lanak egiten, ohi ez ditugun musuak ere ematen dizkiogu hirurok, etxeok, uste baikenuen nonbait militarren patruila batek atxilotu zuela, eta a!, zer ederki bueltan dela, eta Rosa ere bai, irriparrez... Kamilo gure atzean ikusi duen arte... orduan iluntzen zaio kopeta, eta ez du kapazoa mahai gainean uzten, ez du nahi!, ezta lurrean ere, bere eskuineko eskuan, besoa plomuan, dago otartxoa... Sartzen da pausatuki bisitara etorri zaigun gailegoari kasorik egin gabe sukalderraino eta bere atzean atea ixten du! Nire ama da berehala bere ehotzeari laga, jertse urdinaren zatia orratzekin aulki gainean hila utzi eta atzetik joan zaiona, atea jo eta barrura sartu... eta Rosa bera da berriz atzera etorri, Kamilori begirada itsusi bat bota eta atea berriz ixten duena, eta ez kolpez, halere, nahiko mantso eta isilik baizik. Kamilok bukatu du garagardoa, eta nire aitak beste bat opa dio, baina ezetz, eta altxa ere egin da.

"E!", esan dio aitak... ea zergatik joan behar duen, geratzeko gurekin, gizon bakarra ez dela ezer, eta... bertan geratzeko biharamun arte...

Amatxo irteten da bakarrik, sukaldeko atea ixten du oraingoan, eta ezer esan gabe eseri eta bere lanean jarduten du, eta zerbait esan behar, eta esan du denentzat, Kamilok ere entzun dezan: "Rosa oso nekatua etorri da"...

"Ni banoa", dio Kamilok, "behean zerbait egin behar dut, oraintxe etorri zait burura"... eta abiatzen da eskerrak emanez, badoa...

Zerbait sumatzen dugu baina ez dugu anaiak, aitak eta nik ezer ulertzen, nahikoa du doanak geure aurpegiak ikustea, eta, hala, Kamilo honetaz konturatzen denez gero esaten digu eskaileran behera abiatzerakoan:

"Behean nauzue nire beharrik sortuko balitz... gabon pasa"...

Aita joan zaio atzetik, eta gu zai, neu haserre asko Kamilorekin, Rosaz ez baitu txarra besterik ezer gehiago esan! Aita, beheko atea itxi eta gora dator berriz, esanez Kamilo bera izan dela joan nahi izan duena, lagunkiro joan dela eta... Baina nire ama Rosarenera abiatu da berriz, eta orain biak irten dira sukaldetik, Rosa kapazoa eskuan duela, igotzen du mahai gainera eta beste ezer egin baino lehen jartzen zaigu lauon aurrean bere bidaiaren informe ofiziala ematera balihoa bezala eta esaten digu:

"Kamilo hori txibatoa da; nire ilobak esana, koartelekoak, eta badaki!, hori gugandik zenbat eta urrunago, hobe..., ez naiz gaizkiesaka ari, egia hutsa baita; gizon hori etxe honetan arrisku bat besterik ez da, eta behera joan bada, hobe, ez gaitu kutsatuko"...

Gu denok ahoa irekita.

... "Orain goazen gurera, hau da eta guri inporta zaiguna"... eta ateratzen du otartxotik pistola handi bat!, eta dio:

"Hau jefarentzat: pa usté, jefe", eta nire aita papera baino zuriago geratu da Rosak pistoloi handia bere eskuko hatzei lotu dienean...

Bi tiro entzun dira hurbil, nonbait..., eta une honetan hala ikusi nuen neuk aita!, Jesus!, eta ateratzen du Rosak bestea!, berdina, eta esaten du:

"Esta pa mí"...

Hara zertan amaitu den gure itxoite larria; Rosagatik geunden kezkaturik!

"Zer egin behar dut neuk honekin?", galdetzen du aitatzok, sekula arma bat eskuetan izan ez duen pertsona paketsuak, odola masailera itzuli zaionean, "nondik atera dituzu. kainoi hauek?", erdi farrez, ez baitago bestela honelako ezustea bideratzerik.

"San Karlos koarteleetik nator; ilobak, badakizue hor nire iloba sargento dela, ba sargentoak eman dizkit; hark badaki non eta zertarako dauden hemen, arma hauetaz ez larritu, arren; gauzak dauden bezala, edozein momentutan hasiko dira betiko lapurretak, asaltoak... kotxe gorriko kaskasoila bera era honelako baten zai egon daiteke!..."

Eta damutu egin zaio Rosa gajoari hitz hauek esana, niri begiratu didan bezain laster ikusi baitit izua!, eta berehala esan dio aitari:

"Baina egon zaitez lasai, guk defentsa badugu orain... Venezuelar guztiek badute eskuartean zerbait bere burua defendatzeko, ohituak daude "kolpe" hauetara... Eta barka, baina honelakoetan, zuek arrotzak zaretenez gero, ni naiz operazio honen erantzule; zuek oheratu zaitezte denak, oraintxe, berandu da eta; zu, jefe, pistola kargatua dago!, kontuz, ohe ondoko mahaitxoan eduki; ni neu eskaileran jarriko naiz...; beste kajatxo batzuk behar genituzke beheko atea hobeto kondenatzeko, nire giltza handia gabe ere

ireki baituzue, e?!... Baina ni ez naiz joango txibato horri ezer eskatzera, ezer ez!... He dicho!"

Eta hor doa lisatzeko gelarantz...

Aitak erabaki du irratia entzuten geratzea..., pistola hor duela, Rosa ez ofendatzeko...; beste hirurok, lotara... "Zerbait gertatuko balitz, ez da gertatuko!..., entzuten diren tiroak eta sirenotsak, kasorik ez, ez dira gure, arazoa..., tira, lotara!"... bultza gaitu aitak ere geletara.

Neuk pijama jantzi eta gero ikusi nahi izan dut Rosa zertan den... eta dagoeneko kalera jaisten diren eskaileren erdian eserita dago, burusi horia bizkarrean, motots beltz-mehe-luxea gerriraino, pistola aldamenean, eskuhar, duela, kandela bat piztutzen ari da... Oso isilik, oinutsik, hurbildu natzaio atzetik... kamioi bat maldan gora abiadan doala atera duen zarataz baliaturik!, geldi-geldik geratu natzaio bere atzean, eta ikusi dizkiot paretari arrimatuta jarri dituen bi estampa: José Gregorio Hernández-ena bat, Elizako Beato egin berria eta dagoeneko Venezuelan santu bezala gurtzen duten sendagile ongile bat, eta Coromotoko Amabirjina, orain biak kandel argitan.

Hori atondu duenean, ez du bururik jira, ez du behar, motots muturrean duen begia niri begira dago, badakit!, eta esaten dit goxoki: "ohera zaitetz, nekatua zaude eta, 'mi niña'..., laster loak hartuko zaitu, zoaz aingeruekin... (ni neu isilik, eta segitzen du)... Ez da gure kalterako ezer gertatuko, ilobak badaki, eta, nolana, hemen dago Rosa Chacón bere familia osoa defendatzeko, santuz armatua, eta hori nahiko ez balitz, pistolak ere lagunduko du"...

Bi

Ni betiko txokoan ari nintzen Maitagarrien ipuin liburuxka bat irakurtzen, nire Printzea noiz itxuraldatuko, sorginkeria gaiztoz apo bihurtu baitzidaten... eta ezbaiko kinka honetan nengoela, aitaren alkondara lisatzen ari zen Rosa Chacón gure neskameak, niri begiratu ere gabe eta bere kautan ari bailitzan, bota zuen aidean:

"Uste dut zuek zeuen lurrera itzuliko zaretela"...

Abiadan jaitsi nintzen amarengana eta galdetu egin nion; ohartu zen azkar nire arnas estuaz, eta begiratu gabe, berriz!, eta egiten ari zena utzi gabe esan zidan, zera... aita ari zela pentsatzen "Tasio" nire anaia eta biok aurretik Euskal Herrira bidaltzea... gero beraiek laster guganatzeko asmotan, noski. Amaren esateko bide bare-lasaiak ez zuen Rosak esaten zituen hitzek adierazten zidaten zirrara sarkor-ebakorra estaltzen, indiar jatorriko orbain ezktu baten eraginaz zetorkion agian hau Rosari, nork daki, baina honek uzten zidan zauri-arrastoa gertatzen zitzaidan gehienetan egiarik zuzenena...

Honetxegatik irabazi zuen Rosak nire konfidantza osoa; nahiz eta, bestalde, honek sortzen zidan minak zekarren mesfidantza larria nigandik ezin osorik uxatu nuen, eta, gainera, niretzat garrantzi handia zuten arazoek zergatik hartzen zuten Rosaren bitarteko arriskutsu eta beldurgarri hau?!

Zer egon zitekeen gurasoek hartu zuten bat bateko erabaki honen barruan?

Haurtxo batek ere pentsatzen baitu!...

Ia nire hamar urteko adimenak esaten zidan nire aita ez zegoela hemen pozik; egunero irudipenezko iturrietara joan-etorriak egiten zituen susmoa nuen, edo ez dakit noizbait amatxori entzundako arrazoia ez den...; argi zegoen ez zela, ama bezala, osorik hemen bizi; etorkin bezala egitera behartua zegoen lana ere lehorrekoa zen, itsasgizona izanik, eta etxez bi aldiz aldatu ginenean ere, paretak ongi zuritzen eta egurrak eta burdinak ongi pintatzen ahalegintzen zen, baina amaren kasuan ez bezala, ez zen etxebarrua zertxobait goxatzeko asmotan izaten, etxebizitza apaintzearen, baizik eta tropikoan erraz, errazegi!, sortzen diren mamuei gerra bizia egitearren, geure mundu hurbila, barru-barrukoa ere, desinfektatzearen. Ama, berriz, ilusioz betea hasten zen etxealdaketetako lanak prestatzen, eta berez alaiagoa zelako eta apaingarriak sortzeko esku trebeak zituelako, hasten zen planak egiten: "Hemen gortina bat behar da", esan zion behin nire aurrean aitari, "eta ikusi dut mobledendan arratseko operak deskantsuan entzuteko atsegin izango zaizun besaulki bat"... Aitak beti ezetz, odea, ez zuela hain egoera laburrerako gastu horietan sartzetik merezi... Urteak ziren Venezuelen bizi ginela, baina beti egun batetik bestera itzultzeko asmoak eragindako probisionaltasun honetan bizi ginen. Erbesteratu gehienen antzera, nik uste. Ez ginen inoiz inongo sentitzen... beno, bai, jaioterrian, beste munduan geratu zen jaioterriko, ezinbestean! Geure familiako eta herriko oroitzapenak dagoeneko horitzen hasi ziren argazkietan geratu ziren, neuk noizbehinka bisitatzen nuen album batean, neu beti aitaren besoetan gozoki ikusten nintzen hartan, bereziki. Ez dakit iraupen honen sustrai setatiak urte luze osoak irauteko kemena nondik zurrupatzen zuen, non indarberritzen, baina iharduten

zuen!... Gogoratzen zait... igande goizetan aitak Tasio eta biok eskutik har eta euskaldunak biltzen ziren bar batera eramaten gintuela, eta han bere lagunekin garagardo pare baten apar freskoak sortarazitako etorkizun-proiektu ederrak egiten zituen lagunkiro, nire anaiak eta neuk amets eder hauen babesean platerxo bat oliba axolagabeki jaten genuen bitartean.

Urte t'erdi zahartxoago zen anaiak neuk baino azkarrago eta arduragabeago, noski.

Ni asko pozten ninduen zera zen: aitaxo beti pozik eta baikor itzultzen zela asteroko berriketaldi hauetatik! Honexegatik bakarrik nuen hain gogoko igandetako irtenaldi hau... Eta bidaiaria handiaren bezpera-bezperan etorri zitzaidan bapatean burura, eta minez, txakurrak hainbat maite zituen Serjio Irazu eta Pello arotzarekin nire aitak egiten zituen ametsen barruan egongo zela, agian, kokatua gure abentura hau, eta neuk ezin niola aitaxoren zorion-hazi hari nire eta Rosaren! irudipen ilun eta gaizto hauek zirela medio etorkizun guztia zapuztu... Igande goiz batzuetan hondartzara ere joaten ginen; amak eskaini zion behin baino gehiagotan Rosari oraindik ezagutzen ez zuen itsasora gurekin jaisteko aukera, baina ez zuen sekula nahi izan; hasieran pentsatzen nuen Andes mendietako alaba ez zela ezezagunaren beldur, oso baitzen ausarta; baina itsasoak sortarazten zion izua oso zuen markatua, nork daki zergatik!, egoera honetan bertan entzun bainion nire amari esan ziona: "Misialantxa, estos niños estan demasiado jojotos pa ese viaje"... "Haurtxo hauek samurregiak daude honelako bidaiaria luze batera bakarrik bidaltzeko; batez ere mundu berritik besterako, zaharrerako, tarte zabal-ikaragarri hori urez, urez!, "misia", bete-betea dagoenean!"

Mundua lurrez eta mendi handiz bete egoteari normala zeritzan, baina, urez!!...

Egunak joan ziren kezka bizi honetan... eta aita eta ama hasi zitzaizkigun, bakoitza beretik, prestaketaz hitzegiten eta familietako argazkiak erakusten; aitak, bereziki, nahi zuen aiton-amonen eta hiru izeben aurpegiak eta izenak gogoan hartzea, hara iristen ginenean guretzat ezezagun horiek osorik arrotz gerta ez zitezen, eta gauza bera amak bere ama (aita hila zuen neskatoa zela) eta ahizparekin. Neu ahalegindu nintzen argazkietako ezagutza berri hauek egiten eta izenak buruz ikasten; nire anaia zen ihardun honi jaramonik egiten ez ziona!, eta egiten zion apurra, trufaz!, bati, gizenegi zegoelako, besteari, aitaren aita, herrena zen arren esku-makilarekin oso martxoso agertzeko ahalegin arranditsuan ageri zelako; eta gero, jantziak, aintzinakoak eta irriarriak iruditzen!

Hemen ere bazuen Rosak zeresana:

"Kontuan eduki, bi familia ezberdin dituzuela; nik neuk ere ezberdinak baititut, alde batekoak eta besteak, elkarri dioten ikusezina tarteko!...; zuen kasuan, bi amona dituzue, eta nor den aitaren aldekoa eta zein amarena, gogoan hartu behar duzue"... Amatxo han zen saloian Rosak hau esan zuenean, eta gogoratzen zait oraintxe ikusten banengo bezala orduan beretzat bakarrik egin zuen irripartxo batez esan zuena: "Bi familia?... , baita bi bando ere!"...

Hau geratu zitzaidan markatuta.

Amonak nahastea ez litzateke polita izango!

Bestalde, nik neuk ondo aski ikusi nuen gurasoak nigatik zeudela kezkatuta, ez Tasiogatik; aitak esan zidan oso bidaiaria polita egingo genuela, Puerto Cabellotik Barcelonaraino; anai-arrebok, pertsonalki berak gomendatuta gindoazela, itsasontziko

kapitain eta aitatxo elkarrekin ikasketak eginak zirelako, eta lagun onak... Ez nuen ulertzen, ordea, zergatik bidaltzen gintuzten bakarrik; beti elkarrekin egin baikenituen ordurarteko bidaiak, ez baikinenez inoiz banatu; burura etorri zitzaizkidan gauzak!..., pentsatu ere egin nuen gurasoek bere aldetik egin nahi zituzten planetarako geuk enbarazo egiten ote genien!... Haur baten buruak ere pentsatzen baitu!... eta nire adorea beharakadetako estuasunean itota sentitu nintzen batean esan nien negar bizian ez nuela neuk bidaia hori inola ere egin nahi! Nire aita oso samurra zen, nire ama baino sentiberago eta ahulagoa ere izan zitekeen honelakoetan, baina oraingoan nirekin zorrotza izan zen oso, harritu ninduen bere fermutasunak: bidaia erabakia zegoen, paperak bideratuta eta dagoeneko kapitainarekin dena atondua. Adierazi nizkion, izuak ausartarazi ninduen!, itsasontziari beldur izugarria niola... bidaia osoari!, eta ezagutzen ez nituen leku eta jendeari!, denari niola beldur espantagarria... "Ez zara mareatuko, kapitainaren alabak ez baitira mareatzen"... esan zidan aitatxok, nireari erantzun gabe, eta begiak lauso tristetuta, nire antsiaren nahigabeturik!, "Frantziatik etorri ginenean ere, gogoratzen zara, ez zinen mareatu, eta orain, handiago zarenean, gutxiago!... Ez al da egia?"

Neuk esan nion orduan bidaia hura elkarrekin egin genuela...

Ez zidan ezer esan.

Eta nik neuk hartu nuen min, aitatxo isilarazi nuelako.

"Kontura zaitenez -hasi zen noizbait- han aurkituko dituzunak, nire aita, ama eta arreba, zeure familia direla, zeu maite zaituzten pertsonak; eta amatxoren aldetik amona Mertzedes, zure begietatik ikusiko duena, zuk zer nahi, hark hura; izeba Mirenek, berdin, eta denak argazkietatik dagoeneko ezagutzen dituzunak"... Ez zen aitatxo konturatzen, gauzak hala baziren ere, niretzat argazkietako pertsona guzti hauek arrotzak zirela, filme bateko pertsonaiak balira bezalaxe, eta neuk ezezagunari niola beldur... Anaiaren exenplurik ez zidan aitatxok jarri, gizon azkarra baitzen, eta bazekien Tasio oso zela moldaeraza, ausartxo ere!, eta ni neu haren ondoan sentibera nintzela oso, eta izukorra...

Rosa eta amatxoren erreflexioak ez ziren aitari aipatzekoak!

"Gainera", erantsi zidan aitatxok, "hilabete gutxiko arazoa izango da, laster gara zuekin han!"

Barka biezat aitatxok, baina hau ez nion sinetsi.

Amaren aldetik, bidaiarako nire erosotasunaren bila, ilea moztarazi zidan. Maite nuen ba neuk nire ilaia! Eta kasu honetan ere, beste askotan bezala, Rosa zen ideia bihurriak sortarazi zizkidana; ez zizkidan gauzak ni mintzearren esaten, banekien hau, baina azken finean bere gauza guztiak bihurrikeria bilakatzen ziren!; orain, zentzugabekeria iruditu zitzaion nire ile luze-polita galtzea!, eta harrez gero, itsusiago aurkitzen nintzen ispilu aurrean. Urari zion beldurraz aritzen zitzaidan berrikerian oraindik, behin eta berriz: "Horrenbeste egun oso eta gau beteak, denak ilunak eta uretan!, gaixoak"...

Egia esan, nire adin samur harentzat sorta ikaragarria ari zitzaizkidan zamaten. Eta hau ez zen dena... Hiltzera kondentzen dituztenei azken aholkuak ematen dizkieten modura, aurrera ziharduten guri zegozkigunek ere, eta pasaporteak eta bileteak azkenik heldu ziren egun hartan, gogoratzen zait ondo aski, aita eser arazi gintuen eta

pasaportearen balioaz hitzegin zigun: aitak berak kopia bat gordetzen zuela badaezpada ere (zer gero?!) eta kontu handiz zaindu behar genuela geurea, jatorrizkoa; ezin genuela galdu!; liburuxka sakratu honen orrialde batean idatzi zuen kontu handiz, letra ederrez: lehendabizi geure zuzenbidea, eta gero bere gurasoen eta arriben zuzenbide eta telefonoak; eseraldi honetan bertan hitzegin zigun gizabideaz, gugandik espero zuen portaeraz, familia guztiaganako geuk izan, eta erakutsi, behar genuen errespetu eta itzalaz; eta bereziki anaiari, Tasiori, gomendatu zion etengabe nitaz ardura zedila, arreba txikia zaindu, ni goardiatu!..., arren!

Nire anaiak, serio asko, baietz.

Bi egun gero irten ginen.

Rosari agur esaterakoan ez ninduen bera besarkatzen utzi; bere eskunaba beroa buru gainean ipini eta beti bezala esan zidan: "Jainkoak bedeinka zaitzala, 'm'hija', alabatxo". Eta gero azoteara igo zen.

Bi ahizpa txikiengandik urruntzea ere kosta zitzaidan; hauek ez zuten ezer ulertzen, eta hobe!

Ez ziren gurekin jaitsiko.

Ez ginen geuk ondo ezagutzen genuen La Guayra-ko portura joan, baizik eta askoz ere urrutirago geratzen zen Puerto Cabello-kora; bideko bihurguneak eta egiten zuen beroa!; oso luze egin zitzaidan; noizbait heldu ginen, eta bidean goiko bihurgune batetik ikusi genuen badian ainguratuta zegoen "Buena Esperanza" itsasontzia; gero bertatik ikusi nuenean oso handia iruditu zitzaidan!, eta pentsatu ere egin nuen ontzitzarra ez zela inoiz hondoratuko, Rosak besterik uste bazuen ere... arrisku hau ere aipatu baitzidan... eta honetan nengoela... aitak erabaki zuen, eta serioa esan ere, pertsona nagusien modura agurtuko ginela, eta ez zuela inork negar egingo. Gu biokin igo ziren gurasoak ontzira, nire aitak egin zion kapitainari gure aurkezpena, eta honek gure aurrean esan zion gurasoei lasai utzi zitzaizketela seme-alabatxoak bidaia hartarako baporean, zeren eta erabaki baitzuen orkestrako buruaren ardurapean jartzea, gizon serioa, eta dagoeneko hitzarmendua zegoena..., eta... "hona hemen", eta aurkeztu gintuen lauok gizon heldu eta errespetagarriari, honelakoetan esaten diren gauzak esanez; kapitainak berak eskatu zion amatxori etor zedila bi haurrekin beragaz, erakutsiko zizkiola gure ganbaroteak... eta hor goaz denak behera, itzalean ere oso bero zen!, ontzi barruan gehiago!, kalderak nonbait, eta lehenengo nirea, nire ganbarotea, ikusi genuen, Bermeoko bi ahizparekin joango nintzen garantia osoan, eta nire anaia, berriz, musikariekin batera, denak mutil serio eta onak.

Nik neuk esan nion neure buruari: zer dela ta Tasio musikariekin?

Baina halaxe suertatu zen, eta kapitaina itsasoratzeko azken aginduak ematen hasi zen bezain laster jaitsi egin behar izan zuten ontzitik gurasoek. Jende asko bildu zen kaian ordurako, eta ikusi nituen amatxo eta aitatxo eskaileratik behera jaisten. Tasio neure ondoan, eta sentitu nuen barruko urraketa minkor bat; neuk zotinei eusten nahiko lan izan nuen..., eta eskailerak erretiratu eta motorrak zarataz gora eta gora, eta baporean tutu lodi-luze eta negartiak hasi zirenean nabaritu nuen urdailean halako bigarren kolpe minkor hura, geroztik nire sentikortasunaren seinale betirako geratu

zaidana, larrialdi eta estuasunetarako, eta orduan aldenduaz gindoazen hartan mantso eta minkoi sakonagotuz joan zitzaidan; banapen fisikoa, separazioa, gero eta handiago zen haien eta gure arteko tartea, leizea!..., eta begiz galdu nahi ez amatxoren mota urdineko soineko zuri hura, nire azken erreferentzia... begiek min egin arte luzatu nuen azken puntu xurtxo hura, kaian zegoen jendetzan itota desagertu zitzaidan arte.

Negar asko egin nuen; azkenean, aitatxok ikusi ezin ninduenean, lehertu egin bainintzen, ez dakit zenbat malko isuri nuen, bakarrik nengoela konturatu nintzen arte...

Tasio ondoan ez ikusteak larriberritu ninduen orduan!

Ganbarotera jaitsi eta bertan itxi nintzen, makinaren danbadak lagun; baina ez luzarorako, hor sartu baitzitzazkidan Bermeora itzulian zihoazen bi ahizpak, adinduak biak, eta lagunkiro mareoaren aurkako karamelu haundi-mikatz-gaizto bat zuparazi zidaten bien artean. Handik aurrera, nire ganbaroteko lagunak mareoaren aurkako erremedio guztiak hartuz, sendagilea gora eta behera injekzioak jartzen, enfermeria baten usaina baino okerragoa zabaldu zutenez, gauak ezin loak harturik luze joaten zitzaizkidan, eta egunari lehen argia somatzen nion bezain laster ihes egiten nion torturako ganbarote hari.

Anaiak, gure aitak agindutako guztiaren aurkakoa egin zuen.

Tasioren konpainiarik ez nuen izan, urrundik ikusten nuen noizean behin, baina ez nintzen neure hamar urterekin hari jarraitzen ausartzen: musikariekin ikusten bainuen kartetan ari zirenei begira, beti orkestraren buru zenaren atzean, eta haiek pozik ziruditen, mutikoaren konpainiarekin!, edarien enkarguak egin eta beste. Behin gonbidatu gintuen kapitainak bere mahaira; hau izan zen anaiarekin jan nuen aldi bakarra, eta otorduetarako gehien gustatzen zitzaion lekua sukaldia zela esan zidan, nahi zuena jaten zuela. Nik neuk, nire ganbaroteko lagunak bertan jaten zutenean, zutenean!, gehienetan mareoak jota ez baitziren jateko gauza, baina neuk ezin nuen orduan ezer irentsi eta goitikinaren kiratsa batetik eta alkohola, behatsetako joanikoteak igurtzitzeko ukendua eta ballenako kortseen erratza, dena nahasian higuigarri zitzaidan.

Eskala bat egin genuen nonbait, ez dakit non, baina gu biok kaira ez jaisteko ohar zorrotza egin zigun kapitainak!

Ni ez nintzen jaitsi, noski; itsasontzia hutsik ikusi nuenean, anaiaren bila jarri nintzen, eta aurkitu ez nuenean ni urduri... orkestraren buruaz galdezka hasi nintzen, gure babeslea, eta hau ere joana zela... Larritu nintzen!, zer gerta!, eta Tasiok hainbeste aipatu zidan sukaldia jaitsi nintzen, hemen aurkituko nuelakoan, baina sukaldian esan zidaten "Tasio", bazekiten izena ongi asko!, etxeko bat balitz bezala... Tasio kaira jaitsia zela!! Itzultzerako zai geratu nintzen, eta hor dator, zoratzen!... Esan nion aitatxori esango niola lehenengo eskutitzean; erantzun zidan, orkestraren buru eta beraien babesle zenak, Mauxiok, eskatu ziola baimena kapitainari.

Egunak luze egiten zitzaizkidan; asko izan baitziren!, hogeitasei!!...

Rosaz gogoratzen nintzen!, batez ere itsasoa haserretzen zenean, bi aldiz, eta behin olatu erraldoiek bereziki geure ganbarotean kolpa-zanpatu eta gero uraren irristada luze-haserreak nire beldurrari irri egiten ziola burura sartu zitzaidanean; baina esnatu nintzenean segurutzat jo nuen Rosaren broma-komeria bat izan zela!, ez baitzuen inork

gau hartako itsaso-haserrerik aipatu. Jendea asko olgutzen zen, eta ez itsasoaz kezkatzen, nire bi konpainietatik aparte, eta ni ere kanpo, noski; jolasak eratzen zituzten, baita filmeak eman ere, eta gauez musika eta dantzaldiak; orkestrak oso polito jotzen zuen; askotan Rosa Chacóni gustoko zitzaizkion merenge eta gunbiak! Uzten zidaten musika pixka bat entzuten, eta neure anaia han ikusten nuen bandako partaide gisa, tarteko beti!... bien bitartean, nire babesle ofiziala zenak ikusten ninduen bakoitzean lelo bera errepikatzen zidan: goiz oheratu behar nuela, e!... Gau batez, oraindik goiz zen, harriturik ikusi nuen babeslea zen orkestrako burua bidaiarietako emakume bat zokoratzen eta oso luze musukatzen!...

Aitatxok ikusi izan balu!!...

Babesle gabe, umezurtz, geratu nintzen une hartan, eta ganbarotera jaitsi nintzen berehala.

Heldu zen noizbait ontzia Barcelonara!... Egunsenti eder batez...

Bezperatik urduri nengoen; ezagutuko ote ditut?; nortzuk etorriko ote dira gure bila?; argazkietan bezalakoak gertatuko ote?... Eta Barcelonako portura hurbiltzen ari ginela, eguzkia itsasotik atera berria, garbia zerua, kai handira begira nengoela, inguratu zitzaidan Tasio eta nire ondoan ukondotu zen barandan, bidaia elkarrekin egin bagenu bezalaxe! Urrundik hasi ginen familia ezagutzeko ahaleginetan. Tasiok esan zidan: "Ez dira heldu; gainera, ontzia amarratu arte, bidaiariak jaisten hasi eta gure txanda heldu arte, falta da oraindik!"... Neuri begiak minez jarri zitzaizkidan, miaka egiten nituen ahaleginez, argazkietako oroimenetan bilatu eta parejatu behar baintuen banan bana ikusten ari nintzen jendetzako pertsonekin... Ez nuen inor ezagutzen!

Eta ez badira agertzen?!...

Tasiok beti bazuen erantzun egokia. "Ontzian geratuko gara gure bila etorri zai..., eta etortzen ez badira, itzuliko gara!"

Ni neu, aitatxori gure itzuliarekin emango genion atsekabeaz jarri nintzen pentsatzen!

Baporea amarratu zutenean, Tasiok esan zidan: "Uste dut amaren ama dagoela hor, izebarekin"... Neuk ez nituen ikusten. Ez ginen jaitsi azkenera arte, ontzia hustu zen arte; adinez gaztetxo ginenez, kapitainak etorri behar zuen gurekin familiari geu formalki entregatzera... Ez nuen amona ezagutu, argazkiak aspaldiko izan behar zuen... eta izeba Maritxu ere ez... Biek besarkatu gintuzten maitekor, estu!, eta usain gozoa, amatxoren usain gozoaren antzekoa zen!..., honek hurbildu ninduen pixka bat, amatxoren begiekin ikusi nahi nituen orain, eta nahi nuen ahalegin osoz haren maitasuna erakutsi!... baina egiten ari ziren etengabeko galderek ez zidaten ezer esaten uzten; batez ere izeba, berritsu xamarra, amaren ahizpa...

Ez zuen honetan amatxoren antzik!

Ni amonaren zai gelditu nintzen... baina Tasiok erantzuten zuen azkar eta egoki!

Jarri nintzen pentsatzen, amonak zer pentsatuko zuen nitaz, mutua nintzela edo... Egitan paralizatua bainengoen... Eta amonak arreta handiz begiratzen zidan betaurrekoen atzetik, zerbaiten bila bezala; egia esan, biok bakarrik bageunde bezala sentitu nuen, eta oso urduri jarri nintzen arakatze fidakaitz honekin, amona zerbaiten bila edo zai balego bezala, eta neu ezer agertzeko gauza ez... Neuk ere begiratzen nion etengabe, gaixoa!, amatxorenik zerbait aurkitu nahiz... bere urteak bazituen ere, polita

zen amona, dotorea; ile ederra, amak bezala, baina zuria oso, atzeko motots ederrean jaso; betaurrekoen kristalak lodiak ziren, eguzkiaren argiak loditzen zituen gehiago, baina atzean bizi-biziak ikusi nizkion bere begi urdin argiak...

Hala, amona niri begira, eta neu hitz bat esan nahian, esan ezinik!, baina amatxok nirekin bidaltzen zion musu estua emateko gogo beroz... eta hala geundela jaso zituen hatzez betaurrekoak, begiratu zidan hurbiletik, ni musuaren zai berriz, eta lepotik heltzeko nengoela... amona izebagana makurtu zen eta esan zion honi ahapeka, baina ia nire eskuineko belarrian:

"Argazkian ezetz ematen zuen, baina hau ere beste bandokoa da"...

Hiru

Heldu ginen gure gurasoen herrira eta uda zen.

Han "euritea" deitzen diogun negua utziaz, hemen alderantzizko uda lehorra aurkituko genuela esan ziguten; halere, lehen gau hartan oheratzerakoan ikusi nuenez zeru gorri haizetsuak berebiziko ekaitza lehertarazi zuen laster. Urruneko dunbada motelak ohetik entzuten hasi nintzen bezain agudo sentitu nituen alboko gelan Adela eta Maria xaharrak berak etzanda zeudenetatik zurezko solairura egin zituzten jauzitan, eta bapatean Santa Barbaragana zuzenduak zihoazen otoitzak eskandalagarri esaten, kantatzen!... Euri jaso hasi zen kristalak zehatzen, haize burrunbatsua lagun... Handik aurrera, hurbiltzen ari ziren trumoi hotsekin tximistargien garraldi izugarriak leihotik sartzen hasi zirenean jaitsi nintzen neroni, ikusminak bultzata...

"Ez jaramonik egin", esan zidan amona Mertzxedesek ahotsa jaso gabe, gelako beste ohetik.

Nirekin ohea erdibana zuen izeba Maritxu ez zen esnatu ere egin, eta trumoi hotsen urruntzea eta bakantzearen ondorio paketsuan amonaren isiltasun zorrotz eta itzel hartaz nire entzumen osoa betea zegoela... egun hartakoari birpasa ematen hasi nintzaion: amatxok sarri aipatzen zigun etxaurreko parke ederra eta etxapean beti jendez betea egon ohi zen "Parkeko Kafea" ez zen leku triste batean taberna handi bat besterik. Egia esan, etxeko sarrera guztiak etsitu ninduen; engainu handi bat, ziri bat!, iruditu zitzaidan dena... Igo genituen laugarren solairuraino zurezko eskailerak eta han goian agurtu genituen Adela eta Maria, amonaren lehengusinak, zahartxoak biak; neuk bisitara joan ginela uste izan banuen ere, geure bizilekua "Fontuso" baserrian izango genuela uste osoa bainuen, igo egin zuten ekipaia guztia eta han geratu ginen. Etxeak hiru gela zituen: erdigunean, jangela gisa erabiltzen zuten salatxo bat, dena oso txukuna, eta moble gainetan eta paretetan agertzen ziren argazkietan exilatua zegoen familia guztia, ugaria oso!; Tasio eta neu ere hor geunden gurasoekin. Hemen ulertu nuen zein berezia zen nire egoera!...; eta bi logela: zahartxoek okupatzen zutena, bi ohe eta bi belaunalki armairuarekin, eta bestean bi ohe handi, armairua eta nire amona beti esertzen zen antzinako besaulki eder-apain batekin.

Zoragarria zen besaulki hau, eta burutik pasa ere egin zitzaidan amonari oso ongi zegokiola eserleku aberatsa.

Ahaztu egin zait anaiarentzat prestatu zuten ohatila salan zegoela esatea.

Etxebizitza honen aldrebeskeria handia zera zen: sukaldera eta komunera joateko, etxebizitzatik at geratzen zen korridore luze bat gurutzatu behar zela, genuela!, bizilagunen bide beretik!, eta hau egunez eta gauzez!; hau izan zen gehien arduratu ninduen arazoa. Sukaldea handia zen, eta bere leiho ederretik ikusten genuen, orain teilatuz-teilatu, gertu zegoen eliza; eta urrutira begira jarriz gero, Serantes mendi famatua!, guri amatxok Caracasen postal batean mendi garai bat bezala deskribatzen ziguna... egia esan, eta barka, baina tititxo bat zirudien gure Caracaseko Avila mendi garaiaren ondoan!... Etxeko aurrekaldean parkera, kaira, arrain "Bentara" eta trenaren

geltokira ematen zuen, dena berton; eta urrun zegoen Portugalete, batetik, eta ezkerretara, ibaiaz bestaldean, Algorta eta Areeta...

Hau dena orain, hemen, Caracaseko oroipen eder baina antzu zirenak, izeba Maritxu bere betiko enfasi handiarekin dena gure ondasun partikularrak bailiran aurkezten ari zen!

Nahiz eta ezer gutxi esan niri.

Hemen orain hamar urte jaioa eta lau eskas nituela amaren besoetan exilatu ninduten haurrari.

Asmo mikatz honekin hartu ninduen loak trumoi dunbada joan eta askoz gero amonaren arnas lasaia entzuten... eta entzuten jarri gabe nire belarriekin sumatzen nituen oraindik paretaz bestalde, irudikor ni, neu!, bi izeba zaharrei aspaldi joanak ziren trumoiak utzi zieten beldurra beilatzen...

Bi zahartxo hauek izan nituen, nire amonaren jenio xuxen, hertsi eta zertxobait lehorraren ondoan, bitarteko; Caracasen Rosa neskame indioaz baliatu nintzen gisa erabili nituen kasu honetan; batez ere Adela. Adela eta Maria, biak ziren elizkoiak baino gehiago, beatak, santukeriaz beteaz zeudenak.

Neuk hala ikusten nituen behintzat.

Adela egunero joaten zen mezatarara; bidez, itzulian, egiten zituen erosketak, eta herriko berri guztiak garraiatzen zizkigun; Mariak kanporako lisaketa lanak egiten zituen, bien ogibidea zen. Maitasun handiz hartu gintuzten bi zahartxoek; nire anaia eta ni umezurtz bezala tratatzen gintuzten, batez ere ni.

Tasio, anaiak, ni baino bi urte nagusiagoa eta berez ausartagoa zenez gero, laster egin zituen lagunak.

Eta gutxi iraun zuen gurekin.

Etorri eta hurrengo egunean bertan eraman gintuen amonak gure amaren aldetik gerrostean herrian geratu ziren beste bi familiako bisitatzera: Austiña, nire amonaren ahizpa, eta Anas, bere senarra. Inguruan bizi ziren: gure etxeko ataritik irten, etxea inguratu eta hiru bizitzako etxe estu baten bigarren solairuan. Igo ginen hemen erabilera eta espartzu-igurtzi askoz gastatutako zurezko eskailera meharretik gora, pauso bakoitza negar bat, eta han zeuden bi zaharrak, txikiak biak, hauek ere lanak osorik gastatu balitu legez, guri ongiatorri isurkor eta negartia egiten; garai hartan eta geroztik izan naizen guztietan etxetxo hori arrain eta txori-kaiolaren usainaz markatua geratu zait. Geure herrian, antza zenez, dena zen zaharra, jendea eta etxeak. Gerrak edo, herri guztia gatzunean jarri balu bezala. Austiña eta Anasek, Austiña beti aurretik!, ez zuten haurrik izan, eta gu bisitara joan ginen egun berean txoratzen eraman zuen gizonak Tasio nire anaia kaiko Bentara, hemengo arduraduna baitzen; etxeko menpetasuna bertako nagusikeriaz kitatzeko modua!; nolana, bi egun geroago joan zitzaigun anaia, nire harridura handiz, senar-emazte zaharren etxera bizitzera.

Hona ekarri gintuen baporean egin zidan gauza bera errepikatu zidan hemen: bere bidezidorra hartu eta akabo, galdu nuen bistaz!

Anasek gure aurrean esan zion orduan, serio asko: "Hemen jateko eta etxeratzeko orduak sakratuak dira"... baina ez alferrik! Hor aurkitu zuen nire anaiak ordurarte falta izan zitzaion askatasuna, eta handik bizpahiru astetara laguntaldetxo baten buru egin

zen, transatlantikoan kartetan ikasi zituen tranpekin, tximista bezain argi zen!, herriko mutilkoskorren artean heroi bat zela jakin nuen.

Aurkezpenak aurrera, eta ez nuen Caracasen gurasoek hainbeste ardurarekin erakutsi zizkiguten argazkietako pertsonekin hemengo egiazkoak lotzen asmatu, ez zuten antzik ere; jende gehiegi zen. Ni neu aurkezpenetan ez nintzen neu, baizik eta "Arantxaren alaba". Eta Bilbora aitaxoren familia bisitatzera joan ginenean, berriz, "Endrikeren alaba"; hauengana ez gintuen amona Mertxedesek berak eraman, honek izeba Maritxurekin bidali gintuen anai-arrebok, eta harritu nintzen beste jende mota batekin aurkitu nintzenean: aitaren aita zen argazkietan ikusitakoetatik antzik gehien zuena, eta ez dut uste, Tasiok farrez zioenez, aurpegiz baino eskuan zuen makilak bereizten zuelako zenik, baizik eta baita irrifartxo bat agerian zuelako ere; atsegina izan zen gurekin aitona..., eta zirrara gehien eragin zidana zera izan zen, gertutik farrezka niri hizketan ari zela aitaxoren antza nuela esan zuenean (ez, alegia, beste familiakoa!... ez zuen "bandokoa" esan, halere)... bada aitonak nire begietan bere semea ikusten zuela esaterakoan hartz-haginen aparatoa ahotik ia irten egin zitzaion, poz hartan!, eta pena pixka bat eman zidan, ez bait nuen neuk inoiz horrelakorik ikusi ordurarte!... Izeba Maritxu hor zegoen, beste bandoko ordezkari-mandataria, isilik; behartua zegoen irrifarre faltso bat ezpainetan erakustera, baina niri nabarmenegia egin zitzaidan!... Amonak, berriz, buru ederra zuen, aitaxok bezalakoxea, eta irrifarre gozoa; gerriz apur bat makurtua, bizkarrezurreko arazo bat, nonbait, eta hatz luze-politeko eskuak zituen, atzazalak labur moztuak eta ongi zainduak... Goxoa izan zen gurekin amona ere, noski; baina aitona zen hizjarioena eta alaiena, eta hau ere elegante jantzia; gero ikusi nuen bakoitzean ere, beti, etxean nahiz kanpoan, oso dotore jantzia ikusi nuen, txupin eta guzti, eta buruko soilunea, eskuinean geratzen zitzaizkion ile bakanekin ezkeralderako orrazkeraz txukun atondua.

Etxebizitza ederra eta polito ipinia zuten, moble garestiz hornitua, eta hau dena nire hiru izeba zirenetako batek, Anbrosiak, xuxen asko zaindua, agerian baitzegoen hau zela etxe hartako buru.

Lehenengo bisitaldi hartan galdera pilo bat egin ziguten, gure gurasoek; eta semeaz, nire aitaz, gehienbat, noski, eta harritu egin ziren aiton-amonak hurrengo bere herrira etorriko zirenak beraiek, gurasoak, izango zirela entzun zidatenean... Aitonari ikusi nion lehen harridura aurpegian!, eta gero amona ikusi nuen une hartantxe kolpetik mahaian zerbait egin behar balu bezalako bira zoroa ematen, eta ezertarako ez, ez baitzuen mahaitxoan ezer aurkitu, eta eskuak marmolean pegatuak geratu zitzaizkion bapatean, gaizki sentitu izan bailitzan.

Eta nik neuk ikusi!... Konturatu zen amona, eta berehala nigana hurbildu eta galdetu zidan zertan ziren nire ikasketak...

Eta horretan, bisita labur batean, amaitu zen hura.

Ni neu oso kezkatu!

Gurasoei idazten nienean, maiz egiten bait nuen, Tasioren ordezi!, ez nizkien nire harridura hauek aipatzen, seme-alaban etorrerak izutzen zituen!..., ez nien neu sentitzen hasi nintzen kezka berri hau inolatan pasa nahi, nahiz eta nire zentzu guztiak harrez gero irekiak eta zai-zai geratu... Isilekoak izaten hasteko goiz xamar zen niretzat, baina pilatzen ere bazihoazen dagoeneko!... Neuk idazten nien sarri, esan bezala, eta jaso ere

egiten nituen haien eskutitz gozoak... Hegazkinezko kartazala ikusten nuen bezain laster lainotzen zitzaizkidan begiak. Hemen ere baziren bereizpenak: aitatzok nire izenean zuzentzen zituen gutunazalak, eta ezin nituen berehala ireki; zeremonia handiz ibiltzen nintzen nere artean; eskutitz itxia nirekin izatearekin nahikoa zen zorionsu sentitzeko, eta ez nuen idatzia zegoena irakurtzeko batere presarik sentitzen; aitzitik, luzatu egin nahi izaten nuen barru-barruko zeru eder hau. Izeba Adela (noizbehinka amona ere bai, honek honelakoetan ere oso diskretu jokatzen bazuen ere) galdezka hasten zitzaidanean: "Zer dio aitatzok?", orduan behartua sentitzen nintzen eskutitzak irakurtzera..., baina inoiz ez osorik... ez zitzaidan aitaren eskutitzak inori irakurtzea gustatzen; oharrak egiten zizkidan, eta, gainera, ez dakit zergatik, eskutitz haiek sekretuak iruditzen zitzaizkidan, nire eta nire aitaren arteko isilpekoak... Nire amatxoren bidea ez zen berdina; honek amonari idazten zion, eta guretzat hitz batzu jartzen zituen. Nire amaren eskutitzak Adelak irakurtzen zituen. Nire amonak, berriz, oso bakan, bista txarra zuelako.

Izan ere, bere betaurrekoen kristalak oso lodiak ziren.

Lau bat aste ziren herriratu ginela; amonak nire izena eman zuen Hijas de la Cruz kolejioko irailan hasteko, eta nire amona bera izan zen osaba Joxeren ezkontza aipatu zuena; eta esan zuen, gainera, kolejioko uniformeak gero egingo genituela... adieraziz, esan gabe, (ez zuen inoiz garbi ezer esaten!), ni neu ere ezteietara joango nintzela...

Bi egun geroago, eta biok gelan bakarrik geundela, hitzegin zidan aurrez-aurre bidaiaz.

Esan zidan, Frantziara joan behar genuela, eta nahiago zuela neuk hau inori ez aipatzea! Halere, eta osorik ustekabeak!, aitona-amonei egin genien bisita batean irten egin zitzaidan ezteiak aipatzea, eta Frantziarako bidaia ezkutu hura... Tximistargi batek jota bezala ikusi nuen bapatean arriskua... aitona-amonek, aitatzoren gurasoek, gurutzatu zuten iheseke begirada zorrotz-haserre hura atzeman nuenean!! Izeba Maritxuri gorritu zitzaion apur bat aurpegia! Eta, gogoratzen naiz nola aitona, nigandik aldegin nahiaz, baina ozenki, esan zuen haserre bizian: "Hori erokeria da!, muga itxia dago eta!..."

Eta azkenik: "Familia horren beste zoraldietako bat!!!"... eta makilaz solairu distiratsuan puntuak jarriaz: "tik-tak"..., salatit irten egin zen.

Gau hartan ausartu egin nintzen amonari galdetzera, ea noiz konpondu behar genituen bidaia hartako paperak. Ez zidan azalpenik eman, bai zera!, hau esan zidan bakarrik: "Neuk konponduko dut hori, ez zaitetz arduratu"... Baina berriz ere sentitu nuen barruan halako hutsune mingarri bat, misteriozko puzzle baten aurrean jarri banindute bezalako noraezean galduta... Amona, banekien, oso zen isila; denekin; nirekin gehiago... Hain gutxi ezagutzen nuen nik neure amona!...

Eta hemen, nire noraezean, aurkitu nuen Adela izeba zaharraren bidea!

Lehen Caracasen Rosak egin zidan bitartekotza beraren beharrean nengo orain ere, eta Adelarena aurkitu nuen.

Amatxoren izeba Adela izan zen "Fontuso" baserriaz egia aitortu zidana: "Fontuso" amaren familiako baserria zen, eta da oraindik!, noski, baina frankistak sartu zirenean dena utzi eta alde egin behar izan zuten, garaipenaren mozkorraldi hartan etxeak lapurtu egin zituzten, eta gure baserria ere bai; izu hartan norbait ahalegindu zen moble batzu eta pianoa eta pintura eder bat, anparatzen: amonaren ahizpa bat, Marina, familia

handi batekin, izan zen, halabeharrez, berton sartu zena... Eta esan zidan ahapeka: "... Eta nola amonaren zazpi seme-alabetatik sei, Maritxuz landa, denak, exilatuta European eta Ameriketara sakabanatuak dauden, zure amatxo bezala, eta nola amona Mertxedesek herrian denbora gutxi egiten duen, hobe honela"... Marinaren familia handi hark apurtu zituen geratu ziren mobile eta trasteak...; dena hondatua zegoela esan zidan, eta niri honek baserria bisitatzeko gogo guztia kendu zidan; amatxok argazkia erakutsiz hainbeste aldiz kontatutakoak nire barruan bizirik gorde nahi izan nituen...

Egun batean, bazkalondoa zen, amona Mertxedes maleta egiten ikusi nuen.

Izeba Maritxuk eskuratzen zizkion gauzak, baina amona zen maleta egiten zuena; amonari begira ikasi dut neuk maletak egiteko arte hura... Motrikoarra zuen senarra, kapitaina, gazterik perlesiak jota geratu zen arte berekin eramaten zuen maiz bidaietara, batez ere Londresera, eta ohitua zegoela ikusten zen... Zoragarri egiten zituen, gero, dena tolestuta, ordena estuan, dena kalkulatuta! Alabak ematen zizkion pieza asko uzten zituen alboan, eta behar-beharrezkoak bakarrik sartu.

Amaitu zuenean, izeba Maritxuri berea egin zezala agindu zion.

Dena isilik egindako lana izan zen. Ni neu begira. Azkenik, amonak bere eskuko poltsa poliki-poliki bete zuen bidaiarako premiazkoen ziren gauzez. Gero ikusteko aukera izan nuen bezala, poltsa hau eskutik ez zuen uzten. Hemen sartu zituen nire gauza batzuk ere; eta baita telazko bi kutxatila bere galtzerdi beltzekin, beti oso finak eramaten baitzituen. Azken orduan esan zidan, bazen garaia!, erosoak izan behar zuten apreta gorri batzuk erostera irten behar genuela, eta "erosoak izan behar dute", esan zuen bi aldiz, "oinean min egingo ez dizutenak".

Gero irten ginen, erosi behar genuen gauza bakarra ekarri eta nireak jantzi arazi zizkidan.

Hurrengo egunean izeba Maritxu irten zen bere maletarekin; "gero arte" batekin ikusi nuen joaten.

Geroxeago, sukaldetan zen, ezin isilik geldi nintekeen, Adelarekin bakarrik nengoen unetxo batean galdetu egin nion ea norantz irten zen izeba. Eta, "ezteietara", erantzun zidan. Hitzik gabe geratu nintzen, oso arduratua; ez ote ninduen amonak ni eramango?...; ikusi nuen amona bere gelan, bestetan bezain isil eta lasai, eta gauean oheratzerakoan, neu bildu nintzen lehen, beti bezala (orain Maritxu gabe), itzali zuen argia amonak, eta ohetik ohera eta ilunpetan esan zizkidan hitz hauek:

"Bihar irten behar dugu; apretek ez al dizute minik egiten?; asko ibili behar dugu; bihar arte"...

Ezin ninduen loak hartu!

Pentsa! Tasio ez nuen ikusi, ez zekien honek bidaiatzeko ezer; ez nuen gurasoen eskutiz jaso... nik neuk esan bait nien azken bidalitakoan ezteietara gindoazela.

Gau guztian aitaxoren aitak amonari bota zion begirada zorrotz hura izan nuen neure aurrean, begi handi bat bezala, amonaren arnasa lasaiak gela guztia pakez betetzen zuen bitartean.

Oso goiz jaiki nintzen, eta korridorea arineketan gurutzatu eta sukaldera joan nintzen. Adela jaikita zegoen, eta hainbeste gauza galdetu nizkion batera, amona atetik sartzen ikusteko beldur!..., ez zidan ezer argitu; jakin nuen gauza bakarra zera izan zen,

amonak maiz egiten zituela honelako bidaiak; seme-alabengana, bilobengana, biltzen zela mugaz bestaldean... Eta han bere zai egoten zela "Beltza"...

Nik neuk ez nuen gure familiako beltz honetaz etxean ezer entzun!

Hor geratu nintzen isilik, amonaren zai!

Ez nuen gosaririk irentsi... Nire amonak ez zidan nire pasaportetik eskatu, aitatzok hainbat goraiatu eta gomendatu zidan pasaportea; amatxok egindako poltsatxo batean gordea neukan... Joan nintzen gelara eta familia guztia elkarrekin, etorri aurretik, Caracasen hartu ziguten argazkia, marko eta guzti, kaxoitik hartu egin nuen...

(Santurtzira heldu eta berehala, oheratzerakoan, jarri nuen argazki hau gelako gau-mahaiaren gainean, eta begiak lainotu zitzaizkidan; amona bere besaulki ederrean eserita zegoen. Hurrengo egunean, argazkia falta zen, abiadan ireki nuen kaxoia eta han zegoen, ahozpez; ez nintzen berriz mahai gainean jartzera ausartu; ahozgora jarri eta kaxoian utzi nuen... orain nirekin hartu dudan arte... eta ez dakit zergatik, nire etxea oraingoz hau baita...)

Pasapor-teaz nengoen arduratua; ondo begiratu nuen, ea nik jakin gabe norabaiterako seilatua izan oten zen, amonak bere kasa egina..., baina ez, azken seilua Barcelonara heldu ginenean jarri ziotena zen...

Orain hilabete eskas!

Egun honetan, usarioa genuen baino goizago bazkaldu genuen. Nik ezin izan nuen, berriz, ezer irentsi. Adela eta Mariak esaten zioten amonari, denei eskuminak emateko, gorantzi asko denei!, bien izenean, eta polito atondua zegoen oparitxoa eskuratu zion Adela, bien izenean, berriz, amonari, osabarentzat... Emaztekoa ez baitzuten ezagutzen; bretoina zen aidanean...

Gizon bat etorri zen gure bila, goraino; honek hartu zituen bi maletak eta gure aurretik jaitsi zen; kotxe gris bat zegoen atarian, eta atzeko maletategian sartu zituen; amona eta ni atzean eseri ginen, eta ezer esan gabe abiatu zen kotxea. Neuk ikusi nituen azken aldiz amonaren bi lehengusinak, xahar gaixoak, leihotik begira. Orduak egin genituen kotxean, geratu gabe; amonak apenas hitzegin zion txoferrari, ezaguna bazuen ere. Amonaren inguruan beti nabaritu nuen hutsune hau; harresi, harrespill!, itxia zen amonaren barrutia. Behar bada ez zuen kanpora begiratu beharrik, barrua gauzaz, gauza betez, hornitua zegoelako! Nork daki amona non bizi zen... Bostak aldean heldu ginen herri txiki bateko plazara, eta hemen geratu zen kotxea. Amona jaitsi egin zen ezer esan edo entzun gabe, eta ni atzetik jarraitu nintzaion. Kotxea abiatu zen berriz eta ikusi nuen plazatik irten eta etxe-kantoi baten atzean desagertzen, gure maletak barruan zeramatzala!!

Amona taberna txiki batera sartu zen plazan eta mahai batean eseri, isilune berdinean, amonaren ingurua isil-mutua bailitzan. Kafesne bat eskatu zion etorri zitzaigun neskari; bi ekarri zituen, eta berea ukitu aurretik poltsatxotik sudur zapitxo garbi bat atera eta pasa zuen goilaretxoa, garbitzeko.

Gero ikusi nuen, beti egiten zuela hori kanpoan zerbait hartzerakoan.

Beti bazuen zerbait berririk. Ezustekoa!

Beltzez jantzia ibiltzen zenez, gaur betiko zapatak zituen oinetan eta galtzerdi beltz eta gardenak!... Berehala esan zidan: "Itxaron egin behar dugu"... Jende gutxi zen tabernan, baserritarrak denak, niri amak noizbait esan zidan bezala jantziak, txapel eta brusa beltzez.

Neuk ez nuen hitzegiten ari zirenetik ezer ulertzen!

Orduerdi barru sartu zen gizon gazte bat tabernara, eta zuzenean amonari hurbildu eta esan zion: "Hola doña Mertxedes, joan gaitezke".

Kotxe hori eta zahartxo batean sartu ginen oraingoan, biak atzean, lehen bezala, eta beste kotxeak ez bezalako balantzak eta jauziak eginez abiatu ginen mendian gora. Ez dakit neuk kotxe hark nola egiten zuen gurdibideetatik ibiltzeko!... Bai mendi politik eguzkia jaisten hasi zenean... Halere, ni neu batez ere bidean zer aurkituko nengoen erne... ez nintzen txoferraren isiltasunaz fidatzen, nahiz eta amona, soina zut eta xuxen aurrera begira, lasai zihoan... itxuraz!... Bidea gero eta estuago eta baldarrago, noizbait baserritxo bat bazter batean ikusi genuen. Ikusi genuenetik bertara heldu ginen arte ordu erdi bat igaro zen; geldituta ere egon baikinena, pinudi baten atzean, eta txoferra bakarrik jaitsi eta zai geratu zen, norabait begira, ez dakit neuk zergatik; amona, beti bezala aurrera begira, orain gizonari, eta isilik. Baina heldu ginenean, txoferra presarik gabe jaitsi zen eta ireki zion atea amonari, jaitsi ginen biok, eta kotxea ikuiluko ateak ireki eta bertan sartu zuen, oilo eta guzti.

Orduan galdetu zion amonak gizonari, "Erbiti" deituaz, lehenengo aldiz!, ea bide laburra ala luzea hartuko genuen, eta gizonak erantzun zion: "Ikusiko dugu"...

Eta oinez abiatu ginen.

Aurrean, Erbiti; amonak esan zidan ni aurrera pasatzeko, jarraitzeko gizonaren atzetik, eta amona bera jarri zen orain hirugarren. Bide luze eta isila egin genuen; aurrena baso batetik zehar, gerizpe-ilunpean, eta gero han aurrean sugeak bezala ikusten genituen bidezidorretatik; hau utzi, bestea har, gidariaren nahierara gu garotartetik eta gehienbat mendigora. Usaina zen gozoa eta aldakorra; arrats beheerako haizetxoak, hegoak, bazuen zerikusirik, eta gu, ibilian, gehienbat gorantz. Amonak ohartarazi zidan irten aurretik, ezer ez galdetzeko, ez hitzegiteko; egin behar nuena, amonak berak aginduko zidala... Orduak egin genituen ibilian, ez dakit zenbat; oinak sentitzen nituen haziak, ez zitzaizkidan abarketa gorrietan kabitzen, eta egarritu nintzen, eta txis egiteko larritasun handia heldu zitzaidanean, amonak aurrea hartu zidan, piska bat atzean utzi, isilik, gero berriz aurreratzeko agindua eman zidan arte... Nola jarraitzen zuen oraindik hain xuxen eta tente, zut, makalondo bat bailitzan?!... Halere, han ikusi nuen lehenengo aldiz, eta ez nuen gehiago ikusi gero!, mototsa askatuta eta ile xuri hura dena harrotua...; iluntzen hasia zen, haizeak orrazten zion ilurdina... Ni honetaz pentsatzen ari nintzela, ustekabean, muino zabal baten gainean aurkitu ginen; gure gidariari jarraituz, aurrerabideko aldats behera hartu eta aspaldi ikusi ez genuen baserria begiztatu genuen; aukeran txikia zen, eta gordea bezala zegoen sasi inguru batean. Geu jaisten ari ginen bitartean mendian gora lainoa zetorren, eta hara iritsi aurretik osorik laino usu-lodi batez inguratuak sentitu ginen amona eta biok. Kosta egiten zitzaidan Erbiti ikusten, haren bideari xuxen jarraitzeko. Baina heldu ginen baserritxora, eta gidariak besoz erakutsi zigun alde batera geratzen zen atetxo bat, makurtuta sartu behar den

horietakoa... Amonak ezagutzen zuen lekua, dena arduraz eta niri aurrea hartuaz egin baitzuten mugimendu guztiak, bere jenioari zegokion bezala. Andre gazte batek lagundu zigun eskuzko eskailera batetik lehenengo solairura igotzen, eta argia piztu zuen. Gela bera ere txikia zen oso, ohe batekoa; leihotxo bat bazuen, halere, leihatila itsu batekin, eta amonak hau ixten zuen bitartean, begi-keinu batean bezala, ikusi ahal izan nuen lainoaren gainetik ilargi zuriak argitutako ibar eder bat. Amonak esan zidan betiko agintots apal-fermuarekin ez nezala horretatik bururik atera, eta abarketak kentzerakoan zaratarik ez ateratzeko; berak ere kendu zituen apretak oholtzaren negar bat gabe... Neuk entzuten nuen berriketa gure azpian, behien hausnartzeak, noizbehinka ostikada lurrari, pixa lodi bat tarteka..., ikuiluaren gainean baikeunden, sartu orduko usainak adierazi zidan bezala..., eta orduan, ahapeka, baina bi hitz esan zizkidan: Frantziako aldean geundela, muga gurutzatu genuela.

Neu lasaitzearren hau dena, baina egia, noski; amonak ez baitzuen gezurrik sekula esaten; horretarako isiltzen zen, behar bada, esan beharrean aurkituko zen gezurrak ez esatearren...

Baina alderdi honetara heldu baginen ere, hurrengo eguna berriz oinez egin behar genuela, eta kontuz!, ez baikenuen alderdi honetan egoteko behar zen paperik..., osaba ikusi arte.

Ni neu ez nintzen ausartu aipatu zidaten beltza zen galdetzera; beltzik ez baitzen familian, nekienez behintzat. Venezuelan normala zen ahaidekoren bat beltza izatea, baina ez hemen; aitatxori askotan entzun nion argudio hau Euskal Herria goraiatzekoan.

Afaririk ez zen han aipatu!

Loak erraz hartu ninduen, eta goizean oso goiz jaiki ginen.

Amonak, berriz ere hizketan!, esan zidan ez zekiela noiz irtengo ginen, baina agintzen zigutenean gertu, prest!, egon behar genuela; hori Erbitiren esku zegoen, honek ezagutzen zituen goardien joan-etorriak. Ez ginen gelatxotik irten andrea gure bila etorri zen arte. Behean zegoen gidaria, eta lehen bezala segitu genion; orduak!... Hura aurretik, bezperan bezala, eta noizean behin bueltatzen zen ongi gindoazen ikusteko; orain hark zeraman amonaren poltsa!, konfidantza handia zuelako proba zen hau! Amona, galtzerdi beltz-garden-berriekin irten zen, baina berehala korritu zitzaizkion puntuak, karreran! Lainotan ezkutatuta zegoen eguzkia berotzen hasi zen, eta nekatuta zihoan, arnas estua sentitzen nion; kendu zuen lepotik bere gasazko buruzapi more polita, eta eskuan zeraman orain airoso asko... Azkenean, jaisten hasi ginen, eta han behean ikusi genuen errekatxo bat.

Gidaria geratu egin zen hona heldu zenean, amonaren zai, eta esan zion: "Honez gero hemen egon behar zuen; ordu erdi bat berandu heldu gara"...

Kafesne bero bat hartuko nuen nik, baina amonak ez zuen ur tanta bat ere eskatu!

Begiratu nion amonari, bistan zen atzerakuntzari ez ziola garrantzirik eman. Luzetxo egon ginen zai... Hodeiak iluntzen, hegoa epel... eta hemen dator kotxe handi-beltza!, beldur nien neuk kotxe handi aberatsei, nire oroipen txar batek utzitako marka!... Eta hortik jaitsi ziren bi gizonak egin zidaten inpresio txarra, batez ere handienak... betaurreko beltzak eta sonbreror jantzia... zineko gangster bat zirudien... baina harengana zihoan amona!..., beltzaran handirengana!... Ez al da, nioen niretzat,

hau izango amonaren semerik zaharrena, nire amaxoren anaia!... Eta dagoeneko besarkatuta zeuden amona eta biak, eta neronek oso hurbiletik entzun nuen amonak nola esan zion: "A!, Lazaro"... musu bat eman zion, "Nola zeudete denak"... eta ni eskutik hartu eta hurbildu ninduen amonak osabarengana, esanez: "Hau da zure amaxoren anaia, osaba Lazaro"...

Osabak esku handi bat nire burugainean jarri eta astindutxo bat eman zidan, besterik ez, eta amonak "Paskual" izeneko txoferrari esku emanaz agurtzen zuen bitartean, osabak patrikatik esku handi bete diru-bilete atera eta eman zion Erbitiri, galdetuaz: "Noiz maletak?", eta hark erantzun zion, hotelera iritsirik zirela zuzenean ordurako.

Igo ginen kotxe handira, zabala eta ederra benetan; larru eta perfume usainaz ito beharrean, amona eta ni atzean; osaba, Paskual txoferrarekin. Amonak atera zituen poltsatik zapata berriak, jaso zituen nire abarketa gorriak, eta eman zidan orraza, nire ilea orraztu nezan, eta bitartean amona galtzerdiz aldatu zen, orain pare berri beltz-garden bat oso kontuz jantziatz.

Iritsi ginen hotelera; Donibane Lohizunen, amonak esan zidanez; norbait pianoa jotzen ari zen saloian; sartu zen osaba aurretik eta esan zuen: "Poeta, hemen dago nire ama"...

Eta orduan pianistak "Desde Santurce a Bilbao" jo zuen.

Dutxa bat hartu eta jantziz aldatu eta gero, maletak gelan aurkitu baikenituen, bazkaltzera, berandutxo bazen ere, jaitsi ginen jangelara. Amona semearen ondoan eseri zen, ni aurrean; hain isil hitzegiten zion amonak, eta hain errespetu handiz, esanik ebaki gabe, entzuten zuen bere semeak, "Beltzak!", noizean behin ahopeka hitzeginaz, neuk ez nuen hitz bat hartu.

Postreak eskatzerakoan, amonak eskatu zuen niretzat: "dagoen izozki eder eta handiena".

Hau izan zen nire saria.

Gero esan zion amonak osabari: "Bihar bertan irten nahi dut Britainiarantz".

Eta beltz handiak erantzun zion:

"Bai, ama".

Lau

Donibane-Lohizunen iragan genituen egun batzuk.

Ostatuko nagusia zen doña Kattalin eta bere alaba Mertzek beren artean herriko hizkeran egiten zuten, eta ostari batzuekin ere erabiltzen zuten; honantz irteterakoan kafesnea hartzen egon ginen tabernan lehen aldiz sumatu nuen marmarraren musika ezezagun hura orain gertuagotik entzundako hizkuntza gauzatu zenean arrotzagoa egin zitzaidan. Amona Mertzxedesi galdetu nion ea ezer ulertzen zuen, eta nire harridra handiz jakin nuen ulertu, baietz, egiten zuela; ea non ikasi zuen?, eta bere senarragandik; aitona Julianengandik?!..., eta amonak baietz, berriz... hura jatorriz mutrikuarra zela, euskaraz egiten zen arrantza-portu batekoa.

Amonak ez zekien zergatik Euskal Herriko paraje batzuetan euskaraz egiten zen eta besteetan ez. Halaxe zen aspalditik, zirudienez; berak ez zuen beste egoerarik ezagutu...

Harrigarri iruditu zitzaidan hainbeste zekien nire amonak arazo honen zergatirik ez ezagutzea! Bestalde, frantsesez gainera gazteleraz ere sarri egiten zen hotelean, eta baita Donibaneko dendetan ere; amonak ez zuen gaztelera besterik erabiltzen, eta ulertzen ez ziotenean, laster irteten zen denda barrutik geuk bezalako gaztelera erabiltzeko gai zen norbait; plaza betean taldeka eserita berriketan ari ziren gizonak ere euskaraz eta gazteleraz iharduten zuten ozenki, eta amona Mertzxedesek esan zidanez, aspaldi amaitua zen gerrako desterruaren hondarrak ziren hauek...

Nahaste txiki bat sortu zitzaidan buruan...

Amonak ikusi ninduen kezkatu, eta zera adierazi zidan, geu urrutiko Ameriketara bezala zeudela hauek hurbilago, baina oraindik sartzeko beldur... bertaldez kontrarioak hiltzen ari baitziren oraindik! Zure osaba Lazaro hilko luketen bezala...

"Eta nire aita?"

"Baita zure aitatzko ere!..."

Bazkalondoan, osabak "Poeta" deitzen zuen pianojoleak paseotxo batera gonbidatu ninduen, eta mahaian isilpeko berriketan zeuden ama-sumeengandik baiezko erraza jaso ondoren, irten ginen. Agurea oso dotore janzten zen, lepo-golkoan foularda eta guzti; ongi zaindutako artisten esku luzeak, bibotetxo hertsia, geratzen zitzaion ile bakan urdinarekin burugaineko soilunea maisuki estaltzen zuelarik, gizon fina zela bistan zegoen. Eguraldi ederraz, eguzkitan, egin genuen Donibaneko hondartza inguruko ibilaldia; ez zait sekula arratsalde hartako oroitzapenik joango! Poetak gelditu gabe egin zuen hitz... eta nire harridurarako, osaba Lazaroz hitzegin zidan misterio handiz. Gizon inportantea zen, oso; urrezko bihotza zuen, eta batez ere abertzalea zen handia... Neuk ez nekien hori zer zen, baina laster erantsi zuen... Euskal Herria maite zuen asko!... Eta esan zidan Donibane ez zela Frantzia, lur hau ere Euskal Herria zela, eta "askatasun eguzkia" laster zabalduko zela gure Herri osoan!

Ni neu txundituta nengoen poesia eder honen baitan.

Pentsatu ere egin nuen, hau beste hitzetan esana izan bazen ere, nire aitak Caracasen "geure luraren ederra" aipatzerakoan herriaganako maitasun bera adierazi nahi izan zidala...

Aitaxori lur hau izenez aipatzen inoiz entzun ez banion ere.

Eta lilura honen barruan nengoela eser erazi ninduen Poetak hondartzaren hesi erraldoia osatzen zuen karelean, bere ondoan, eta "Askatasunari kantua" deklamatu zidan!... Ahots eder eta dardartiari aise igarri nion barru-barruko zirrara... eta niri, gauza asko ulertu ez banizkion ere, pirpir berberak pasa zidan bizkarrezurra goitik behera... Poeta (gero jakin nuen amonagandik don Adolfo Larrañaga izena zuela) aise konturatu zen nire hunkipenaz... Begi gris haiek busti zitzaizkion nireen lausoa sumatu zuenean, poz betez, eta neuk, zerbait esatearren, galdera bat bota nion asko pentsatu gabe... ea zergatik ez zituen bertso haiek herriko hizkuntzan jarri... A!, esan zidan, zoritxarrez ez ziotela bere herriko hizkuntza inon irakatsi; gure arima hobeto kateatzearren sartu zigutela zapaltzailearen hitza... eta geu behartuak geundela berreskuratzerara, euskara baita geure gartzelaren giltza!... Euskal Herria hasia zela esnatzen bere hizkuntzaren kantura! Poeta bera zaharregia zela euskara berreskuratzeko, baina neuk, gaztetxo azkarra nintzenez, ikasi egin behar nuela...

Eta itzulian gindoazen Donibaneko kale estu eta txukunetatik barrena hotelerantz, orain isilik biok... gure artean kidesun bat sortu bailitzan... gai baikinena Poeta eta biok elkarren ondoan isilik joateko... eta "Euskalduna" izeneko hotelera heldu ginenean ohartu nintzen bapatean ezagutzen nuela orain hitz honen esannahia..., eta errebeldia berri baten su nimiño bat sumatu nuen bihotzean.

Askotan, "Rebelión" deitzen zioten nire amari bere anaiek.

Orain ezagutzen nuen deitura honen zentzua.

Ezkontzaren fetxa hurbiltzen ari zen. Hala ere ez zuen amonak, lehen besterik esan bazuen ere, bidaiarik aipatzen. Osaba berton zegoenean, jangelako gure mahaian esertzen zen; kanpotarrik bazuen, berriz, eta maiz gertatzen zen hau, beraiekin, eta honelakoetako batzuetan gure mahaira amonaren bila etorri eta kafea beste mahaian hartzera gonbidatzen zuen.

Eta neuk orduan azkar egiten nuen ihes Poeta pianoa jotzen ari zen saloitxora.

Ikasi ere egin nituen abesti aberkoi batzuk euskaraz!

Hiruren arteko bazkari horietako batean, amonak galdezka ekin zion, eta nahiko zorrotz, harritu ninduen honek!, ea ezkontzara gurekin igoko zen. "Ama –esan zion– uste dut hobe dela zuek biok aurretik irtetea, eta neu, ahal badut, igoko naiz kotxez". Egun horretan bertan erabaki zen gure bidaia. Nola amonak eta nik frantsesik egiten ez genuen, amona zerbait ulertzeko gai bazen ere, osabak zera erabaki zuen, Paskual txoferrak eramango gintuela Bordeleraino kotxez, eta han sartuko gu Bretainara zihoan trenean.

Ordurarte amonak gorde zuen itxaropenen bat hil zen bere baitan...; lurrikarak astinduta bezala geratu zen.

Biharamunean irten ginen.

Amonak semeari azken agurra egiterakoan luze geratu zen isilka-misilka gizontzarrari, "Beltza"ri, seme zaharrenari!... hizketan, eta hau eten gabe buruz baiezka... denari ameto. Azkenean amona hankapuntatan jarri eta musu eman zion eta masailetik eskua pasa, maitakiro...

Gero ikusi nuen hau bere seme-alaba guztiekin egiten zuen zerbait zela, eta ez besteekin.

Bidaia hartatik zera geratu zait: mahastien hedadura harrigarriak eta artoa, arto landareak herrenkadan!... Paskualek ez zuen ulertzen nire jakinmina!... Erraza zen bada, horregatio, hura ulertzea... geu, Ameriketako hiri nagusien besterik ez ginen bizi izan, eta gainera, artoa egin zitzaidan deigarrien: batzu oraindik landare berde eta zutiak, ilada luzeetan gerrarako prest bezala, eta besteak, hori-kiskaliak, buruak borrokan galduta eta bizkarretik edo zangoetatik kraskatuak, hautsiak!... gerra galdu balute bezala...

"Geuk bezala!", erantsi nion nahi gabe.

Bidaia osoa hitz bat esan gabe egin zuen arren, unetxo honetan amonak harriturik eta sarkor begiratu zidan!

Paskualen erantzuna: imajinazio asko nekarrela Ameriketatik!

Gero trenez egin genuena (amona hilik bezala nire ondoan) izan zen niretzat luze eta aspergarriena.

Heldu ginenean, osaba Rosario zegoen geltokian gure zai.

Besarkada bero batez hartu ninduen bezain laster sartu zitzaidan bihotzetik, eta ez da geroztik irten. Hau izan da harrez gero nire "osaba". Kerroch-eko etxera eraman gintuen, eta ni atarira heldu nintzen arte ezin izan nuen nire oroimenean etxe hau berreraiki... Hemendik irten nintzenean sei urte besterik ez nituen, eta itsasoz bestaldean ia beste sei urtez jasotako gomutak asko eta oso sarkor eta berriagoak zirenez, urrundik baletoz bezala hasi zitzaizkidan orain hurbiltzen garai hartako inpresioak, batzu biziak!... Oso aldatua zegoen dena, nire gomutatetik oraingo errealitatera, diot... hala iruditu zitzaidan niri. Familiaz, berriz, dena berritu behar izan nuen; eta horretarako, Caracasen ikusitako argazkien oroipenak nituen argigarri... zortzi lehengusu ziren, eta denak handitu eta itxuraz aldatu ere egin ziren; hauen ama, izeba Libe, osaba Lazaroren emaztea; don Anton apaiza, Liberen anaia; osaba Joxe, senargaia, eta gazteena zen nire osaba Gaxen..., denak nire amatxoren anaia kutunak..., Inaxio falta zen bakarrik, eta oraindik heldu ez zen Maritxu, amatxoren ahizpa bakarra... Ameriketatik heldu nintzenean gertatu zitzaidan estuasun beretik pasa behar izan nuen berriz... gehiegi zen argazkietan sakabanatuta zeuden aurpegiak oraingo haragizkoekin lotzea... Eta berriz ere galderak izan ziren nire nekaldia, asko baitziren eta denek batera egiten zizkidaten eta garrasi eta espantu handiz!!...

Oraingoan ez nuen Barcelonara eta gero herrira eta azkenik Bilbora heldu ginenean izan nuen nire anaia Tasio lotsagabearen laguntasunik...

Amonak ez zidan kinka honetan eskurik eman.

Nire lehengusuak, batez ere nagusienak, izan ziren nigan interes gehien jarri zutenak; baina urrundik eta maliziaz bezala, goitik behera!!... sentitu nituen begirada haiek nire gainean, pisu bat bezala, eta neu hizketan hasi nintzen bezain laster eman zioten barreari! Nire kreolearen doinuak txokatu zituen...

Ongietorri luze eta zaratatsuen ondoren igo gintuzten lehen solairuan zegoen gela eder batera, komuna eta dutxa barruan zituela; ohe zabal bakarra zuen; amonarekin lo egin behar nuen, beraz... eta zirraratxo bat sentitu nuen, ezin uka...

Geu Kerroch-era heldu ginenetik ezteiak ospatu ziren artekoa azkar joan zen.

Zera zen: batetik, prestaketen mugimendua; bestetik, geu irten aurretik abiatu zen izeba Maritxu heldu zen... Galdetu egin nion, ea nondik nora egin zuen bidaiaria hain berandu etortzeko, eta misterio handiz erantzun zidan Paristik zetorrela!... Amonari haserre moduko keinu bat irten zitzaion, baina ez zuen ezer esan.

Etorri ginenetik, neuk harreman gehien izan nuen pertsona, amona Mertzexedes izan zen; ez lehengusuak, ez izeba-osabak... amona baizik. Sumatu nituen gurutzeak bere bizitzan. Senarra urtetan elbarri egon eta gero etxean hil zitzaion; Lazaro, zaharrena, izan zen geroztik "Fontuso" baserrietxeko sostengu gerra heldu zen arte. Baina seme-alabek, onenak izanda ere, sortzen dute buruhauste franko... Eta ageriko hoztasun haren arrazoiak ezagutu nahi nituen, laguntzarren... Halaxe jarri nintzen amonaren erreakzioen zai. Isurpen gutxikoa zenez, lehorra berez!, ez zuen gainontzekoentzat ikuskari gertatzerik maite!! Hala, amonaren baitan denak zirudien neurtua, kontrolatua. Ez nion hemen ere, bera buru zen hainbesteko familia barruan ere, naturaltasunik sumatzen. Niganako atentzio apur bat, babes bat, ez zidan agerian ematen. Sentitzen nuen, bai, ni behatzen ninduela, neuk bera bezala; baina bere betaurreko beira lodien bestaldetik ez nion begi urdin haien begiraden misterioari antzematen. Halere, ahalegindu nintzen bere keinu eta mugimendu batzu interpretatzen, eta noizbehinka amonak esaten zituen hitz bakan eta zorrotzetatik, bere irrifarre bihurrietatik, bere animua eta adorea neurtzen... eta lehen osaba Lazarorenganako ardurak sentitu banizkion, batez ere Donibanetik irten ginenetik, hemen izeba Maritxuk kezkatu zuen atzerapen nabarmen harekin, eta Paristik!...

Halaxe sentitu nituen neuk orduan gauzak.

Eta niretzat bakarrik!... Nire gurasoei Ameriketara kezka hauek pasa gabe.

Ezteieguna eguzkitsua izan zen.

Elizkizuna, xumea. Osaba Joxe, mutil ederra zen, osaba guztien artean garaiena, zinemako aktorea zirudien. Lazaro zabalagoa zen, behar bada, baina ez zen garaiena, batzuk hala uste bazuten ere. Neuk ikusi nituen behin aurrez aurre; ez hemen, ez baitzen Lazaro azkenean agertu, bere haur eder haiek ikusteko atxakiaz bederen!... Bere emazteari, Liberi, ez nion kexarik entzun... Emaztegaia Joxeren besaburura iristeko takoi handiko eta zola bikoiztuak zituzten zapatek jasotzen zuten behetik, eta gero goiko motots tontorrean loreekin egindako apaingarri batez ere goratu zuten. Oso atsegina iruditu zitzaidan eta polita. Britainako jatetxe tipiko batean eratu zen bazkaria, eta hor bildu ziren emaztegaia sendikoak, asko zahartxoak, denak bere bizilekuari zegozkion kofia bereziekin; tximeleta zuriak ziruditen burugorri eta bururdin haien gainean pausatuak.

Gauza bitxi hau geratu zitzaidan batez ere buruan, eta amona Mertzexedesek etxeratu ginenean esan zuen beste zerbait: "Ikusiko dugu zer atarramendu ateratzen dugun bretoin honengandik".

Lehengusuak hasiak ziren iraileko kurtsoan.

Oraindik amonak ez zuen bidaiarik aipatu; hotz egiten hasia zen, eta egunak laburtzen. Neuk oso kontuan hartzen nuen urtaroen fenomenoak. Nire aitak hainbeste

aipatzen zituen Ameriketako biak lehortea eta euritea ziren, biak gehienetan istilutsuak, eta gure lurreko lauak ziren ezberdinak eta bata bestearen atzetik gurpil aldakor eder bat osatzen zutenak... "Udazkenaren xarma!"... Ba neu ikusten ari nintzena ilun eta tristea zen: zeruak behegi ikusten nituen; giroa, haizetsua zen oso, zuhaitzak biluzten hasiak ziren, eta orbela dena hori-errearen kolorea hartzen hasia zen...

Aitak urre-kolorea esango zuen!

Ilunabar batean, afal aurretik, gelan nengoen; amonak esan zidan ez ginela itzuliko...

Pentsatu zuen lehengusuak joaten ziren Kolejio bereko moja-barnetegian ni jartzea; ongi etorriko zitzaidala frantsesa ikastea. Bapatean elbarritu banintz bezala geratu nintzen!... Amonari esan nion: "Eta zer esango du aitaxok?, eta anaia?!...; aitak beti elkarrekin egoteko esan zigun, elkarri lagundu behar geniola gurasoak herrira itzuli arte"!... Ez zen amona Mertxedes halere gupitu, aurrez aurre begiratu zidan eta esan: "Pozik egongo zara Kolejioan. Idatzi dugu dagoeneko Caracasera, atzo irten zen gutuna".

Ez nintzen afarian ezer jateko gauza izan.

Eta ohe handian, amonaren ondoan, sartu nintzen; honek argia itzali zuenean ez behar guztiak etorri zitzaizkidan burura; aita haserre, anaia abandonatuta, geure familiak kontu handiarekin egindako proiektuak porrot!... Barruan irten nahian zebilen negar zotina lehertu aurretik ausartu nintzen amonari esatera: "Ezin nau loak hartu!, negargurak nago!"... Eta berez hasi ziren malko handiak irteten... nire amonak eztiki eta aldi berean fermuki esan zidan: "Aingeru guardakoari eskatuko diogu, eta gero hobeki sentituko zara, nirekin esan:

"Aingeru guardakoa,
lagun gozoa,
ez nazazu desanparatu
ez gauez, ez egunez ere.
Bakarrik uzten banauzu,
zer izango da nitaz.
Aingeru guardakoa,
kupitu zaite nitaz!"

Ez zidan eskaerak laguntza handirik eman; baina gau hartan buruz ikasi nuen betirako.

Zer gertatuko zitzaidan pentsatzeko denborarik ez nuen izan. Dena iragan zen oso azkar; hurrengo astean barnetegian nengoen, eta amona Mertxedesek emandako ziurtasun guztiekin: ni pozik egongo nintzela berton, eta oso maiz etorriko zela ni ikustera.

Baina hurrengo Eguberriak arte, bi hilabete t'erdii!, irteterik izango ez nuela jakite hutsak larritzen ninduen!

Caracasetik bidaltzen zizkidaten eskutitzak erregulartasun handiz heltzen zitzaizkidan. Nire amak, amonaren izenean bidaltzen zituen, niretzat pasarte luzeak zituela. Nire aitak, berriz, zuzenean nire izenean, eta ez nizkion inori erakusten. Ez nekien, noski, aitaxoren erantzuna zein izango zen barnetegiaren berri izaten zuenean, amonaren planak onartuko zituen ala ez. Baina hurrena heldu zen bere eskutitzean

frantsesa ikasteko animoak ematen zizkidan, hizkuntzek garrantzi handia dutela eta denboraldi bat Frantzia ikasteak, kultura handiko herria!, on handia egingo zidala...

Barnetegirako bidean dagoeneko negarrari ezin eutsiz nengoen taxian, amonaren ondoan, maleta txikitxo bat magalean... Batetik, gutxi iruditzen zitzaidan neraman arropa, eta honek kezkatzen ninduen; bestetik, nire ardura... egiten ari ginen bidean zegoen jarria, kotxea nondik nora zihoan, eta distantzia, zein luzea zen, amonaren babes segurtasunetik zein urrun geratuko nintzen... Eta l-u-z-e... iruditu zitzaidan!, oso isolatua lekua! Ama Superiorak hartu gintuen, eta berau ardi bat bainintzen, amonarekin apalki hizketan ari zen bitartean... sentitzen nuen emeki-emeki barrurantz bultzatzen ari zitzaidala... artaldera!, hesi barrura, eta amonak denari baietz!... eta neu paretan ireki zen ate baten bestaldean nengoen amonari azken agurra egiteko denborarik gabe... bahitua sentitu nintzen!!... Zuzendariak, berari jarraitzeko esan zidan. Toki estrainioa iruditu zitzaidan, korridore luzeak, ate asko... Heldu ginen noizbait gela batera eta han eman zidaten nire janzkera berri guztia. Itsas-urdira iluna zen uniformeak, brusa zuri batekin, zapata beltzak, galtzerdi urdinak, eta, itsusia iruditu zitzaidana... gainerako txabusina, bata, beltza!... patrikako eta iduneko ertzetan jositako txingola gorriaz apaindua! Janzten ari nintzela... eta Zuzendaria nire aurrean niri zorrotz begira... pentsatu nuen, izututa, ni maskaritzen ari nintzela; nire amona izan zen neurriak erabaki zituena, eta denen gainean jartzen ari zidaten arropa ilun haren barruan igeri, arnasa hartu ezinik! Ez zegoen lagungarri izan zitekeen ispilurik... Sonbreroa ere handiegia zen... Entzun nion amonari esaten, sonbreroa ere neurrikoa hartu behar dela, "buruak ere hazten baitira". Beste korridore luze batetik irten ginen eta bideko bidriera baten islada aprobetxatu nuen zeharretara begiratzeko... ea nola geratzen zitzaidan guzti hura... Eta tximistargi labur batez bezala pentsatu nuen nire amak egiten zizkidan kolore alaietako soinekoez, eta zenbat gustatzen zitzaion amatxori bere eskuetatik pasatakoa neuk ispilu aurrean probatzen ikustea, nire poxaz eta sorpresaz gozatzea!... Orduan bertan, ezaguna ez zen norbaiten figura agertu zitzaidan bidrieran, oso l-u-z-e eta za-bal jantzia zegoena, txorimalo bat!

Baina mozerro haren jantziak denak nire izenaz markatuak zeuden!...

Neuk uste dut osaba Rosariok, amonaren aginduz,

("hur horiek egun batetik bestera hazten dira, erosoak egin behar zaizkie hainbeste kostatzen diren jantziak"...) gauza guzti honetan zerikusirik izan zuela.

Egia esan, jantzi hauek lau urteak iraun zidaten.

Amonaren beste inbertsio on bat...

Nolanahi, orain ez nintzen neu zuzendariaren atzetik ikasgela batera sartu zena!... Estudio ordua izan behar zuen, dena isilik baitzegoen... Nire bihotzak nonbaitetik irten behar zuela iruditu zitzaidan, ez nuela beretzat nire gorputzean behar zuen hainbat toki. Zuzendariak, estudioko gelan zaingoan zegoen mojarri aurkeztu ninduen, han zeuden nesken milaka begi ikusbera niri begira, eta hertsiki, gupidarik gabe aztertzen...

Ikasmahai bat markatu zidaten esku xuri batez eta han eseri nintzen.

Ez nintzen nire mahaikideari behatzera ere ausartu... nire lagun mina izatera heldu zen Marie Claire zen, baina ez nuen oso berandu arte nor zen jakin.

Hau dena segundu batzuetako kontua izan zen.

Ez nintzen nire begiak jasotzera ausartzen, eta, ez dakit zergatik itxaropena banuen nire bi lehengusinetako bat egongo zela gela hartan. Hau izan zitekeen nire salbazioa! Nire adinekoekin jarri ninduten, gero jakin nuenez, eta neu Lazaroren alabak baino bi urte nagusiago nintzen. Ordubete geroago, atsedena eman zutenean, klase guztiaz inguratuta aurkitu nintzen; hasi zen nire galbarioa!, alderdi guztietatik egindako galderek eta keinuek ez zuten nigandik mutu geratzea besterik lortu. Eta handik aurrera ikasi behar izan nuen (eta amona gogora etorri zitzaidan!) kontuz mugitzen, mundua osatzen zuen jendetza hartan ez nendin gal, eta jangelarako, jantzigelarako eta logelarako bideak ondo ikas nitzan. Kolejioa izugarri handia baitzen.

Zeharo ikaratuta nengoen!

Gauetz logelara heldu ginenean zirrara berri bat... oheak eta oheak lau lerro luzetan, denak berdinak, bakoitza bere gaumahaiarekin, eta mahaitxoaren gainean azpila eta txarroa goizeko eta arratseko garbiketetarako. Komunak logelaren bukaeran zeuden. Ez nuen denbora gehiegirik pentsatzeko: gainerantzekoek egiten zutena egiten ahalegindu nintzen osorik, eta beti azkena...

Mahaitxoaren kaxoian jarri nuen etxetik jasoberria nuen gurasoen eta bi ahizpa txikien argazkia. Honela segurtatu nuen kaxoitxo ireki hutsarekin gutxienez egunean bi aldiz familia ikusteko sistema.

Logelako denbora hau, besteetakoa bezala, ongi neurtua zegoen: garbiketa egin eta oheratzekoa. Argia itzali zen, eta moja pasa zen banan bana ur bedeinkatuarekin gabonak ematen. Gero, iruditu zitzaidan ordubetez pasabideetatik gelditu gabe zebilela... azkenean logelaren angelu batean zegoen zeldara bildu zela sumatu nuen arte. Gau guztia loak hartu gabe egon nintzen, negarguraz... baina, nola egin gainerantzeko guztiak esnatu gabe?... Hala, etxerako ames-bidaia hartu nuen: oroitzapen guztiak onak ziren, eta ordurarte ihes egin zizkidatenak ere etortzen zitzaizkidan burura, baita batere garrantzirik ez zuten gauza nimiñoak ere; pentsatzen nuen idatzi behar nuen guztiaz, baita neuk desio nuen guztiaz, baita neuk desio nuen erantzunaz ere.

Gauetz jaiki erazi gintuzten. Begiratu nion etorri aurretik erosi zidaten erlojutxoari: 7:30ak, eta gau beltza! Noiztik irten zen eguzkia Caracasen!..., eta goi-goiko zeru urdinarekin!...

Nire lehen otordurako, gosarirako, abiatu ginen lerro isilean, eta jangelara sartzetakoan itxi zitzaidan eztarria... Asko ginen, ia 500, gero jakin nuenez, baina ez zen txintik entzuten. Isiltasun osoa! Mahaiak zortzirentzakoak ziren, bakoitzak bere kaxoia, mahaizapia eta gaileta pakete batzu. Ni mutu gelditu nintzen moja pasa eta platera erdian patata bat jarri zidanean!... (gero, hiletara, jakin nuen patata honi "en robe de chambre" deitzen ziotela, egosia eta bere azalarekin!, mundu-gerra bizian, noski!)... Nire lehen buruhaustea zera izan zen hemen ere, gainontzekoek zer egiten zuten ikusi: maina handiarekin, labaina eta sardeaz baliaturik, biluzi zuten patata koskorra, eta gero lau zati egin; gurina jarri zioten gainetik...baina neure patata han geratu zen osoa plateraren erdi-erdian erantzi gabe, lehenengo egunean eta gero... ogia etorri zen arte... diziplinatik zerak libratu ninduen: nire aurrean suertatu zen Michelle lodi batek, honek jaten zuen

neuk uzten nuen guztia!... eta bitartean nahikoa nuen Caracasen hartzen nuen txokolatea, laranja zumo eta guzti, Rosa Chacónek preparatzen zigun talo lodi baten antzeko "arepa" gozoa eta aitaxok inposatzen zigun baso bete esneaz amestea...

Amonak lehen bixita hurrengo igandean egin zidan.

Hiru egun bakarrik nituen paseak barnetegian, baina o-s-o l-u-z-e egin zitzaidan. Esan nion, ezin nuela inorekin hitzegin. Ez nituela lehengusinak atsedendietan ere ikusten! Eta aizkorakadak bezala bi hauek bota nizkionean... negarrari eman nion, eta hala jarraitu nuen, malkoen iturria itxi ezinik ibilaldi guztian... Amonak ez zuen neuk pentsa bezala erantzun. Neuk bere gupida apur bat behar bainuen kontsolagarri... eta uste izan nuen besarkada estu bat emango zidala... eta nire ilea laztanduko...

Berriz tronpatu egin nintzen!...

Atera zuen zorrotik sudurzapi bat, beti bezala oso txukun lisatua, eta esan zidan: "Ez ezazu gehiago negarrik egin, har ezazu eta xuka itzazu malkoak... gutxien uste duzunean frantsesez hitzegiten jaikiko zara ohetik!" Berezibiko astakeria zela iruditu zitzaidan... Eta agurra ere martxa berean egina izan zen, ez zidan samurtzeko denborarik eman...

Ari nintzen amona pixka bat ezagutzen!

Ez zitzaizkion kontrolatugaitzak ziren egoerak gustatzen, eta itzuri egiten zien.

Ikastaldiak, berriz, zapuzgarriak ziren.

Kurtsoari zegozkion materialak eta liburuak eskuratu eta hamabost egun igaro arte ez zidaten eskuz koaderno eta lapitza seinaleztatuz arbelean idatzia zegoena kopiatu behar nuela adierazi. Ilusio handiz hasi nintzen, ongi egin nahi nituen gauzak... baina lehen lerroa amaitu aurretik hasia zen moja arbelekoa borratzen!, eta zera erabaki zuen: nire mahaikideak egindako lana atsedendian kopiatzea!... Bestalde, ez nuen eskolakideen artean niganako interes pertsonalik ikusten. Izugarria iruditu zitzaidan isiltasun eta bakardade aldi luze batean sartu besterik ez nuela egin konturatzea; ez nekien norbaiten irrifarrea sinpatiaz ala isekaz hartu... ikaragarria izan zen... Hasieran, atsedendietan nire ondoan geratzen ziren batzu, jakinguraz, nik uste, eta aldi honetaz gaur pentsatzen dudanean uste dut izan behar nuela neuk orduan anormala zen espresioaren bat, zeren eta unetxo bat gero bakarrik aurkitzen bainintzen berriz... Bestalde, ez nintzen beraien jokoetan parte hartzeko gauza, ez baininduten ezagutzen... Gogoratzen naiz behin, sartu eta pare bat hilabetera, Eguberriak baino lehenxeago zen, nire lehengusinetako bat hurbildu zitzaidan, eta erantzun moduan esan zidan: "Zerbait egin behar duzu, zerbait esan, zure eskolakideek gormutua zarela uste dute! "

Eta zer esango nuen, ez baitzitzaidan ezer irteten!

Marie Claire hor zegoen eta zebilen, seguraski, nire inguruan, baina ez nuen oraindik sentitzen!

Posta banatzeko ordua noiz helduko, amona noiz etorriko, bi gertakari hauek ziren nire bizitzeko gogoari eusteko nituenak. Banekien noiz heldu zen niretzako karta: hegazkinezko azalak niretzat izaten baitziren. Irekita ematen zizkidaten, barnetegiko arautegiak agintzen zuen bezala; baina nire kasuan ez nuen ulertzen zergatik, han ez

baitzuen inork gazteleraz egiten. Mojak eskuratzen zidan eskutitza, eta berehala irakurri beharrean, patrikeran gordetzen nuen, egun osoan laztantzen nuen, eta ez nuen arratsaldeko estudioan isiltasun osoa egiten zen arte irakurtzen. Eta orduan, irakurtzen ari nintzen bitartean, aita bera irakurtzen ari zela entzuten nuen, bere ahotsa!... nire ondoan balego bezala. Aitatxoren eskutitzek ahalmen harrigarri hori zuten. Gu bien arteko distantzia laburtzen zuten. Galderaz beteak etortzen ziren, eta neuk egindako galdera guztiei ematen zien erantzuna. Luzeak ziren eta xehetasunez beteak.

Eta honetaz gainera, denek zekarten laster itzuliko zirelako promesa; nire aita bera baitzegoen amets horretan sartua, eta eskutitzetan isurtzen zuen bere nahia, eta nahi hori nola beteko zen asmoak, proiektuak.

Lehenengo urtean, oporraldien zai egoten nintzen egunak kontatzen, eta egun luzeak, bukaezinak, egiten zitzaizkidan. Bigarreanean, uste dut Kolejioan geratu ere egingo nintzela, ahal izan banu... Ez zitzaizkidan amonarekin egiten nituen igandetako irtenaldiak gustatzen. Esaten zidan hiru kilometro besterik ez zirela, baina oso luzeak ziren nonbait. Gorroto nion euritan eta hotzetan ibiltzeari; nire amonak ez zuen eguraldia kontutan hartzen, ordea; bera astrakanezko lepo ingurua, idunekoa, zuen kapa beltzean arropatuta, gasa beltzezko mantanila buruan, eta beti zutik!

Oso zen gogorra.

Eta heldu ziren Eguberriak, eta berauekin, amestutako oparrak!

Etxera, amonarengana eta familia osora itzultzea esan nahi zuten!

Kerroch-eko etxea ederra iruditu zitzaidan orain, berriz. Dena aurkitu nuen zabalagoa, atseginagoa. Eta lorategia neguan joan den udazkenean baino tristeago aurkitu banuen ere, interesgarria iruditu zitzaidan. Eta oporraldi honetan hasi nintzen osaba Rosario ezagutzen.

Bretainiar batekin ezkondu zen eta Quimperlé-ko herrian bizi ziren Miren alabatxoarekin eta amaginarrebarekin. Baina egunero etortzen zen Kerroch-en zuen lanera: osaba Rosariok zaintzen zituen bere anaia Lazarok bertan zituen ia 4.000 madariondo eta sagarrondoak: etxerako behar ziren barazkiez ere bera arduratzen zen. Etortzen zitzaidan noizbehinka amonarekin barnetegira bisitan, baina Gabonetako oporraldi honetan hasi nintzen egitaz ezagutzen, zein gizon apala zen, eta zein trebea!, niretzat kalitate guztiak berekin zituen gizona.

Goiz iristen zen txirrindan, eta ez zen itzultzen etxera iluntzen zuen arte.

Nire lehengusuak oporretan berandu jaikitzen ziren. Amona, beti bezala, goiz, eta leihora irten eta bere semea lanean ikusten zuenean esaten zidan, ea osabari konpainia egitera jaitsiko nintzen: belar txarrak kentzen ikastera... "Osabari laguntzen ari zaren bitartean zerbait ikasiko duzu beti, horrek asko daki eta"... Hala zen. Eta eletaria ere ona zenez, pozik egoten nintzen berarekin, bere kontakizunak entzuten. Baina hotz handia pasatzen nuen batzutan, eta kexatzen nintzenean, arineketan itzuli batzu egiteko agintzen zidan. Osaba bera tenperaturen gainetik zegoela zirudien. Hotz handi-handia egiten zuenean eskuak igurtzitzen zituen, besaburuak jasotzen burua ia estali arte, burua kuzkurtzen zitzaiola zirudien!..., puska bat mugitzen zen, eta lanean segitzen zuen.

Naturaren maitalea zen, egiten zuen guztiarekin gozaten zuen, gizon zoriontsu ikusten zen.

Harritu nintzen, baina Eguberri-Gabon haietan osaba Lazaro ez zen etxera agertu.

Haurrak zai zeuden bada!!

Esan zuten oso lanpetua zegoela, baina laster etortzekotan zela; hau zioten bere seme-alabatxoek, amak berak esandako zerbait, noski. Amonak ez zuen honetaz ere ezer esaten, baina egun hauetan inoiz baino arduratsuago sentitu nuen. Barnetegira itzultzeko eguna oso urrun nekusan baina hain azkar igaro ziren egun haiek, joatekoa iritsi zenean negarrari eman nion eta zotin artean ezin nuen hitz bat esan. Isiltasunera, diziplinara eta anonimotara itzultzea baitzen... Bakardade handira. Amonari esan ere egin nion: "Noiz itzuliko gara!" Eta amona Mertzedes bere lelo zuti-gogor-hotzarekin: "Ikasturtea amaitu behar da; aurrera joan behar duzu, ikasi ongi frantsesa"... eta, hemen ukitu ninduen zorrotzen: "zure gurasoak oso urrun daude, zeure heziketa dela eta sakrifizio asko ari dira egiten, honetaz konturatu behar duzu"...

Argudio hauekin, isilik eta begiak lehor, besterik gabe, itzuli nintzen barnetegira.

Oporraldi honen itzulian hasi nintzen barnetegiko gauza askoz ohartzen eta horiek estimatzen: oraindik maldatsu egiten zitzaidan; diziplina gogorra zen, eta ez nuen lagun bat ere egin oraindik... Marie Claire zein gertu neukan deskubritu nuen arte!... Asteazken arratsaldeetan izaten genituen paseoak lehen zigor bat iruditzen zitzaizkidan, eta orain, berriz, atsegingarri. Arratsaldeetako elizkizuna gustatzen zitzaidan. Kaperak, L forma zuen; hegal luzean, ikasleok esertzen ginen, aldarearen aurrez-aurre; hegal laburrean egoten ziren mojak, eta hor abestaldea ere, noski, eta honek gregorianoa abesten zuenean, geuk mojak ikusten ez eta zeruko musika zela imajinatzen nuen.

Ikasketetan ez nituen aurrerapen handiak egiten, baina ordurako hobeto kopiatzen hasia nintzen. Geure ikastaldeko mojak berdin jarraitzen zuen bere irrifarrearekin, baina iruditzen zitzaidan lehen ulertzen ez nituen zeinuak, irrifarreak esate baterako, hasia nintzela interpretatzen. Interes handiarekin aztertzen nituen begiradak, eta begiradetatik sumatu nuen zein izan zitekeen nire laguna, ondoan nuen Marie Claire bera. Halere, denbora oso mantso zihoan, oso mantso. Oheratzerakoan begiratzen nuen familiaren argazkia, eta argiak itzaltzen zituztenean ahalegintzen nintzen argazkian ageri ziren aurpegiak nire buruan berrikusten, eta beti etxerako bidean nindoala hartzen ninduen loak. Askotan sortzen zitzaidan galdera: zergatik bidali ote gintuzten nire anaia eta biok etxetik? Ez nion inoiz egitaz baliozko zen erantzunik aurkitzen... Bost edo sei hilabete pasako ziren ni hitz batzu segidan esaten hasi nintzenerako. Nire aitari hau idatzi nionean, zoriondu ninduen pozik, eskutitz bat jaso nuen hori esanez, eta hemendik aurrera azkar egingo nituela aurrerapenak, eta haiek heltzen zirenerako frantziar batek bezala hitzegingo nuela! Berehala idatzi nien: "baina noiz zatote?!" Eta orduan aitaxoren erantzuna luze-zabalagoa izan nuen. Arazo batzu konpondu behar zituzten, baina itzuliaren proiektua egina zeukaten. Aitaren eskutitzak baikorrak ziren, pozik sentitzen nuen, egindako planen arabera ari zen dena konpontzen.

Oso hotza izan zen negu hura.

Jendea ez zen kekatzen, baina niri ospelak irten zitzaizkidan oinetan, belarrietan eta eskuetan. Aldaketak ez nituen barnetegian bertan sentitzen, baina patiora irtetera behartzen gintuztenean hotzikarak sentitzen nituen. Ez, ez zitzaidan inolatan ere negua gustatzen!, ezta zeru behe eta grisa ere; asko errespetatzen nuen haize zorrotz-kementsua, eta etsipenez oroitzen nintzen orain Caracaseko eguzkiaz.

Hau dena aitari kontatzen nionean, beti erantzun bera jasotzen nuen: zer ederrago lau urtaroak baino!; tropikoko euri-eguzkia monotonoa iruditzen zitzaion. Aitari hemengo nire kekak bidaltzea alferreko lana zela erabaki nuen, hark beti aurkitzen baitzien alderdi baikor-xarmanta.

Gogoratzen naiz, Aste Santuko oporraldi batean irten ginen hiruretako elizkizunera. Amona Mertxedesekin puntualtasuna zen arau nagusia, eta ez zuen inoiz huts egiten, baina kasu honetan atzerapen txiki batekin irten ginen, eta elizara heldu aurretik zegoen maldaren aurrean geundela esan zuen makina batek bezala: "Uste dut gaur ez garela iritsiko"... Segundu bat gero entzun genuen elizako erlojuak jo zituen hiru tantoak. Eta amonak esan zidan berehala: "Belaunika zaitetz, eta mun egin lurrari hiru aldiz"... Ez nekien zer egin. Maldatik behera ibaia bezala zetorren aspaldi ari zen euri zaparrada lodia... Pentsatu nuen hona heldu eta laster erregalatu zidaten nire gaineko beroki berde politaz, baina nire amona geldik zegoen, planto!, nire makurduraren zai... Neuk begiratu nuen inguruetara: jendea zetorren elizarantz, gu bezala, eta hauei... sinetsi ezina irudituko zitzaien!... ni belauniko jarri nintzen, musu eman nien azkar urari eta lurrari, eta altxa nintzenean nire beroki polita ura zeriola eta zangoak bustita, blai... Pentsatu nuen, berandu egin zitzaigunez, itzuliko ginela, baina ez!... amonaren atzetik jarraitu nuen elizaraino, eta sartu ginen, entzun genuen elizkizun luzea azken agurra arte eta itzuli ginen berriz trumoipean eta gure euria lagun...

Trimestre erdian geunden.

Gau batez bero handia sentitu nuen eta gorputza izerditan. Izutu nintzen. Gogo txarra eta izerdia, gaixo nengoela pentsatu nuen, noski, eta erizaindegira eramango nindutela pentsatzeak espantu bizian jarri ninduen! Buruz esaten hasi nintzen amonaren otoitza! Dena alferrik!... Nire aldameneko ohean lo zegoenari dei egin nion eta hau joan zen mojari dei egitera. Kopeta ukitu zidan bezain laster atera ninduen ohetik eta erizaindegira eraman; pastila bat eman zidan, gero gelan eserita geratu zen nire ohe ondoan. Egin nituen ahaleginak begiak irekitzeko; irekiak egon behar zuten ordurako!..., baina dena zirriborratuta ikusten nuen! Ene! Dardarka jarri nintzen. Goiza heldu zenerako etorri zen sendagilea; berehala sumatu nuen ez zela gauza onik gertatzen. Hitzegin zuten bien artean, gurpilak dituen aulki horietako batean eseri eta korridoretatik eraman ninduten... gela txiki eta txuri batera heldu ginen arte.

Denbora asko iragan zen neu hobeto sentitzen hasia nintzela konturatu nintzen arte.

Gorputz guztia zerbaitek hartua nuen. Mojak ni ikustera maiz agertzen ziren, baina ez nuen inor ezagutzen. Ez nituen sumatzen ohe ondoan zeuden arte, ezta zarata

txikienik ere, atea ireki eta istearena ere. Hegadun aingeruen agerkundeak bailiran! Komentuko klausuran nengoen, gero esan zidatenez. Ez nekien barnetegitik gertu ala urrun nengoen, baina ez nituen atsedendietako deiak eta garrasiak entzuten. Esan zidaten etxera bidali zutela mezua. Hor etorri zen amona, eta pentsatu nuen, noski, nire bila zetorrela. Eskarlatina pasatzen ari nintzela esan zidan... Aitatxo etorri zitzaidan burura!... hainbeste zaindu gintuen, ez genituen haurren gaitz arruntenak ere pasa! Izurri batez entzuten zuen bezain laster jartzen gintuen lauak lerroan eta eztarrian tokeak egin eta hala behar zela sumatzen bazuen etxean itxita geratzen ginen. Eskolarik gabe, noski! Honetan berezia zen gure aita... Amonak esan zidan ezin ninduela etxera eramanez, haur txikiak bazeudela, osaba Lazaro eta Liberen txikienak, eta gaitza kutsakorra zela! Egun luzeak izan ziren haiek, lu-ze-ak oso.

Baina han ezagutu nuen hurrengo urtetan nire gainbegiratzailer izango zen moja, oso emakume bizkor eta sentibera, begirada lasai-narea, higidura pausatua, eta eskuak, txiki eta nerbiotsuak; maiz bisitatzen ninduen, eta behin oinarrizko hiztegi bat ekarri zidan, argibiderako irudiak zituen, eta entretenigarri izan zen niretzat hitzak ikasten nituen bitartean. Erizaindegian nengoela irakurri nuen testu gutxi eta irudi asko zituen Van Gogh-en biografia labur bat ere.

Ia hiru aste egon nintzen ikastaroetara itzuli gabe.

Erdi-pozik egoten hasia nintzen, eta igande bateko amonaren bisita amaitu eta ni agurtzerakoan, garrantzirik ez balu bezala... zera esan zidan... "behe aldera" zihoala, Donibanera, osaba Lazaro ikustera; beraz, ez zuela aste batzuz neu ikustera etortzerik izango, baina amonaren ordean osaba Rosario etorriko zela. Amonak ez zuen azalpenik inoiz ematen, baina konturatu nintzen zerbaitek kezkatzen zuela. Bere hitzegiteko doinuak, ahotsak, esaten zidan hori. "Probetxu ona atera zure denborari", izan zen bere azken gomendia.

Agur luze bat izan zitekeen, izutu nintzen; baina, bestalde, pentsatu nuen ez zela herrira joango ni hemen utzita.

Baina hala ere kezka berri bat sartu zidan buruan!

Heldu ziren udako oporrak eta ikastaldi-bukaerako zeremonia. Gertakari handia zen. Guraso guztiak etortzen ziren, antzerkiren bat aurkezten zen eta kontzertu bat ere bai; hau dena Areto Nagusian, gala handiz. Eta, azkenik, sariak zabaltzen ziren, aipamenarekin edo gabe, diplomarekin, xingolarekin, dominarekin. Ekitaldi honetara etortzen zen hamar urtetik behin Superiora Nagusia, urte hartan hain xuxen, eta, beraz, zeremoniak garrantzi berezia hartuko zuen. Amona etorri zen. Berarengana bildu nintzenean esan zidan hitzegin zuela ikasturteko arduradunarekin, neure lehen urtea eskas eskolatua izan zenez, ez zizkidatela Notak emango, baizik eta Ohar batzu, "Aurrerapenak", baina amonak batzutan zuen begirada bihurriarekin esan zidan: "Zeu ere tribunara igotzeko gai izango zara laster!... Ea datorren urtean!"...

Baina, nire amonaren beste gauza asko bezala, hau ere ezinezkoa iruditu zitzaidan.

Nire bigarren kurtsoan ezagutu nuen Jean François.

Kolejioan zeuden auletako batzuetatik sagarrondoan han hemen zipriztinduta zegoen soro bat ikusten zen. Kurtso hau arte ez zitzaidan Kolejioaren alde horretara ematen

zuen aularik egokitu, baina entzun nuen barnetegiko pertsonaia honetaz, Jean François-
ez, hitzegiten. Neuk lehen aldiz ikusi nuenean zaldi handi baten gainean zebilen, eta
esaten zutenaren orde zera iruditu zitzaidan niri, ez zela ez lirain ezta harroa ere, baizik
eta, bestalde, zaldiarekiko oso txikia. Gertatzen zena da ikaslegoaren zati batekin hazi,
haunditu, zela. Txikitan haur lotsagabetxo bat izan zen, bihurria oso, eta mojarik ageri
ez zenean, eta ikasleen eskabideak tarteko!... ba pitoa erakusten zuela!... Hau izaten zen
barruti lehor hartako festa, eta behin eta berriz mutikoak hori egiten zuen, eta besteek,
irri!... Mutikoa adin batera iritsi zen arte... Mojek moztu zuten noizbait... Hala ere Jean
François-ek 10-15 urteko neskatxan Printze Urdina izaten jarraitzen zuen, eta
konformatzen ziren oraindik zuzpirika, bere bisera belarrietaraino sartua zuela, guri
begiratu gabe orain, Kolejioa eta soroa bereizten zituen murraren bestaldetik zaldi
gainean pasiatzen zenean.

Garai beretsukoa da Marie Clairekin lagun bezala harremanetan hasi nintzen une
gogoangarria.

Nire aspaldiko mahaikidea egin zen apurka nire lagunik onena. Izen abizenez,
Marie Claire Cloarec zen; ahizpa bikia zuen kurtso berean; hain ondo konpontzen hasi
ginen, honek esaten zuen biok, hura eta ni, ginela egitazko bikiak. Kurtsoa amaitu eta
uda hor zetorrela, gurasoek egin zieten bisita batean, bisitetako salara deitu ninduten,
eta Ama Superioraren aurrean, Mme. Cloarec-ek esan zidan gustatuko zitzaizela, nire
amonaren baimena bitarteko, ni astebete bere familiarekin Concarneau-ra joatea.

Concarneau arrantzale herrixka bat zen, han inguruan!

Berebiziko ilusioa egin zidan proiektu honek, eta amona etorri artekoa luze egin
zitzaidan. Marie Clairek egiten zituen planak: bere aitarekin joango ginen hiruzpalau
egunerako itsasora, untzizabea baitzen, eta Bretaniako kosta guztia bisitatzeko aukera
izango genuen, portuetan jaitsi eta herritxoak ezagutuaz!... Untzia oso zen ederra,
erosotasun guztiak zituen!

Amona Mertzexedi, hurrengo igandean etorri zenean, esan nion ea joaterik izango
nuen. Erantzuna, xuxena eta laburra izan zen, eta dagoeneko gertu, prest, baleuka
bezalako horietakoa... demonioa!: "Ezin dugu gonbidapen hau onartu, ez baikaude gure
etxean, eta gonbidapen horiek beste batekin erantzuteko izaten dira".

Ikusi zuen nire nahigabea, ez bainion ezer esan.

Ez bainintzen haurra, laster hamasei urte izango nituen eta...

Kontsolatu nahi izan ninduen, egun batean joan eta bertan gauez itzultzeko bat
posible izango zela. Osabetako batek eramango gintuen (biok) goizean eta itzuli
arratsean.

Iragan ziren beste bi ikasturte.

Frantsesarekin aurrera eta azkar nindoan. Ama Marie Lucie-k zioenez, aurrerapen
hau nire irakurketei esker lortu nuen. Honek zekien neuk zenbat irakurtzen nuen, bera
baitzen liburuak ematen zizkidana. Marie Clairerekin batera beste lagun batzu egin
nituen eta hasi nintzen, barruko diziplina handiaren barruan, denetarik pixka bat gogoz
hartzen eta gozatzen ere.

Baina beste arazo batzuk izaten hasi nintzen.

Ni neu ez nintzen konturatzen, baina nire aita hasi zitzaidan nire eskutitzak itzultzen hark zuzentzen zituen ortografiako hutsak markatuaz! Frantsesa ikasi eta gaztelera ahazten hasia nintzen... Gauero nire mahaitxoko kaxoia irekitzen jarraitu nuen, eta etxetik bidaltzen zizkidaten bezala zaharren ordezt berriak jartzen. Gauero egin nuen ohizko etxerarteko bidaia, baina gauza asko ari zitzaizkidan zirriborratzen... Gau batez, argiak itzali eta gero nire pentsabideak familiarekin zebiltzala bapatean estutu egin nintzen eta zentzu berri bat sortu zitzaidan; nire errua... aitaren aurpegia gogora ekarri nahi izan nuenean ez zitzaidan ateratzen!, puntu batera helduz gero, ez nintzen gogoratzen, ez nuen ezagutzen, ez zuen antzik!... Altxa nintzen ohetik, hartu nuen argazkia eta arineketan joan nintzen komunera, argia piztu nuen eta zotin eta malko artean ahalegindu nintzen ulertzen zergatik ari zitzaidan nire aitaren aurpegia ahazten!!... Ez zaizkit ahazten ari, nioen nire artean, eta lasaitu egin behar dut... Denbora da iragan dena, asko, ia bost urte!... Aitari idatzi nion, nolako estuasunetik ari nintzen pasatzen. Berehala hartu nuen bere gutuna esanez: datorren eskolurtearen azkenerako etortzeko asmoa hartu zutela. Pentsatu nuen, neu kontsolatzearen ari zitzaidalda hau esaten...

Halere, esan nuen niretzat, bada hemen berria den zerbait: fetxa inguru bat seinalatzen didate.

Etorriz gero izan nuen oparirik ederrena iruditu zitzaidan.

Ez hirugarren urtean ez laugarrenean ere ez nuen lortu amonak jarritako jomuga: solairura, estradura, igotzea.

Ez baitzen erraza!

Denbora orain azkarrago joaten ari zen. Hain azkar, askotan ez zitzaidan gauero egiten nuen etxerarteko bidaia egiteko ere astirik geratzen. Buruhausteak nituen, kezka... Nire jomuga, Notak ziren. Denbora guzti hau behar izan nuen Ursulinen arauak ezagutzeko: bakoitzaren erantzukizuna, ordena eta diziplina ziren lehentasuna zutenak; barnetegian bizi eta ikasketak egitea pribilejio bat zen, eta, beraz, ez genituen etxeakoak dezepzionatu behar. Zorrotz zaintzen zituzten barruko lagunarteak; lagun bakarrarekin jarraitzen bagenuen, jarrai genezakeen jolasaldietan, atsedendietan, baina ezin zen elkartasun hau ikasketa orduetan eta, batez ere, logelan, jarrai...

Bigarren urtetik aurrera, logelak ez ziren bata bestearen ondoan korrituak, baizik eta oheak aldameneko babeski-manparaz bananduak zeuden. Ez zegoen bi oheren artean komunikatzeko biderik. Irtenbide bakarra, oihalezko atetik korridorea zen... moja beti zai. Behin batean, gogoratzen naiz, hamalau urteko "berri" bat, gauez beldurtu eta aldamenekoaren ohean sartu zen, eta gauzak argitu ziren arte galde-erantzun luzeak izan zituen. Esandakoak argi ez zeudenean, gauez egoten zen mojak erizaindegira eramaten zuen ikaslea, eta hurrengo egunean, besterik gabe, ez zen agertzen. Egozketak ez ziren maiz gertatzen, baina gertatzen zirenean azkar erabakiak izaten ziren, ez ginen ia inoiz zergatiaz enteratzen. Marie Clairerekin garbia zena ilundu zezaketen mojek, eta kezkatzen ninduen.

Amona pozik zegoen nire lanen ondorioekin, baina esaten zuen ematen zizkidaten notetan (postaz iristen ziren etxera, eta don Anton apaizak, osaba Lazaroren koinatuak, estu xamar edo interpretatzen zituen!), oharretan ziotela: "Hobeto egin dezake"!

Min egiten zidan amonak hau aipatzen zidan bakoitzean, zeren eta honen atzetik beti etortzen zitzaidan burura gurasoak urrun zeudela, nigatik sakrifikatzen ari zirela, eta gehiago ahalegindu behar nuela. Eta, egia esan, neuk ezin nuen gehiago egin. Frantses hizkuntzari zegokionez, Mère Marie Lucie-ren gainbegiratzearekin ari nintzen lana prestatzen ikasturtearen bururako; hau zen moja honekin egokitzen zitzaidan azken urtea, eta gaia aukeratzekoan Gide eta Maupassant eman zizkidan, eta azkenean esan zidan ahaztu egin behar nituela idazterakoan, bi hauen estiloa kopiatzen hasi bainintzen!

Heldu zen noizbait laugarren ikasturteko amaiera, hamasei urte egin berri nituen. Ez nintzen ikastaldeko lehenengoa, baina lehen lauen artean nengoen. Ez nuen, beraz, tribunara igotzeko aukerarik izango aurtan ere, segur nengoen. Baina nire laguntzarako, ustekabeko zerbait gertatu zen: idazketan onena zena gaixotu egin zen. Neuk lan polita egin nuen, eta ortografiako huts bat aurkitu bazuten ere, Mère Marie Lucie-k klasean irakurri zuen eta ni ez beste guztiei aurpegiatu zien atzerritar bati frantseseko saria eramaten uztea! Oraindik beste lan bat aurkeztu behar nuen, eta posibilitatea banuen solairura igotzeko.

Heldu zen, ikastaroaren amaiera eta ekintza nagusia.

Zeremonia hasi zen, eta ez nuen nire amona inondik ikusten; hala ere ez nengoen ziur, geu aurrean eserita baikeunden eta gurasoak atzean.

Nire izena entzun nuenean bakarrik ziurtatu nintzen igoko nintzela: frantsesean irabazi nuen, eta gainera etekin orokorrean, inglesean eta portaeran. Diploma eta banda jaso nuenean, txaloen artean, Reverendaren agurra, tribunaren altura, nire hunkipena, herabearen gorritzea, gero eta gehiago sentitzen nuena... lainotu zitzaidan dena, eta nire tokira itzultzerakoan ausartu egin nintzen aurrera begiratzera, eta han egiten dut topo, bistaz, nire amona Mertxedesen figurarekin, zutik, betaurrekoak abiadoreen antzera kopetera jasoak, txalo bizian eta malkoak xukatzen, dena batera!

Bost

Nire aitak iragarri zidanetik lauak egitan heldu zitzaizkidan arte, denbora arineketan iragan zitzaidan.

Badirudi ba aldrebes izan behar lukeela, itxarote horrek gehienetan urduritasunez luzatu egiten baitu denbora; baina nire kasuan, haiek iristerako nota onenak lortu nahian lanari buru-belarri ekin nion, eta gauez etxera egin ohi nuen bidaiarako egiazko seinalerik aurkitzen hasi nintzen bidean... Ez nuen oraindik data finkorik, egia da, baina gutun guztiak prestaketen xehetasunez gainezka zetozen, eta batez ere nire aitaren gutunak ziren itzuleraren ilusioa gehien piztu zidatenak: proiektuz beteak zetozen, eta poza ere somatzen zitzaion honek erabiltzen zituen hitz borobil-gozoetan... tarteka neuk oraindik ametsaren urdindura antzematen banien ere... Nolanahi, haize epel eta kementsu bat nabaritzen hasi nintzen nire barruko kezka zaharrak uxatzen, eta segurantz berri bat finkatzen hasi zitzaidan: lortuko zuen aitatzok azkenean itzuleraren lehia!

Ohartu zen nire aurpegiko oskorriaz Marie Claire, nire lagun mina, eta baita Mère Marie Lucie ere...

Azken aldi honetan amona Mertxedesez hasi nintzen kezkatzen; ez zen inoiz adierazkorra izan, baina orain bereziki urduri sentitzen nuen, zerbait gertatzen zitzaion.

Ez zen bada Caracastik zetozenek tristatzen zutelako izango!... Hainbeste maite zuen alaba, nire ama, berriz ikusteak pozten zuen, banekien neuk hori... Uda hura inoiz izan nuen ederrena iruditu zitzaidan, zeren eta nire maiteengandik jasotako berriek zerikusirik balute bezala hasi zen zerugoi eguzkitsuak egiten. Eta gau batez amona eta biok oheratu ondoren, ilunbetan... ez bainintzen aurrez aurre argitan esatera ausartzen, galdetu egin nion zer gertatzen zitzaion. Luze egon zen nire erantzun gabe..., eta azkenean esan zidan: "Ez da ezer, alabatxo, bihar arte". Neu ez nintzen orduan besterik esatera ausartu, baina oporretan izan nuen aukera gertuagotik amona behatzeko, eta garrantzitsua izan zitekeen... arduraz kargaturik ikusi nuen...

Oso kezkatu geratu nintzen.

Ikasturtea hasi bezain laster jaso nuen aitaren gutuna esanez udaberrian zetozela! Sei hilabete besterik ez ziren falta! Eta orain banuen, lehen aldiz, epe finko bat, bidaiuntzirako gordespena egina baitzuten, Marseillara helduko ziren!... Egunak kontatzen hasi nintzen, aise zihoazen! Eta egin zuen negu ziztrina ere laburra iruditu zitzaidan.

Otsail aldera amonak egin zidan bixita batean esan zidan izeba Maritxu Parisen zegoela. Esateko moduak pentsarazi zidan amonaren ardura berezietako bat hau zela. Izebaren bidaiak ez ninduten arduratzen, maiz joaten baitzen eta inoiz azalpenik eman gabe, niri behintzat; ez harakoan eta ezta itzuleran ere. Maite nuen nik, asko gustatzen zitzaidan

berarekin egotea, eta egiten zizkidan bisitak ere pozgarriak izaten ziren niretzat. Oso baitzen alaia! Fantasiako gauzak kontatzen zizkidan! Neuk ez nizkion erdiak sinesten, baina oso pozik entzuten nizkion. Amonarekin aitzitik gertatzen zen, honentzat izebak larregi hitzegiten zuen, zeren eta behin entzun bainion alabaren hizjario baten ondoren hau esaten: "Maritxu, ez zaitetz ergela izan!"... Izebak bere amaganako begirune handia zuen, bera honelakoetan berehala isiltzen zen, baina berehala hasten zen berriketan berriz! Nire amatxo baino altuxeagoa zen izeba, eta askoz ere gazteagoa; niri emakume ederra iruditzen zitzaidan, erakarlea, baina nire amatxoren diskretasuna eta dotoretasuna etortzen zitzaizkidan burura, eta amatxo bezalakorik ez zegoen familian!

Handik bi hilabetera, amonak egin zidan bisitan esan zidan xuxen-xuxen Maritxu bere senargaiarekin ezkondu egin zela. Esateko moduak berak adierazi zidan ez zuela gai honetaz hitz bat gehiago entzun nahi. Isilune luzea sortu zen bion artean, baina amonak berak hautsi zuen gogorrago: "Ez dadila bere aita bezalako mozkortia gertatu..."

Astebete gero etorri zitzaidan izeba bere senarrarekin bisitara, eta leinurutsu, zoriontsu, ikusi nuen. Gizona, sotila iruditu zitzaidan; jatorriz herri berekoa eta Txileko exiliotik Parisera hurbildu berria, gero Ingalaterrara lanera joateko; untzigintzako teknikoak baitzen.

Laster ziren irtetekoak.

Izebari esan nion amona oso aldatua ikusten nuela, kezkatua nengoela; eta esan zidan: "Zeuk badakizu doña Mertzedes nolakoa den!". Ez zidan honekin ezer argitu, noski, eta pentsatu nuen, alabaren aukera kezkarria irentsi eta gero, berriz berera, bere duintasun harrigarri hartara, itzuliko zela berriz.

Baina ez zen hala gertatu.

Orain ziur nengoen amona osasun arazo larriren bat ezkututzen ari zitzaigula...

Eguberrietako oporretan ezagutarazi nion osaba Rosariori nire kezka, eta galdetu egin nion ea gaixo zegoen, eta honen erantzunak lasaitu ninduen: amona osasunez oso ondo ikusten zuen eta.

Hain pozik nengoen, bestalde, gurasoen bidaia handiaren zai, aise joan zitzaizkidan beste ardurak. Aitatzok kartaz esaten zidan guztia nire buruan imajina bihurtzen zen: amesten nuen, eta ikusten nuen. Laster helduko zitzaidan, beraz, ordura arte falta izan zitzaidan segurtasuna, egiazko babesa... Pozik adieraziko nizkiokeen neuk amonari nire pentsabideak, hainbat gauza... Eta orduan konturatu nintzen, gurasoak gertuago sentitzen hasi nintzenean, sakona eta isila zen zerbait sentitzen nuela amonagan, eta sentipen honekin nahasian, zera, errespetu itzel batek banatzen ninduela beragandik, eta ez nintzela inoiz ausartuko amonari nire bihotza osorik zabaltzera.

Izeba Maritxu joana zen ordurako, eta amonak egin zidan bisita baten ostean lagundu nion ate nagusiraino, beti bezala, eta bitarteko basotxoaren gerizpean gindoazela, eta begiratu gabe, herabe galdetu nion: "Amona, zer gertatzen zaizu?"

Ez zidan begiratu, ez zen geratu ere egin, eta berean zihoala esan zidan ahots berri eta triste: "Zure aitona galdu nuenez gero, eta oso gazterik joan zen, nire seme-alaba ederren aita eta ama, biak, izan naiz; hauetako bati gaizki badoakio, arazoak baditu, neronek sentitzen ditut kargak. Lazaro ez da aspaldi bere emazte eta seme-alabengana, bere etxera, bildu. Uste dut berriz 'jaitsi' beharko dudala ikustera"...

Neuk amonari sekula entzundako esaldirik luzeena amaitu eta gero isildu zen.

Heldu ginen ate nagusira.

Eskuz nire ilea laztandu, hau zen bere niganako zeinu hunkikorrena, eta beti bezala gomendatu zidan: "Denbora ongi aprobeatza ezazu".

Hurrengo igandean ez zen etorri; bi aste egon zen kanpoan, eta itzuli zenean, eraman zuen aurpegi kezkatu berarekin etorri zen. Eta ez zidan konfidentziarik egin.

Amona Mertztedesek betirako zerbait galdu zuela zirudien.

Urte honetan gertatzen ari zen guztia harrigarria zen, edo hala iruditu zitzaidan niri. Nire ikasketetan murgiltzeko ahalegin handiak egin behar izaten nituen, aise galtzen bainuen arreta. Banekien gurasoen aurrean haiek negatiboki egindako sakrifizio guztien ordainak eskaini behar nizkiela eskolurte hartan, batez ere nire garaipenaz gozatzeko bertan egongo zirelako; zor nien neuk hainbeste!

Haiek han behean, nire izarraren zain, eta tribunara igotzeko meriturik egiten ez banuen?!

Honek izutzen ninduen orain.

Maiatzaren erdialdea izango zen. Aste Santuko oporrak pasa eta gero, etorri zen osaba Rosario niri berri ematera: Marseillarantz irtetera zihoala nire gurasoak eta bi ahizpatxoak errezibitzera. Harri eginda geratu nintzen;

z nuen inoiz pentsatu ni gabe joango zirenik, baina osabak ez zidan neu prestatzeko eskatzen... eta joan izan behar ez banu bezalako planak adierazi zizkidan...: Joan aurretik, adierazi nahi zidan eguna heldu zela, eta laster etorriko zirela gurasoak... ni ikustera!!!...

Ez zitzaidan buruan sartzen!

Hainbeste urte igaro eta gero, hor datoz nireak Ameriketatik, eta ni neu ez naiz nor haiek errezibitzera joateko... Nik neuk burutik pasea nuen behin eta berriz ongi-etorri honen filmea... Honako bidaiaren urrutze-urrutze hura, amaren mota urdinezko soineko zuria txikitzen, txikitzen... ikusi nuen bezala, orain legezko zen neu kaian eta ama untzian... nigana itsas zabaleko horizontean puntu bat zenetik apurka handitzen zeterren untzia mantso mantso hurbiltzen, eta mota urdinezko soineko zuri hura piskanaka piskanaka handitzen ikustea...eta bere ondoan aita, besoa jasota, eta ia ezagutuko ez nituen bi ahizpatxoak ni ikusi zai... Eta igoko nintzen pasarelatik eta neuk emango nizkien itsasoz honantzako lehen ongi-etorria eta musuak!!

Neuk ere bai baintuen nire ametsak...

Osabaren aurrean, nire angustia guztia eztarrian korapilatuta neukan... hitzik esan gabe... ezin nuelako...

Osaba begira...

Orduan, elkarri begira luzaro egon eta gero, adierazi zidan osaba Rosariok berak hitzegiz zuela Mère Marie Lucie-rekin eta honek esan ziola nire bidaia egun galduak, egun galduak!, izango zirela nire azken ikastaldiaren etekinerako, eta azterketak gain-gainean!, pentsat!!!... Urte garrantzitsua zen oso, nire "Certificat d'études"...

Ulertzen nituen osabak frantses txar batean esaten zizkidanak, denak, baina!...

"Heltzen diren bezain laster ekarriko ditut zu ikustera", agindu zidan osabak, hunkitua orain bera ere, noski... Baina ez al dut izango orduan ere, haiekin nire lehen bizpahiru egunak pasatzeko egokierarik?... Dena gezurra iruditzen zitzaidan. Inork ez

zekien zein luze egin zitzaizkidan ia azken sei urte hauek... Nola ez zuten ulertzen neuk beharra nuela, premia handia!, une honetan nire familiarekin biltzeko...

Gau hartan ez ninduen loak hartu.

Heltzen zenean aitak dena konponduko zuenaren itxaropenak lasaitu ninduen piska bat.

Eta lau egun lu-ze... iragan ziren, amaiezinak. "Neuk, joan egin behar nuen inori jaramonik egin gabe!", pentsatu nuen. Ezin nuen ezer irakurri, are gutxiago ikasi, arreta galtzen bainuen ahalegin bakoitzean...

"Petite étourdie" (nahaba txikia) deitzen zidan behin eta berriz Mère Marie Lucie-k...

Igande goizean, ikasketa orduan, etorri ziren nire bila: Bisita nuen... Beraiek ziren! Abiadan irten nintzen gelatik korridoreetara, eta uste dut konturako gabe itxarongelara joateko aukera nezakeen biderik luzeena egin nuela... Lauak zeuden! Ez naiz gogoratzen nor besarkatu nuen lehen. Batetik bestera pasatzen nintzen. Nire aitak arnasarik gabe uzteraino estutu ninduen... Amak bere malkoak xukatu batetik, eskuz apartatzen ninduen pixka bat bestetik eta gero begiratzen eta berriz besarkatzen ninduen!!

Ahizpatxoek, harriturik bezala begiratzen zidaten...

Lehen aldi hau pasa eta gero, lauen begiradapean sentitu nintzen. Nire aitak berehala jaitsi zidan hatzez nire betazala, anemiarik banuen ikusteko... Caracasko ohitura zaharra!, ahaztu zitzaidan nolakoa zen! Nire hurren zetorren ahizpak, Irenek, lotsagabe begiratzen zidan, eta laster eman zuen bere iritzia: "Por qué carga luto?"... (zergatik jantzi dute beltzez?)... "Qué feo todo negro, parece un zamuro!" (Zer itsusia dena beltza, belea dirudi!) "Yo pensé que estaría más grande que yo!..." Ahizpa txikienak, Pilartxok, irrifarre batez erakusten zuen bere herabetasuna... Egia zera zen, biak hazi zirela asko, handiak zeudela, neu baino urte batzu gazteago baziren ere, biak zeuden ni bezain altu!

Aitak esan zidan, ni berekin egun batzu pasatzera joateko eskaera egingo zuela; ahal bazen, berekin eramango nindutela orain. Abiadan joan nintzen Zuzendariagana. Honek, Mère Marie Lucie-gana bidali ninduen, eta nire ardura zuen moja honek berehala esan zidan: "Ez: azterketa nagusietarako ikasketen azken fasean gaude"... Gurasoei hau esan nienean, nire aitari zera irten zitzaion: "Hara, Ursulina andereak!"... Ibili ginen basoan. Sentitu nuen nire aitaren etengabeko begirada, ni aztertzen. Nire ahizpatxoak, Irenek, bere kreol doinuarekin erabaki zuen neuk oso itsusi hitzegiten nuela ("Habla muy feo"). Nire amaren eskutik nindoan, eta besarkatzen ninduen maiz "alaba maitea" batekin.

Despeditu ginen. Etorriko zirela berriz. Eskolurtea berehala amaituko zela. Denbora guztia geure aurrean genuela gero.

Hemendik aurrera dena elkarrekin egingo genuela.

Gauetz gogora ekarri nuen bisita.

Neuk utzi bezala aurkitu nituen gurasoak. Nire aita gaztea zen; neuk uste baino gazteagoa. Nire ikaskideen gurasoekin gonbaratzen nituen, tripaundiak, batzu burusoilak, asko betaurrekoekin; nire aita dotore ikusten nuen, ile asko, oso laburra

eramateko ohitura bazuen ere. Nire ama oso emakume ederra zen, gogoratzen naiz bere mota urdineko soineko zuriarekin, dotore, sotil; oso irrifarre bare-narea zuen.

Errepasso hau egiten ari nintzela gogoratu nintzen niri bidali zizkidaten argazkietan falta zitzaiena bizia zela, begiraden espresioa, zeinuak. Bereak grabatuak nituen...

Zoriontsu sentitu nintzen; ez nuen inoiz honelako pozik somatu nire baitan.

Orain banekien, nirekin nituen bitartean ez zitzaidalda beste ezer faltako.

Hurrengo egunean, ikasgelan nengoela, goizerdia izango zen, nire bila etorri ziren. Bisita nuela! Mojak adierazi zidan, itxarongelara joan aurretik Zuzendariaren langelatik pasa behar nuela. Oso maitekor hartu ninduen, aita agurtu zuen, eta ordutegiaren orria eskuratu zidan, gure ordutegi eta bisitegunekin!

Nire aita zai zegoen. Arnasbehartua ikusi nuen, eta kezkatu nintzen... Txirrindaz etorri zen, eta oso hunkitua zegoen! Eman nion ordutegiaren orria, eta behatu nion ongi: "Hara Ursulinekin!"..., esan zidan; "baina orain hemen nagoenez gero, ez naiz zu hemen bertan behera utzita joango!... Goazen basoan ibilalditxo bat egitera"... Irten ginen eta eskua eman zidan, asko estutu zidan nirea, ia min egiteraino, eta hasi zen bere proiektuak kontatzen. Bazuen nahikoa diru orain hemen apalki bizitzen jartzeko, esaten zidan, "bestaldean" gauzak pixka bat konpontzen diren arte, "noizbait! aldatu behar baitu gure herriaren egoerak"... "Orain ikasi egin behar duzue, ongi formatu. Gure bi txikientzat ("corotos", deitzen zien maitakiro Venezuelako hizkeran). Arazoa, Tasio izango da; bere adinean ezin dugu aldatu... ia hemezortzi urte baditu eta!, Komertzio lehen urtea egiten ari da Bilbon oraindik... eta amaitu behar du! Ea gu gertuago gaudela gehiago ahalegintzen den!... Momentuz egitan arduratzen nau, badirudi liburuak ez dituela maite..., baina badu adina bereak diren erantzukizunak bere gain hartzeko"...

Bere artean ari bailitza mintzo zen.

Ez nekien zer esan.

Bere begiak ditut batez ere gogoan aitaz gogoratzen naizenean: oraingoan bere begi berde dirdiratsuei izpi marroiak ikusi nizkion; nire aitak oso begi adierazkor eta ederrak zituen.

"Hau gogorra izan da zuretzat, alaba", esan zidan, "baina orain dena aldatuko da. Zeu lehengo bera izatea nahi dut, eta nire asmoez duzun iritzi osoa erakustea, geurekin konparti ditzazun"... Konturatzen hasi nintzen, nire aldetik gurasoek nola pentsatzen zuten ikasi behar nuela; denbora asko iragan zen, eta seguraski neroni ere aldatu nintzen. Azkenaldi honetan isilune asko izan genituen, eta gutunak zerbait hurbiltzen bagintuen ere, urruntasuna izan genuen tarteko beti. Ez genizkion elkarri berri onak besterik ematen, eta atsekabeak, gorde. Aitak izuegia aurkitu ninduen nonbait, hala esan baitzidan: "Zeure izukortasun hori gainditu behar duzu, ez gero pentsatzen duzun guztiak niri esateko beldur izan"... Ez zitzaidan hori erraza zenik iruditzen, oraindik behintzat... Denbora behar nuen horretarako. Itzultzerakoan, otordu ordua zen, eta bapatean nire aurrean jarri zen aita, aurrez nire begiak bilatu zituen eta sekula ahaztuko ez zaidan tristuraz esan zidan: "Etorri naiz, zeren eta pitinka, pitinka, gauza asko esan beharko baitzizkit, emakume egin zara, eta zure konfidantza behar dut. Egun batean 'etxera' itzuliko gara, hau da nire ametsa; oraingoz ezin dugu, baina hemen gertuago

egongo gara, muga inguruan aurkituko dugu etxe bat, Tasio errazago etor dadin eta kolejio onak eskura izan ditzagun... Eta helduko da gu itzultzeko eguna. Bitartean, elkarrekin izango gara, hauxe bakarra da eta axola zaiguna".

Ni neu isilik geratu nintzen. Eta aitak ahots bereziz esan zidan oraindik:

"Neu ezin naiz herriratu aldaketa politikorik gertatzen ez den arte... Zeuk ez dakizu, baina gerra sortu zenean neu merkataluntzi batean nengoan, Francoren mende aurkitu nintzen, eta etxera itzuli ezinik, noski!... Gero, untzi hau militarizatu egin zuten eta Bilboko sarreran bertan gauez minak zabaltzen jarri gintuzten!!... zuek guztiok hortxe zeundeten!! Aginduak bete behar genituen, ezin genuen besterik egin, noski, eta ia gaixotu nintzen. Urtebete gero, eman zidaten lehen aukeran permisoa eskatu nuen eta muga pasa nuen zuek denak zeundetenera, Kerroch-era, eta ez nintzen itzuli"...

Ikusten nuen nire harridurari so zegoela, eta jarraitu zuen:

"Denok pentsatzen genuen frankismoak ez zuela asko iraungo. Orain hiru urte, zu ordurako hemen zeundela, jaso nuen nire guraso eta arreben bitartez, Bilbotik, 'juicio sumarisimo'rako deia, eta desertatu duen kapitainari dagokion 30 urteko espetxe zigorra ezarri zidaten!"...

Neuk harridura berean jarraitzen nuen, zer esan ez nekiela!

Nire aita lehen aldiz kontatzen ari zitzaidan hura oso grabea zen, eta bere begiradan ikusi nuen pena haundiz ari zitzaidala hura esaten... Gero, betiko tonuan jarraitu zuen: "Orain inporta zaiguna zera da, etxebizitzaren arazoa konpondu eta denok elkarrekin bizitzen jartzea"... Hau zen bere ilusio nagusia, eta seguru zen lortuko genuela, eta berriz baikor sentitu nuen. Ate nagusian utzi ninduen, eta nire harridura handirako nire aitak, lehen aldiz!... makurtu eta estu eta luze eskuan mun egin zidan!!

Harri bihurtu nintzen!

Noizbait buelta eman nuen eta begiak malkotan sartu nintzen arineketan korridoretik barrena.

Heldu zenetik beretik, aitatxo harriduraz harridura zebilkidan.

Hogeita hamar urtetako espetxea nire aitari!!, ez nuen, ez mina horietaz, ez bere ihesaz, inoiz ezer jakin.

Orduan ulertu nituen anaia eta biok etorri berrian Bilboko aiton-amonek, bere gurasoek, izan zuten izua!, neuk aita eta ama gure atzetik laster etxeratuko zirela esan nienean!!

Igandean etorri ziren denak berriz; eta harritu nintzen bi egun gero, asteartean, bere gutun bat jaso nuenean.

Igandean bertan, bisitatik itzuli ziren bezain laster, idatzia zegoen. Berriz bere proiektuen berri ematen zidan, eta eskatzen zidan Mère Marie Lucie-rekin hitzegi eta zetorren astebururako permiso bat eskatzeko. Esan bezala, ikasturtearen amaieran geunden, baina neuk horren truke jolasaldietan estudiantuko nuen promesa egin eta gero (hau debekatua bazegoen ere) eman zidan mojak baiezkoa, hainbesteko ilusioa ikusi zuen nire eskaeran!; baina bere aldetik bi egun horiek niretzat zein kaltegarri izan zitezkeen ohartarazi eta gero.

Hain berezia iruditu zitzaidan mojen amoremate hau!

Urtetan ez nintzen rutina hartatik irten. Egun pare bat neureekin egongo nintzela konturatzean oso urduri jarri nintzen, eta ahalegin handia egin behar izan nuen eskolaldietan nire lanera biltzeko... hain erraz etortzen zitzaizkidan aitaren asmoak, bere poxak eta niganako ardurak eta planak!... eta amatxo berriz deskubritzen hasi nintzen, nahiz eta amarena askoz ere bareagoa, nareagoa, izan...

Aita taxi batekin etorri zen nire bila ordutegian markatua zegoen puntu-puntu. Ni neu zai nengoen, noski. Aitak ikusten ninduen bakoitzean, lehen bisita bailitzan gertatzen zen dena: hain estu besarkatzen ninduen, ezin nuen arnasarik hartu; gero aldentzen ninduen eskuz apur bat eta amaitzen zuen: "alaba maitea" esanez. Kerrocherainoko bidaia oso laburra iruditu zitzaidan, eta bidean aita ez zen nekatzen hango paisaia zein polita eta ederra zen behin eta berriz azpimarratzen! "Urtaroak miresgarriak dira"... Ameriketara falta zitzaizkiola esaten zidan behin eta berriz!

Etxera iritsi ginenean, kanpotik heldu berria ni banintz legez hartu ninduten, eta sorpresa asko zituzten niretzat gordeak: aitatzok urrezko erloju eder bat jarri zidan nire eskumuturrean; amatxok, berriz, pultsera eder bat eskaini eta gero, magiaz bezala, atera zituen zoragarriak iruditu zitzaizkidan gona eta brusa, amak berak jositakoak, proba nitzan... Hau dena asaldura handiz... Nire amona besaulkian eserita, isilik, guztiei begira... Eta ilea moztu behar zidatela entzun nuenean, pentsatu ere egin nuen: hauek umezurtz bat bezala aurkitu naute!... Nire ahizpa Irene berritsua zen bere kreol azentuarekin iritziak gehien eta ozenkien botatzen zituena, eta bere soineko bat eskaini ere egin zidan!... Nire aita zen Ameriketara beti ilea mozten ziguna, eta hor zekartzan bere guraizeak, betikoak, kutxatila marroian. Ispilu baten aurrean jarri ninduten, eta zernola moztu behar zidaten erabakitzen jarri ziren; neuk banekien aitari nire ilea motxa gustatzen zitzaioela... moztuko zidaten nire ilemototsa!... baina ez, amatxok lisatu zidan eskuz nire ilea, txirikordatu zidan gero, eta aitatzok esan zuen arra bat besterik ez zidatela moztu!

Buruz behintzat berdintsu geratu nintzen, muturrean tertziopelozko zinta estu batekin apaindua.

Denek pozik ziruditen aldaketekin.

Nire lehengusu-lehengusinarik, osaba Lazaroren seme-alabak, hor zebiltzan joan-etorrian eta iritzieta.

Hauen ama, Libe, ez zen agertu.

Pena handia ematen zidan honen egoera trajiko-mingotsak. Izeba Libe oso isila zen; bere etxean zegoen, baina isilik sufritzen zuenak, besteok gure etxean sentiarazten gintuen. Neuk, nire aldetik, beti sentitu izan nuen izebak niganako zuen jarrera samurra erregali handi bat bezala; bereak zituen zortzi seme-alabei ematen zienaz gain niganako gozotasun hura oso zen bitxia.

Gurasoak gure solairuan zeuden, baina neuk beti bezala amonarekin lo egin nuen. Ia ez nuen begirik itxi. Aitak galdetu zidan oheratu aurretik ea kolejoan zein ordutan jaikitzen ginen, eta 7:30etan esan nionean, ordu horretan sukaldean nire zai egongo zela, esan zidan, elkarrekin gosaltzeko. Amona oso zen goiztiarra, baina azken aldi honetan beranduxeago arte geratzen zen ohean. Bazen amona aldatzen ari zen zerbait, eta denek besterik bazioten ere, neuk somatzen nuen hori... amona ez zen lehengo: begirada asko itzali zitzaion, bere irrifarreak gero eta bakanagoak ziren, eta lehen baino isilago

geratzen ari zen. Nire gurasoen etorrerarekin, bere alaba kuttunaren bidaia honekin ere, ez nuen pozik ikusi... Jaiki nintzen eta jantzi, ahal nuen zarata gutxien eginaz, eta oinpuntatan jaitsi nintzen sukaldera. Nire aita ordurako zai zegoen, bientzat gosaria prest. Aitaxoren kidesuna atsegin zitzaidan oso. Behe solairuan ez zegoen logelarik, baina xuxurlatzen mintzatu ginen norbait esnatzeko beldurrez bezala, geure ixilekoak beste inork antzeman ez zitzaizkion.

Gero, pasiatzera irten ginen.

Egun ederra zen. Fresko egiten zuen, baina eguzkia irten zen. Nire aitak hartu ninduen eskutik eta Kerroch-i osterara osoa eman genion. Une batzuetan isilekoak izan ziren, eta besteak ia beti aitaxori entzuten. Noizbehinka gelditzen zen, aurrez aurre begiratzen zidan eta behin eta berriz esaten zuen: "Berriz nirekin hitzegiten ikasi behar duzu, pentsatzen duzuna niri esaten, ezagutu nahi zaitut berriz... etorkizunerako dituzun asmoak, zer egin nahi duzun, geure proiektuak nola ikusten dituzun", eta amaitu zuen: "Uste dut gutxi hitzegiten duzula, gaztelera ahaztu zaizulako, badirudi zailtasunak dituzula hitzak ahoskatzerakoan, baina hori, etxean astebete egin eta konponduko da!"

Nik neuretzat nuena zera zen, herabea, eta bestalde, denbora gehiegi bizi izan nintzela bakardadean eta familia faltan, eta askatasunean espresatzeko ohitura galdu egin nuela, edo, beharbada nire nortasunari zegokion zerbait zen, eta orain arte ez nintzen barnetegiko bizitza mugatuan horretaz konturatu.

Itzuli ginenean, familia dena jaikita zegoen.

Aitak igoarazi ninduen bere gelara eta han erakutsi zidan dolar biletaz betetako maletin bat; gero jaso zuen alkondara eta soinean zeraman larruzko gerriko berezi bat erakutsi zidan: han zeramatzan, bidaia egiteko amatxok taiutu zion gordeleku honetan, urrezko diruak; bi zituen bidaia egiteko. Hau dena amatxoren aurrean erakutsi zidan. Ahizpak ez ziren han... "Txikiek ez dakite... baina, hara, nahi dut zeuk jakitea badugula etxetxo bat erosi eta beste familiek bezala normalki geuk ere hemendik aurrera elkarrekin gozoki bizitzen jarraitzeko adina... Eskola onak inguruan, eta horrela itxarongo dugu lasai gure herrian aldaketak gertatzen diren arte, eta Santurtzira, betiko..."

"Urte gogorak, sakrifikuak, izan dira denentzat igarotako azken horiek. Orain dena diferente gertatuko da. Elkarrekin gaude."

Esaldi laburrak, begi dirdiratsuekin eta bere hortz zuri eta ongi lerrokatuak erakutsiz esanak; zorion berezi bat sentitu nuen, aitaxok honelakoetan segurtasuna sentiarazten zidan. Horrez gain, amatxok berak ere esandako guztia baieztatzen baitzuen bere irrifarre gozo eta nare harekin.

Igandean, eta gogoan dudak igandetik laburren, seguraski, berriz barnetegira itzultzeko ordua iritsi zenean, aitaxok eraman ninduen berriz taxian. Hurrengo igandean etorriko zirela ni ikustera!...

Eta, egia, denak, laurak, etorri ziren bisita honetara...

Amona ez zen etorri, nire gurasoak heldu zirenez gero.

Eta hurrengo igandean, aita bakarrik eta desbabestua bezala agertu zen!... Esan zidan osaba Lazaro igo zela Donibanetik eta diru mailegu handi bat eskatu ziola, larritasunean zegoelako, baina oso epe laburrerako izango zela, eta bitartean zera eskaintzen ziola, Pabe inguruan zuen château batera, gaztelu batera... joateko aukera,

bitarte horretan han inguruan etxetxo bat aurkitzeko egokiera berezia izango zuela, eta, egia, muga inguruan bilaketa pausatu bat egiteko parada polita zen... Eta pentsatzen zutela, nola ikasturtea amaitzeko hiru aste besterik ez zitzaizkidan geratzen, haiek aurreratu egingo zirela... eta nire azterketa eta beste amaitzen nituenean jaitsiko nintzela... Gurasoak eta ahizpak nire zai egongo zirela, eta aitatzok berak bidaliko zizkidala trenaren biletea eta azalpenak...

"Zer iruditzen zaizu, alaba?"

Neuk, egia esan... ez nekien nola erreakzionatu...

Hainbestekoa zen neuk amaitu eta notak emateko ekitaldi ederra elkarrekin igarotzeko nuen ilusioa!!

Zer esango nion aitatzori une triste honetan!! Neuk ulertu behar nituen haiek, baina baita haiek ere ni, nire egoera... Baina ulertu nuen aitaren eginbeharra, lehenbailehen egin behar zuela... Ez beretzat, gaixoa!, denontzat baizik!...

Halere hiru aste hauek laster joan ziren. Heldu zen Zeremonia nagusiaren eguna, eta deitu egin ninduten estradora... jaso nituen hainbesteko lan eta estuasunekin nire gurasoentzat, eta batez ere aitatzorentzat, irabazi nituen diplomak, eta banda, eta zilarrezko domina txiki polit bat. Neuk espero nezakeen sari guztia!!... Behe solairuraino zeuden eskailera mailak jaisterakoan ez nintzen ausartu jendartera begiratzera... espero nuen gurasoen ordez amona behintzat hor izango zela...

Areto nagusitik irteterakoan bilatu nuen begiz hainbeste familiaren artean nirea... baina han ez zen inor agertu.

Posible zen amona Mertxedesen ondoezen bat...

Kerroch-era iritsi nintzenean... amona leiho ondoan eserita aurkitu nuen; lehen aldia zen amona jarrera honetan ikusten nuela; lo zegoen, eskuak bere magalean gurutzatuta eta burua aurrerantz makurtuta. Hurbildu nintzaion eta esku xaharrak laztandu nizkion...

"Hemen zaitugu...", esan zidan. "Atzo ez nuen zugana joaterik izan, katarro txar bat pasa dut"...

Esan nion notak jaso nituela, eta zilarrezko dominatxoa jarri nion esku naban... eta itxi eta estutu egin zuen eskua, eta zerbait esan zuen... ni bere malkoez ardura ez nendin:

"Aitaren eskutitza duzu..."

Hor zetorren treneko txartela erreserbarekin, ordutegia, tren aldaketak, eta Paben egongo zela nire zai... Amonari hau esan nionean, ahapeka esan zidan: "Nik uste dut neu ere joango naizela, izaba Maritxurekin Southamptonera denboraldi bat pasatzera... zuengana joango naiz... zeuek etxea izaten duzuean..."

Ni neu hurrengo egunean irtengo nintzen.

Osaba Rosariok lagundu zidan; osaba Lazaroren familia agurtu nuen; denak, zortzi seme-alabak, emaztea nahiko lanetan haiek denak gobernatzen, eta honen anaia, apaiza, bere otoitzak egiten ari zela... Beharrezkoak izango ziren eta... Eta amona Mertxedes

besarkatzera joan nintzenean, bere betiko agurraren ondoren gurutzea egin zuen eta esan zidan:

"Dena ongi irten dadila, egiozu konpainia amatxori"...

Lehen aldiz zen amona honela zeinatzen ikusten nuela... Zera gogorarazi zidan. Rosa Chacónek Caracasen niri egiten zidan seinalea, izpiritu txarrak uxatzeko ("para ahuyentar los malos espíritus"), eta Adela eta Maria, izeba zahartxoek Santurtzin ekaitz handietan Santa Barbarari babes eske erregutzen ziotena.

Beharbada, geu ere horren beharrean geunden oraindik.

Sei

Goizean goiz irten nintzen.

Osaba Rosariok lagundu ninduen geltokira. Nire osabetan maiteena nuen; ez zen erakuspen handitako gizona; bestalde, esaten zuen guztia iruditzen zitzaidan interesgarri.

Rosariok ezagutzen zuen Gaztelua, nire gurasoekin joan berri baitzen hauen laguntzaile gisa. Bere erara eta gain-gainetik egin zidan deskribapena, nahiko lehorra. Trena abiatu bezain laster irakurri nuen berriz aitaxok bere lehen inpresioekin idatzitako azken eskutitza; gutun euforikoa zen; aita erretratatzan zuen gaztelua bera baino hobeto. Bazirudien gazteluan opor zoragarri batzu pasatzen ari zirela, eta beste gauza batzuen artean zera zioen: "Gaztelua, egiazko gaztelua da!" Hauek ziren bere hitzak. Gero, zelaiak... badakigu: "liluragarriak", "laborea uzta ederraren zai"...

Bat osaba Rosario zen; bestea, aitaxo.

Bordelen tren aldaketa izan nuen, eta ordubete egon nintzen zai Pabera zihoana hartzeko.

Ez dakit bidaia honek zenbat iraun zuen, oso aise joan zitzaidan denbora galsoro handigaitzei eta amaiezinezko mahastiei begira. Aita geltokian zegoen trena heldu zenerako, noski, baina ez bakarrik... gizon txiki bat zuen ondoan, eta berau aurkezteko esan zidan: "Hau Babiano da"... Honek eskua luzatu zidan, eta grazia haundiz esan: "Kaixo, mamusel"... eta maleta nire eskuetatik abiadan hartuz kamioneta antzeko zerbaitera eraman gintuen: aurreko jarlekuak besterik ez zituen, eta atzekaldeko hondarretan ikusi nuenez, eta usain gozoa lekuko, lastoa garraiatzen erabili berria zen... Babianok berez eman zuen azalpena: laguna zuen Renéri eskatu zion trastea nire bila etortzeko; "autobusak ez dira trenarekin bat ibiltzen, eta, gainera, pisua egiten da bidaia 'inbentu' kankailu horretan..."

Eseri nintzen bion artean eta abiatu ginen.

Babiano, eguzkiak kiskalitako larru ilunekoa zen, begi txiki eta beltzak zituen, eta bekaineraino sartua zuen panazko biserazpitik ile beltz eta kizkurra zerion ugari.

Laster utzi genuen hiria, eta basetxeak gero eta bakanago ageri ziren galsoro eta mahastien artean. Batez ere garia zen nagusi! Zera etorri zitzaidan burura, Van Gogh-en pinturekin apaindutako bere biografia bat, neu barnetegian gaixo nengoela Mère Marie Lucie-k eskuratu eta neuk hain gustora begiztatu eta irakurri nuena.

Babianoren ondoan nire aitak gutxi hitzegiten zuen.

Hau joan zen biderakuslearen mintzabidearekin, batez ere niri, berriari, esanez noiz bildu behar zen uzta, eta honetarako gertu zeuden zatiak zeintzuk ziren, zein ederto zetorren mahatsa aurtan... asko galtzen utzi bazuten ere... "E!, jefe?"..., esan zion aitari, eta dena oso berezia zen gaztelera batean, Caracasen egiten den antzera... Gero esango zidan aitaxok Babiano andaluziarra zela, Espainiako herrialde batekoa alegia, eta oso pertsona zintzoa eta langilea... Baina oraindik hemen goaz hirurok nahiko estu Babianok "carlindanga" deitzen dion berebilean, orain jauzika!, eta aitak ohartarazten dit gaztelura hurbiltzen ari garela, eta urrundik ikusten dugu dagoeneko "egitazkoa" den gaztelua,

handia oso, eta Babianok zera dio... sarrera nagusitik sartuko garela, bestea agian ez zaidala gustatuko eta... ("igual no le gusta la otra, Mamusel") hori gero zerorrek esango duzu "Mamusel"... Egon nintzen galdetzeko, zergatik zioen hori, baina ordurako gaztelua hor zegoen, gertu, mendiska baten gainean, eta nire aitak esan zuen:

"Hemen gire!"...

Igo genuen aldapatxoa pinu tantaien artean zihoan bidetik, eta hementxe genuen gaztelua aurrez aurre. Kanpotik filmeetan ikusten diren horietakoa zen, bere lau dorreekin, sarrera nagusia burdinezko ate erraldoia guretzat norbaitek ireki balu bezala, eta orain, barruan, erdiguneko patioan aurkitu ginen; hemendik ikusten zen beste sarrera, eta honen aurrez-aurre gaztelua baino askoz ere berriagoa zen eraiketa laukizuzen bat... eta Babianok gomazko turuta jo bezain laster agertzen dira gure hirurak... eguzkiak ongi beztuta, Ameriketatik ekarritako beltzarana gehitu egin baitzaie hemen abuztuan jotzen duen eguzkiarekin!

Hara bostok gaztelu eder batean!

Gero, aitak, gazteluko lanetarako osaba Lazarok izendatu zuen arduraduna, kapataza, aurkeztu zidan, bere familiarekin. Domingo, gizon heldua zen, nire aita baino zaharragoa; geu bezalako euskaldun exilatua zen, txapela buruan; begi zorrotz eta maliziatuak zituela iruditu zitzaidan. Bere emaztea, Martziala anderea, honela aurkeztu zidan aitak, emakume baju eta sendo bat zen, aurpegi graziatsua eta begi argi eta bizikoa. Seme bat, Donato, hogeiren bat urte, amaren begiak baina sudur luze eta beheko ezpaina nahiko eroria zuen... Nire harridurarako, gizon konkortu bat ere aurkeztu zidaten, Daniel, txapela buruan honek ere, eta ez nion honi begirada ikusi makurdurak utzi ez zidalako. Bazuten beste seme bat ere, nonbait; hau, kanpoan lan egin eta asteburuetan edo noizean behin agertzen zena.

Ia afaltzeko ordua zen, baina hala ere nire bi ahizpek gazteluko zati batzu erakutsi nahi zizkidatela eta eskutik tiraka eraman ninduten berekin. Handia zen hura! Egun hartan niretzako prestatu zuten logela erakutsi zidaten, bi ahizpenaren hurren, eta, azkenik, gurasoena.

Gazteluaren zatitxo bat besterik ez zen erabiltzen.

Atsegin zitzaidan ikusi nuena.

Halere, zeharka ikusi-edo egin nituen gela eta areto handiak hutsik eta desanparatuak, dena hutsa..., utzia!, utzikeria nonnahi... egiatan gaztelu ikaragarri handia zen hura!!

Hunkitua nengoen.

Elkarrekin afaldu genuen denok sukaldeko mahai handi batean, Martziala andereak zerbitzatuta. Oraindik egunak luzeak baziren ere argi zegoen; aitak nahiago izan zuen gazteluaz osorik ikusteko aukera biharamunerako uztea, gazteluaz beraz gainera interesgarriak zirela-eta honi zegozkion lurak, 40 hektarea, eta barrutian bertan baso polit bat.

Oheratzerakoan konturatu nintzen zein lodi ziren gazteluaren hormak, ia metrokoak. Kanpoan bero handia egin arren, gela barruan oso atsegin zegoen. Isiltasuna, osoa zen. Amatxo etorri zitzaidan gabon esatera, eta apur bat nirekin geratu

zen; pozik aurkitzen zen galdetu nionean, zera erantzun zidan: pozik egongo zela "arazoa" osorik konpontzen zenean, "gure etxea izaten dugunean".

Azkenik aitatxo etorri zitzaidan, eta eskatu zidan, mesedez, ez goiz jaikitzeke, oporretan nengoela eta.

Hurrengo egunean sukaldera jaitsi nintzenean gehienak jaikita zeuden, amatxo eta ahizpak ezik.

Martziala andereari galdetu nion, egun onak eman eta gero, ea aita non zegoen; ikuiluan egongo zela esan zidan, eta harako bidean jarri ninduen. Bezperan ikusi nuen eraiketa errektangular hartan zegoen ganadua; untxiak, kioletan; zerri bat ere ikusi nuen, eta ikuiluaren gainean, mandioa, lastategia; oso zutunik zegoen eskailera luze batetik igo behar zen sabaira... Behean ikusi nuen aitatxo... nire bila irten zen, eta presaka! Galdetu zidan ea nondik nora etorri nintzen. Esan nion nondik eta nola.

"Orduan, utzi ieza dazu zerbaite erakusten"...

Irten ginen ikuilutik, eta burdinezko ate batera hurbildu ginen. "Zure ahizpatxoei zirrara handia egin die honek, hara"... patio handiaren erdian hilerri bat zegoen: "Herri guztiarentzat da; norbait hiltzen denean ehorzketa hor bertan egiten da"... Gazteluan hiltzen zenak eta honi zegozkion lurretan edo ingurukoetan bizi ziren nekazariak bazekiten gazteluan biziko zirela denak hil eta gero... Aitak, nire pentsabidearen susmorik gabe gosaltzera eraman ninduen, eta jan eta gero aita eta biok irten ginen inguruko lurretatik ostera bat egitera. Propietatea bera oso handia zen, eta hau bideska eginetatik bakarrik ibilita. Bazegoen geu sartu ez ginen, eta inguratu genuen, baso handi bat ere. Errespetu handia zioten denek inguru hartan... Nire aitari dena ederra iruditzen zitzaion, eta erakusgarria; guztia seinalatzen zidan harrigarri bezala.

"Gaur lainotua dago", esan zidan, "baina garbi dagoenean Piriniotako mendiak ederki ikusten dira!"

Geureak bailiran hauek ere.

Lan gehien egin behar zen garaian heldu nintzen, baina izango genituen gero Babianorekin pasiatzera irteteko egunak. Berau baitzen gazteluaren inguruko mundua ondoen ezagutzen zuena!

Herrixkara joan ginen gero.

Ez zen herrixka izatera iristen: asfaltatuta zegoen bide laburretik bidegurutze batera iritsi ginen, eta han zegoen dendatxo bat; Monsieur Baron-ena zen. Baron jauna zen dendaria, taxista, bizargina eta ehorzlea ere, dena batera. Dendatxo honetan zegoen inguruko telefono publiko bakarra. Denek bere eskuetatik pasa behar zuten, nolabait. Metro batzu aurreraxeago zegoen eliza, txikia, eta aurrez-aurre, eskolatxo. Eta hemendik, kolorezko belauntziak ziruditen basetxe bakan batzu ikusi nituen uhin horiz mugitzen zen irudiko itsaso zabalean. Hemendik pasa zen, pentsatu nuen, Babianoren "karlindanga"... Itzuleran, Monsieur Baron-enera sartu ginen, nire aitak egunkaria erosi zuen eta osaba Lazarori dei bat egin zion Donibane-Lohizunera. Eta "Euskalduna" hotelean esan zioten irtena zela, ez zegoela han! Aitatxori irazkin mikatz bat irten

zitzaion: alegia, etorri geroztik ezin izan zuela osabarekin mintzatu, eta ez zela Lazaro bera, honek agindu bezala, gaztelura azaldu.

Atsekabetua zegoen, bixtan zegoen hori.

"Euskalduna" hotela aipatzerakoan poeta pianojolea etorri zitzaidan gogora; agure gogoangarria, benetan... eta honek osabaz egin zizkidan gorazarreak!

Ostiral batean heldu nintzen, eta dagoeneko igandea zen.

Mezatarara gindoazen bostok.

Babianok zioenez, Martziala anderea gazteluzain gisa agertzen omen zen elizkizunetan... Eta horra, hor zetorren atzetik, soineko politaz jantzia, zituen bitxiak bere gorputzean zintzilik eta distiratsu, buruan mantila beltz eder bat... Itxuraldatua zetorren... eta gure ondoan pasa zen tente eta aurrera zihoan orain elizatorantz segizioa: bere senarra, Domingo, atzetik zuela, eta gero semea, eta azkenik konkorduna, denak lerro-lerro, fila indian.

Ikuskizun polita zen!

Babianok malizia txarrez esan omen zuen behin, gazteluzainari zaldia besterik ez zitzaiola falta Rocío-ko Feria Nagusira joateko!...

Pentsatu nuen Babianok ez zituela asko maite.

Nik neuk diodana da Babianoren graziak ongi deskribatu zuela lauek elizarantz zeramaten martxa. Geu elizatxora sartu ginen atzetik eta erdialdean eseri ginen herriarekin: lehen lerroan ikusi genuen Martziala anderea, soilik, gazteluaren jabeari zegokion Bordele kolorezko tertziopeloz forruztaturiko hiru belaunalkietako batean, nagusian, eta bigarren lerroan eseri ziren konpainia egiten zioten beste hirurak. Elizatxoa erdibetetzen joan zen (jende gehiago ez baitzegoen inguru haietan) eta elizaratuak hizketan, bere irazkinak egiten...

Moto baten zarata handia entzun zen arte!

Apaiza zen.

Arnasesetuka sartu zen isilune berri hartan, sakristiratu zen arineketan eta meza santua "santiamen" batean esan zuen bezain laster... sartzerakoan egin zuen bide bera berregin zuen itzulian presa bizian motoraino... lehertu zen motorraren etxaferoz betetako hotsa eta tximistargi baten gisa alde egin zuen.

Ez zen hau apaizaren zabarkeria, baizik eta ordulaurden bat besterik ez zuela bere ordutegi zerutarrean hurrengo parrokiara iristeko.

Eta alde egin zuen arte ez zen elizan inor mugitu.

Lehendabizi gazteluzaina, bere gortearekin.

Gero, eliz atarrietako berriketaldia... eta Domingok herriko alkatea aurkeztu zigun: adineko gizon handi-borobil bat, bekainak ile luzez beteak; eta bere alaba Kasilda, ia aita bezain handia eta sakristiako eginbeharretaz arduratzen zena, beste gauza batzuen artean; eta gero, herrian Domingok ezagutzen zituen beste gutxi batzu.

Babianok zioenez, tratu gutxi zuen honek herriarekin.

Andaluziarra bidaltzen zuen, nonbait, gazteluzainaren senarrak, kapatazak, udako lanetarako jende bila, herria ezagutzen zuena bera zelako. Auzolana zen hemen ere beharrezko makina garestia txandaka erabiltzeko sistema. Makinaren atzetik ibiltzen ziren taldeak, orain hemen, gero han, jan-edan oparoak medio musika eta gutzi!

Hala, noizean behin gazteluko kemenak beste basetxeetakoekin elkartzen ziren.

Uste dut nire ahizpatxoak basati samarrak bilakatzen ari zirela.

Irenak, bietatik zahartxoena, hamabi urte, lortu zuen Babianoren lagun zen André-k bi katu erregalatzea, eta hauek erabiltzen zituen han-hemenka, zuloz-zulo, bere atzetik. Baziren, halere, hurbiltzen ez ziren zuloak, uste baitzuten xagutxo eta sagu handiz kanpo bazela gaztelu barruan zerbait gehiago... katuek berek ere ikaratuta ihesari ematen zioten parajeak!... Honek kezkatzen ninduen. Bestalde, konturatu nintzen bi neskatalak goizetik desagertzen zirela, askotan kapatazaren seme Donatorekin, eta honek zaintzen zituen behiekin zakurrei agintzen eta ganadua ikuiluraino biltzen laguntzen zietela.

Baina aitatxo kezkatzen ez zuen arazorik ez nion neuk erantsiko.

Ni neu, nire aldetik, pixka bat aspertzen hasia nintzen.

Amatxok ere ez ninduen behar. Batetik, ez zuen otorduez arduratu beharrik, Martzialak egiten zuen eta sukalde guztia; bestetik, amak bazuen zertaz arduratu bi ahizpatxoan soinekoak eta berokiak egiten; tropikotik etorri berriak ziren, uda partean, eta ez zuten orain neguko jantzien beharrik somatzen, baina laster etorriko ziren neguko hotzak, eta gazteluan gainera!... Jostun iaioa zen amatxo! Baina neuk ezin nion josten lagundu, eta nahiko bakarrik geratzen nintzen askotan... Orduantxe aurkitu nuen oso polita zen txokoa: dorre baten oinetako angelu batean eserleku bat zegoen, babestua oso... eta ez zen inoiz inor handik pasatzen, ez zaratarik entzuten... eta goizez eguzkiak xuxen-xuxen berotzen zuen... Hartzen nituen liburuak, Mère Marie Lucie-ren azken oparia, eta eguzkia hartuz irakurtzen nuen...

Aitatxok aurkitu ninduen arte!... ez zitzaion gustatu.

"Zer egiten duzu hemen bakarrik?... Ez zaitut horrela ikusi nahi"... Neu gehiago ireki behar nintzela, ez itxita geratu!... "Mintza zaitetz gehiago gurekin eta ahizpekin"...

Ni neu konturatzen nintzen hori egitea kosta egiten zitzaidala...

Egun batez nire ondoan eseri zen aita, eta esan zidan jakin nahi zuela burutik zer pasatzen ari zitzaidan! "Zer gustatuko litzaizuke egitea?"... Neuk ez nekien zer erantzun, hau da egia, eta zertaz ari zen jakin gabe erantzun nion: "Estudiatzen jarraitu"...

"Eta, gero?, zer egin nahi zenuke?"...

"Medizina estudiatu", esan nion.

Harrituta begiratu zidan, eta esan zidan karrera luzea zela.

"Orduan", esan nion, "Erizaintza"...

Ezetz!, ez zela interesgarria: gainera, hori medikuntzaren lan itsusia zela. Eta neuk, iharduntsu esan nion nolana nahi neuk hurrengo kurtsoa jarraitu nahi nuela... "Hitzegingo dugu hemengo maisuarekin; esan didate irailaren lehen hamabostaldian agertuko dela!" Neu Mère Marie Lucie-rekin idazten nintzen, eta hark esana zidan dagoeneko Ursulineek barnetegi bat bazutela hemendik gertu, Paben, baina orain ez nion aitari hori aipatu nahi izan...

Batzutan, niri konpainia egitearren etortzen zitzaidan egunkariarekin eta nire ondoan jartzen zen. Berrien irazkinak egiten zizkidan, eta nire interesak kontuan harturik, artikuluak markatu, gero neuk irakur nitzan. Asmatu zuen! Egunkariak irakurtzeko interesa sortu zitzaidan, eta egunero errepasatzen ikasi nuen. Denboraldi honetan, eta Monsieur Baron-enera joaten ginenean ere, ez nion inoiz entzun aitari

frantsesez egiten, baina pentsatzen nuen bazekiela, zeren eta egunkaria interes handiz irakurtzen baitzuen...

Nire amari ere ez zitzaion atsegin egoera hura.

Gutxi irteten zen. Beti bazuen eskuartean zerbait, baina bizimodu aspergarria zen, nahiz eta inoiz horrelakorik adierazi ez, aitzitik, beti irrifarre nare batez aurkitzen nuen... Gazteluan ikasi zuen gauza berri bat zera izan zen, gaztak egiten; hau Daniel konkordunak erakutsi zion; gerraurrean artzaina baitzen.

Aitak, bere aldetik, moto bat erosi zuen.

Neuk oroitzapen txarra nuen Caracasen izan zuen motoaz, eta oso urduri jarri nintzen... Gogoratzen dut etxera ambulanzia batean ekarri zutenekoa!... ez zen hainbestekoa gertatu azkenean, baina saihetsezur bat edo beste hautsi zitzaion eta bular guztia bendaje berezi batez eskaiolatuta ibili zen puska batean... Ba oraingo moto hau ekarri zuenean bertan lastategiaren azpian jarri eta dena desmontatu zuen, torloju, dranbal eta guzti, banan-bana erremintaz askatu eta berari zegokion moduan zatika lurrean ordenaturik utzi zuen dena!... Erokeria handia iruditu zitzaidan... apurketa hura! Desmontatu ondoren, nork berriz hura dena eraiki?!... Baina ez nion ezer esan, hain pozik ikusten nuen aitatxo lan honetan, eta geure arduraz disfrutatzen... Ba aitatxok berak montatu zuen dena berriz nire harridura handiz, batere presarik gabe, zulo bakoitza justu bere torlojuarekin estaliz, torloju bakoitzari bere dranbala aurkituz, jostatzen bezala!...

Ibiliko ote zen berriz moto hura?!, eta esan egin nion gainera.

Farre egin zuen, eta asteazkenero azoka eratzen zen Mirande-raino zihoanez, amatxo eraman zuen berekin lehen aldi hartan. Gero, ahizpak joan ziren txandaka, azkenik neroni... Eta, hala suertatu!, inoiz geratu ez zuten nire aita geratu zuen gendarme batek argi bat jan zuela eta, eta motoaren paperak eskatu zizkion... Nire aitak ez zuen batere. Bazuen bere arrazoirik, eta esan zion nire bitartez: Venezuelan ez zuela motoak agiri berezirik behar eta horretxegatik ez zela horretaz arduratu... Esan bezala, hau ez zuen zuzenean nire aitak esan, neuk baizik!, ez baitzuen nire aitak hitz bat frantsesez egiten!; bai, bi esaten zituen: "bonjour" eta "merci"... Eta ez zen hori frantsesez ez zekielako, bazekien, eta ingelesa ere nahiko ondo, baina ez zen ausartzen!, eta ez zuen esaten!!...

Egunero irakurtzen zuen egunkari frantsesa, neuk banekien bazekiela, baina ni erabiltzen ninduen toki ofizialetan itzultzaile gisa.

Halakoxea zen gure aitatxo.

Igande batez inguruetara osterata bat egitera irten ginen biok Babianorekin.

Debekaldia zen, baina Babiano bere botekin eta eskupeta sorbaldan, ohi zuen legez. Ibilaldi hau ez genuen aitarekin neuk egiten nuen modukoa egin. Orain basora gehiago hurbildu ginen. Aitak errespetu handia zion.

Babianok berak esan zuen ez zuela basoa gurutzatzen, sasiz betea zegoela, eta biderik bat ere ez. Errespetu handia ziola... Aitaxok esan zion apustu bat egingo ziola: egun batean biok, aitak eta nik, gurutzatuko genuela basoa Babianok inguratzen zuen bitartean. Beste egun batean izango zen. Etxerantz biok itzuli ginenean esan zidan

aitatxok malizia begietan, garbitu beharko zuela sasia pixka bat, eta brujula erabili!, apustua irabazteko.

Etorri zen apustu ordua, eta guk biok brujula lagun gurutzatu genuen xuxen basoa, eta Babianok itzuliaren erdia egin aurretik han geunden bere zai.

Baina basoa egitan iluna eta ikaragarria zen, animalien orroa, txilio eta hego soinuuz betea!

Egun batez Alkatearen alaba, Kasilda, etorri zitzaigun gauetz egingo zen erromeria baterako gonbidapena egitera.

Larunbatean egingo zen elizondoko plazan.

Nire aitak hori jakin zuenean esan zuen ez zela etxeko inor joango.

Jende hori ongi ezagutzen zuen Babianok, eta esan zuen irainduak sentituko zirela egindako gonbitea onartzen ez bagenien. Eguna iritsi zenean, amak egindako soineko loredun polit bat jantzi nuen, takoi txikiak zituzten zapatak, eta nire ilea askatua utzi nuen atzean.

Zai zeuden ni jaitsi nintzenean.

Aitatxok ikusi orduko aztertu ninduen dena goitik behera, eta esan zidan: "Ilea, bilduta, ez askatuta". Banindoa gorantz hark esana egitera, amatxori begira, jarraitu zuenean: "Eta ez al du soineko diskretuagorik?!"

Neuk egin nuen ilemototsa, eta irten ginen festarako. Dena, zera zen: soinujole bat eta bonboaren antzeko danbor handi bat. Jendea dantzan ari zen, eta mahai batean ardoa, pattarra eta freskagarriak. Gazte guztiak, zeudenak, gutxi, dantzan zebiltzan etengabe, eta pertsona nagusiek eserita inguru txiki bat osatzen zuten.

Han ezagutu nituen Charles, René eta Maurice, hauek irtenarazi baininduten dantzara etengabe. Babianok ere egin zuen dantza nirekin. Konturatu nintzeneko, amatxok eta ahizpek alde egin zuten. Nire aita Babianoren ondoan eserita zegoen, eta bere aurpegia ikustea besterik ez zegoen aspertuta zegoela konturatzeko! Charlesek esan zidan geratzeko, eta berak lagunduko ninduela gazteluraino, eta ni aitari esatera hurbildu nintzaion, alegia, nahi bazuen ni geroxeago joango nintzela, eta nola lagunduko ninduten... Bera ere oso ondo pasatzen ari zela esan zidan!...: "Itxarongo dizut beste bi pieza eta etxeratuko gara", eta maitasunezko begikeinua egin zidan!

Ikusi nuen nola gero Kasilda dantzara ateratzen zuen, bi buru handiagoa bazen aita, eta dotoretasun handiz txorabiratu zuen alkatearen alaba valsaren magia lagun.

Mutilengandik agurtu nintzenean, geratu ginen haiek abisatuko zidatela inguruko beste herrixketako jaiak eratzen ziren arau.

Etxera heldu ginenean, neu aitaxo eta Babianoren erdian, Babianok esan zuen Charles mutil formala zela, aziendaren jabea eta oso ondo hezia. Nire aita, isilik. Eta neuk orduan ilusioz beteta aurrerantzean ospatuko ziren jaietarako gonbidatua nengoela esan nuenean, nire aitak ez zuen hau besterik esan: "Uste dut ezezkoa izango dela, ez dugu jende hau ezertatik ezagutzen; gainera, hemengo nekazaritzan bizi den jendeak ohitura zeharo ezberdinak ditu!..."

Bi egun gero, ni ez nengoen etxean, Charles etxeratu omen zen zaldiz eta nigatik galdetu omen zuen, zaldigainean ibiltzen erakutsiko zidala eta...

Aitarekin itzuli nintzen bi ahizpatxoek berria ozenki asko eman zidatenean... Nire aitari zimurto zitzaien bekaina, eta ez zuen ezer esan, baina Irenek erantsi zuenean gaztea arratsaldean itzultzekotan geratu zela, aitaren aurpegia ilundu egin zen eta aurrez-aurre begiratuaz hauxe esan zidan: "Zaldiketa klaserik, ez". Neuk ez nuen ongi ulertzen. Charles ni baino askoz ere zaharragoa zen, ia hamaika urteko aldea, eta halaxe esan nion aitari, eta erantzun zidan: "Horretxegatik!"...

Besterik ez.

Eguneroko ibilaldiaren ostean egunkariaren bila joaten ginen.

René, Baron-en semea, oso mutil atsegina eta maitagarria zen. Egun batean esan zidan inguruko herrixka batean jaiak ospatzen zirela, gonbidatzen ninduela, eta nire aitari zuzenduta esan zion goiz itzuliko ginela eta berak ekarriko ninduela itzuleran gazteluraino.

Herriko gazte guztiak joango zirela.

Hau zen lehen aldia aitak honelakorik entzuten ziola, eta esan zion: "Merci, René", eta erantzunik eman gabe irten ginen.

Eta etxeko bidean esan zidan amatxorekin hitzegin zuela eta biak bat zeudela, niri on egingo zidala Santurtzin egonaldi bat egiteak, Tasio anaiarekin. Gazteluan asko irabazi nuela, oso osasuntsu aurkitzen ninduela, baina itsasertzeko aldaketa batek on egingo zidala; gainera, honela, anai-arrebok elkarrekin egongo ginela. Tasiok materia bat zuela irailerako, eta honetxegatik ez zuela etortzerik izan oraindik...: "Zer iruditzen zaizu?" Ez nuen jakin zer erantzun; ezin nuen ulertu... hiru aste besterik ez nituen egin gurasoekin, gure aspaldiko helburua!!, eta berriz aldendu nahi ninduten...

Gauetz ezin nuen lorik egin.

Hurrengo egunean aita Mirandera joan zen. Itzuli zenean opari polit bat egin zidan: Ling Yutang-en liburu bat: "Una hoja en la tormenta", aitak berak oso atsegin zuena, eta esan zidan: "Gazteleraz irakurri behar duzu, hizkuntzan askatzeko". Eta Dickens-en liburua zen bestea: "A Christmas Carol", "Ingelesa ahantz ez dezazun."

Poz handia eman zidan. Honek adierazten baitzidan aitatxo nitaz oso arduratuta zegoela; bi liburu hauek ni oraindik Kerroch-en nengoela eskatu zituen...

Hurrengo egunean osteria handi bat egin eta gero itzulian gentozela, nire aita hasi zitzaidan "sentimendu sakonez" mintzatzen... Nire aurretik zihoan, noizean behin atzera begiratzen zuen, neuk jarraitzen nion ikusteko... Neu, bidezidorrera begira nindoan, harrিতuta nengoan, baina hark aurrera jarraitzen zuen. Zera ari zen azpimarratzen, ni adin berezian nengoela, batez ere barnetegiko esperientzia tarteko, baina herritxo batera heldu nintzenean mutilak liluratu nituen, eta hark pentsatzen zuen ez zela egoera delikaturik sortu behar; haiek nekazariak ziren, neuk beste heziketa mota bat nuen, eta haien arteko norbaitekin harremanak edukitzea ez zitzaidan niri komeni. Inoiz behin norbaitekin topo egiten nuenean, egitaz "guretakoa" izatea nahi zuen...

"Etxera, elkarrekin eta 'denok' itzuli behar dugu".

Hau esan zuen azkenean aitatxok, eta orduan konturatu nintzen zer esan nahi zuen!... Eta esan nion, ez zitzaidala burutik pasa ere egin mutil horietako batekin harreman berezirik izatea.

Ez zuen amore eman.
Erabakita zegoen, nonbait, nire Santurtziko bidaia.

Gau hartan ez nuen amatxorekin mintzatzeko gogorik izan, baina biharamunean sukaldean sentitu nuen bezain laster jaitsi nintzen eta esan nion ez nuela Santurtzira joan nahi. Neuk ez nuen hemengo mutilen artean inorekin zerikusirik. Gainera, elkartu berriak ginen... Baina nire aitak hori erabakia zuen, zioen amatxok, ez zitzaion mundu hau niretzat gustatzen, lagunak izateko sasoiaren nengoen, aitak arrazoi zuen, anaiarekin denboraldi bat herrian egitea onuragarri izango zela pentsatzen zuen; gure jendea ezagutuko nuen, aitamek berek izan zuten giroko lagunartea izango nuen; eta, gainera, esaten zidan amatxok, "ez dakit aitak esan dizun, baina zuk estudiatzeko gogoia duzunez, han ikasketak egitea ere izango duzu, hemen ez bezala!"...

Bestalde, nire amak uste zuen laster konponduko zela osaba Lazarorekin zuten diru-arazoa... eta orduan izango ziren askatasunean behin betiko erabakiak hartzeko gai.

Denok behar genuen pazientzia apur bat.

Ulertu nuen amaren puntua ere.

Ikusia zegoen, gure arazo larrien giltza osaba Lazaroren eskuetan zegoela.

Nire aitak hitzegin nahi zuenean, ez zegoen Donibanen. Aspertuta, aitaxok utzi zuen "Euskalduna"n enkargua, hara heldu bezain laster Monsieur Baroni deitzeko, honek pasako ziola mezua, eta berehala aitaxok egingo ziola mintzatzeko deia...

Ikusten hasia nintzen... aitak egiten zuen alferrikako dei bakoitzaren ondoren oso kezkatua geratzen zela.

Hori egin zezakeen bada osabak!!!

Nire Santurtziko bidaiarako gertakizunak azkar.egin ziren.

Aitaxok lagundu ninduen Irungo mugaraino.

Bidean eman zizkidan ohizko aginduak: "Aurki ezazu gure herriaren muina, hain da liluragarria!; neuk hainbeste gozatu dut gazte nintzela bertan! Hainbeste lagun on izan nituen zure garaian... Igo zaitetz Serantes mendira, inguru zoragarria ikusiko duzu..." Bestalde, nahi zuen ni bere ikasketetako lagun bat ikustera joatea, Jose Luis Aldaba kapitaina, egitazko laguna... Ongi irekitzeko begiak, gero itzulian kontatzeko gai izan nendin... Nire aldetik esango niokeen zenbat kostatzen ari zitzaidan une hartantxe urte luzez falta izan zitzaidan familia berriz uztea!!!... Baina...

Mugako zubira iritsi ginenean eta agur esateko unea heldu zenean, aitaxok beti bezala besarkatu ninduen estu, arnasa kentzeraino... eta eskua pasa zidan masailetik eta hain ondo ezagutzen nuen begiradarekin topo egin nuen... distira gabeko begirada triste, betazalak isteko biderdian, eta orain bustiak...

Ez dakit ni joaten ikusteak sortutako tristura zen ala berak hainbeste maite zuen bere herrira joateko bitarte labur hura ibili ezin zuenaren min sakona...

Biak seguraski.

Zazpi

Aitaxok honelakoetan ohi zuen bezala, nire bidaiaz aurretik izeba zaharrei idatzi zien, baita Tasio anaiari ere, noski.

Pentsatzen zuen, eta arrazoi zuen nik uste, anai-arrebok elkarrekin egoteak on egingo zigula; batetik, neuk herrian herriaren erakertasuna errazago sentitzeko, Tasio giro horretan bizi baitzen aspaldi, eta, bestetik, anai arteko senidetasuna bera indartzeko. Orain, Ursulinetan egin nituen irakurketak egin eta gero, esan nezakeen garai honetan nire aitaxo erromantiko bat zela; baina neuk ez nuen sailkapen honetan zentzu txarrez sartzen, baizik eta batez ere klasifikazio honen alderdi onari begiraturaz, herria eta familia eta hauen baloreen haria gorde eta goraiatzeko asmotan; ez egia zientifikoa, burukoa, gaitzesteko, baizik eta bihotzari bere-berea duen lekua aitortzeko.

Aitaxo hobeto ulertzen nuen orain lehen baino.

Gazteluko gertaerek ere erakutsi zidaten zerbait; gure gurasoek onena nahi zuten guretzat.

Asmo eder hau biziki onartzen nuen, noski.

Nahiz eta bidaiaria hau buruz egitea asko kostatzen zen.

Santurtzira heldu nintzen bezain laster izebengan jo nuen, bost urte aurretik igo nituen zurezko eskailera zabalak ezagutzen nituen, eta Adela eta Maria gogoan nituen. Honek ireki zidan atea; musu beroak eman nizkien, eta neuk haienak gozoki jaso; xaharkituagoak aurkitu nituen, baina beti bezala maitasuna zeriela.

Familia guztiaren berri galdetu zidaten, eta Adela ahapeka esan zidan: "Beltzak maiz bisitatzen gaitu"!...

Harritu nintzen! Aitaxo gertuago zegoen, hara!!

Eta oraindik zai dago...!!

Adela nire anaiaren mezua pasa zidan berehala: neuk etorri bezain laster Austiña eta Anas-enera joateko, han zegoela nire zai. Neuk maleta bertan utzi nuen... Joan nintzen. Etxe batetik bestera, bi minutuko bidea. Bigarren bizitza zen hemen, eta izeba Austiñak ireki zidan; nire amonaren ahizpa zen, baina ez zuten elkarren antzik; hau adinez gazteagoa bazen ere, loditasunak ibilera mantsotu zion, eta nire amonaren ondoan zarpaildua aurkitu nuen. Pozik hartu ninduen, noski; Anas ez zegoen etxean, eta "Herederoa" (honela deitzen zioten Tasio nire anaiari) zerbaitetara irten behar izan zuen, baina berehala itzultzekotan.

Parkera ematen zuen behatokitik ikuspegi ederra zuten, kaia gertutik ikusten zen; etxebizitza txorikailaz eta lorez sabairaino betea zegoen! Txorien kantek ez zioten izebari neuk esandakoak entzuten uzten; gortua ere bazegoen, noski!, eta Tasioren gela erakutsi nahi izan zidan, etxean zuten ederrena: bi armairu zituen eta biak ireki zizkidan ikus nezan anaiaren jantzi-arasa, "señorito" batena, janzki asko, dena xuxen-xuxen atondua. Ez nuen neuk han, bestalde, lan egiteko mahairik ikusten, liburu bakar bat ere ez agerian! Galdetu egin nion, ea Tasio estudiantzen aritzen zen, eta esan zidan izeba xaharrak: "Askok!". Baina ohean irakurtzen omen zuen ikasi behar zuen guztia!... Maitasun handiarekin hitzegiten zidan Tasioz, baina erabili zuen "bihurri" hitza, eta

"errebeldia" zela ere esan zuen... otorduetarako orduak batere errespetatzen ez zituelako kezu zen; Anasek ezikusia egiten omen zuen, eta "ezentzuna" ere bai, eta berak ukatzen zion dena ematen zion gizonak isilpean; kezu zen horretaz ere. Senar-emazteen gelara joan zen Austiña aurretik niri eskua hartuta eta zera erakutsi zidan bertan, pertxa batean hiru gona dilindan, nire aurrean zabaldu zituen ohe gainean eta kontu handiz zerbaiten bila jarri zen... parrez!... algarari ezin eutsirik!!...:

"Hara zer egin zidan behin!"... eta zulo biribil handia erakusten dit gona bakoitzean, neurri bereko hiru zulo... Ez nuen ulertzen... "Ikus ezazu zer egin zidan neu eserita siestan lo nengoen batean... nire giltzak kentzeko, eta dirua, noski!, bizarra egiteko hoja batekin! hiru jantziak ebaki zizkidan banan bana patrikeraraino!!"...

Neuk ez nekien izeba gaixoari zer esan, eskandalizatua nengoen, eta lotsatua!...

Baina izeba zaharrak berak eman zion arazoari amaia: "Hain da eztitsua, eta hain da handia bi zaharroi egiten digun konpainia!"

Honetan giltza soinua entzun nuen atean, eta Tasio zen... Nire anaia gizondua ikusi nuen. Neu baino askoz ere gehiago hazi zen! Eguzkiak kiskaldua zegoen, udako hain dotore jantzia, eta nire ahizpa Irene bezain berritsu, baina etorri eta grazia helduagoekin, noski. Maitekorki besarkatu ninduen, estu, eta gero lotsagabe arakatu ninduen goitik behera!...

Lotsarazi ninduen arte.

"Hara neuk berrezagutu behar dudan beste bat!"..., esan nuen nire kolkorako.

Ez nintzen araketa honetatik ongi irten; hasteko, esan zidan: "Ilea moztu behar zenuke, eta aurrean kopetilea utzi; kopeta handiegia duzu! Beno, eta zer plan dakarzu?"...

Neu mutu geratu nintzen. Ez zidan hitzegiteko denbora asko utzi ere... "Zaharrak nahi du geu elkarrekin egotea, baina hobe da zeu izeba Adela eta Mariarekin geratzea, izango dugu denbora elkar hartuta planak egiteko... Orain osteratxo bat emango dugu... Austiña, afaritara etorriko gara beti bezala, OK?", eta bi musu handi eta zaratatsu eman zizkion izeba Austiñari.

Irten ginen eta esan zidan lagunekin plana zuela, eta aurkeztu nahi zizkidala... Bidean, gurekin gurutzatzen zen guztia agurtzen zuen. Bazirudien herri osoa ezagutzen zuela! Aitaxori gustatuko zitzaion neuk hau esaten nionean! Tasio etengabe aritu zen bar batera iritsi ginen arte, eta hemen lagunak banan bana aurkeztu zizkidan; neuk, zoritxarrez, ezin izan nuen aurpegi onik jarri, ezin bainuen haien ardo eta zigarro usaina jasan!... Urdaila nahastu zidan, nahiz eta pertsonalki denak begiko iruditu. Hasi ginen, harrezkero, tabernatik tabernarako gurutz bidea egiten, eta bakoitzean gauza bera...

Ezin nion sainduralerio hari zentzurik aurkitu...

Lehenengo geltokian anaiak behartu ninduen zerbait eskatzera, eta neuk... "baso bat esne", esan nuen. Ez nuen eskaera ahoskatzen amaitu, nire anaiak eskuarekin bere bekokia jo eta etsipenaz sabaira begira esan zidan ahopez belarrira:

"Nondik zatoz, arreba?"

Aurpegia gorritu zitzaidan!, eta gaizki sentitu nintzen.

Neure buruari egin nion promesa ez nintzela tabernabide hau egitera gehiago etorriko... Eskatu nion Tasiorekin goiz eramateko izeben etxera, goiz oheratzen zirela eta... Hala, haserre, eta Anas eta Austiñarenera afaritara joan gabe, tabernako ateraino

lagundu eta esan zidan: "Beno, ez dizut etxeraino lagunduko, hemen ez da inor galtzen, bihar elkar ikusiko dugu"...

Eta hala alde egin nien.

Oheratzerakoan eguneko azterketa egin nuen, eta nahiz eta nahigabetua egon, nire anaiaren moldaketaz pentsatzen farre egin nuen..., Austiñaren antzera!... Ez zuen bere kreol azentua galdu, neuk sekula entzun ez nituen hizjarioak, gehienak gordinak, erabiltzen zituen, eta graziarekin, inguru guztia farrez eduki nahi balu bezala...

Bere seme bakarrarekin asmatu zuen aitatzok: herrira ongi egina zegoen!

Poztuko al zen hala ere?

Hurrengo goizean beti bezala jaiki nintzen. Bi xaharrak aspaldi jaikiak ziren, eta nire zai bezala, neu bainintzen nobedadea! Adela, amonaren ahizpak, elizarako irten behar zuen, eta esan zidan Maria esnea berotzen jartzen ari zela, misterioitsu:

"Beltzaren enkargu bat egin behar dut bidez...", eta alde egin zidan, eskandalu handi, ezkutu eta isil batez... eta joan zen abiadan, mezarik ederrena galtzeko beldurrez balihoa bezala... Mariari ez nion nire estuasuna eta haserrea pasa, eta, honen orde zera galdetu nion... ea izeba-osabetara joateko ordu ona zen, eta erantzun zidan han ere oso goiz jaikitzen zirela. Hala, gosalongoan jantzi nituen galtzak et brusa polit bat eta Tasioren bila joan nintzen.

Bidean, laburtxoak pentsatzen jartzeko, esan nituen bakoitzak beretzako laburki esan ohi dituen garrantzi haundiko gauzak... ea zertan zebilen osaba Lazaro politikako arazoetan, hau baitzen fama!, izeba zahartxoaren lasaitasuna eta pakea arriskuan jartzen!... Egun eguzkitsua zen, itsas aldetik apur bat lainotua bazegoen ere; Serantes-era igotzeko egun egokia iruditu zitzaidan; hala, aitaxori inpresio gehiago emango nizkion gero idazterakoan. Heldu nintzenez, Austiñak esan zidan "herederoa" lo zegoela. Hor sartu nintzaion gelara; pertsianak jaitsita zeuden eta gela ilunbean..., hurbildu nintzaion ohera eta deitu: "Tasio, Tasio, hemen nago... berebiziko eguna egiten du"... Nire anaia ez zen mugitu. Hasi nintzaion berriz... Eseri egin zitzaidan ohean, ertireki zituen begiak eta ordua galdetu zidan...

"Zortzi t'erdiak dira"...

"Joder!, hau gauerdia da niretzat!... Nora zoaz garai honetan, esan..."

Neuk pertsianak jaso nituen; esan nion gustatuko zitzaidakeela Serantes mendira berarekin igotzea. Begiak igurtzi zituen, begiratu zidan seriooki eta esan zidan:

"Beno, ikus dezagun, zer galdu zaizu zuri Serantes putu horretan?"

Esan nion aitarena: hortik ikusten zena zoragarria zela...

"Zaharra, berea zen belaunaldian geratu da! Neu Serantesera behin igo nintzen, eta ez naiz gehiago itzuli!"

Anaiak aita aipatzeko "zaharra" hitza erabiltzen zuenean, eta orduan bertan!, halako inpresioa egin bazidan, Venezuelen hitz honi ematen zaion zentzu gozomaitagarriarengatik zen: "viejo" esaterakoan "laguna", "maitea" esaten da. Eta grazia ere egiten zidan Tasiok behin eta berriz erabiltzen zuenean... ez bainuen urtetan entzun!... Orduan anaiak hartu eta ohean eser arazi ninduen, eta grazia handiarekin hasi zen niri aginduak ematen: "Nik ez dakit non gordea eduki zaituzten, arreba, baina asko ikasi

behar duzu. Hara, beha ondo jendeari eta egin ezazu ahalegina haien berdina izaten, eta ez zaidazu egin gauza arrarorik, estrainiorik, atzo tabernan baso bat esne eskatzea bezala. Ez baduzu ardorik edaten, eska zazu baso bat ur, errefresko bat, baina esnerik ez! Badirudi neskatzak biberoiaren falta nabaritu duela!..." Eta irri egin genuen biok... "Hara, aurkeztuko dizkizut zure adineko gazte batzu, eta beha ezazu ongi nolakoak diren, nola mugitzen diren, nola mintzatzeko, nola janzten, zeren eta egiaz Frantzian egongo zinen, eta beharbada gauza asko ikasi duzu han, baina modatik landa aurkitzen zaitut!"...

Nigar egiteko gogoan nuen!

Ezin jaikierazi izan nuen, eta esan nion Serantes mendira nindoala...

"Orduan gauean ikusiko gara, zazpi t'erdietan, plazan, gaur valtseoa dugu"... Orduan eskatu nion nire bila etortzeko, zail egiten zitzaidan itsua bezala bere bila ibiltzea, ez bainuen inor ezagutzen. Eta berriz errepikatu zidan: "Hemen ez da inor galtzen, hau sudurzapitxo bat da... zazpi t'erdiak arte"... Etzan eta burua estali zuen.

Serantesera bakarrik igo nintzen; ez zitzaidan asko kostatzen, aitarekin gazteluan ibilaldi luzeak egiten ohitua bainengoen. Gora heldu nintzenean, eseri nintzen eta arakatu nuen handik ikus nezakeen guztia. Ez zitzaidan beste munduko ezer iruditu; esan bezala, lainoa zegoen, orain Barakaldo aldetik zetorren eta kolore guztiak apaltzen zituen... Behar bada kea zen lainoaren erdia!... Mendiaren altuera ez zen handia, eta nire aitak "Rompeolas"en domezina ikusten zuen itsasoa, neuk bare eta patxadan ikusi nuen.

Itsasora begira, behean sumatzen nituen kebiduen gainetik arnasa garbi-gozoa sartu zitzaidan biriketaraino.

Hau aitatzok ere sumatu zuela esan zidan.

Bestalde, hasia nintzen pentsatzen, egitan, neuk ez nituela inoiz aitatzok bere lurrean ikusi zituen mirariak ikusiko. Ez nekien zergatik; behar bada neuk lur hau, nire aitaren eta amaren lurra, bereziki nire bezala sentitzen ez nuelako. Neuk Ameriketako, Venezuelako, oroitzapen ederrak nituen... Baina, bestalde, oroipen zoragarri hauek nire guraso eta anaia eta ahizpekin, eta Rosa Chacón indiarrarekin ere lotuta zeuden; hasia nintzen, bestalde, amonarekin izandakoak gogoratzen, barnetegia ere nire munduan zegoen dagoeneko... baina pentsatzen hasia nintzen nire aitak zituen egitazko erroak ez nituela neuk inoiz nire bezala ezagutuko... Eta hark ere ez nireak...

Serantesek funtsezko zerbait erakutsi zidan, beraz.

Dezepzio hau ere nire barruan zegoen dagoeneko.

Aitatzok dela medio.

Arratsaldean nire anaiaren bila joan nintzen.

Egitan, ez zitzaidan Tasio aurkitzea asko kostatu. Talde handi bat osatzen zuten, eta anaia berehala etorri zitzaidan; zai zegoen nonbait!, eta hasi zen nesken aurkezpenak egiten; ni baino nagusiagoak zirela iruditu zitzaidan, gehienak mutilekin oso ongi moldatzen ziren behintzat. Anaiaren esanetara jarriz, aztertu nituen... eta iruditu zitzaidan ez nuela horien antzekoa izaterik inoiz lortuko... bekaineko ileak bipilduta

zeramatzen ia hari baten lodiera utzi arte, gero aurpegia dena pintatua, ileapaindegiko lan handiak, belarritako luzeak eta gona oso estuak... Hala ere atseginak iruditu zitzaizkidan. Tasioren besotik zintzilikatzen ziren eta honen graziakin farrez lehertzen. Geratu egin nintzen alditxo batean ea nola dantzan gozatzen zuten, eta sirimiri egiten hasi zuenez atera zituzten aterkiak, ez dakit nondik, eta jarraitu zuten...

Neuk une hura aukeratu nuen alde egin eta etxeratzeko.

Ikusia zegoen asko kostako zitzaidala talde horretan sartzea nire izaera galdu gabe, eta nire aitaren esanetan hau zen neuk gehien zaindu eta gorde behar nuena.

Hau zen bada, herrira bere izaerak jasotzea etorri eta galtzeko arriskuan jartzea...

Egunero idazten nuen gaztelura, familiari egindako bisitak kontatzen, baita Bilboko aitona-amonengana egina ere, nola hartu ninduten, eta luzatzen nintzen nire aitari neuk ikusi eta sentitutakoaren azalpenak ematen..., eta, barka, aitaxo, baina gezur batzu bota nizekizun hemen ikusten nituen gauzak zein politak ziren asmatzean eta zein ederki pasatzen ari nintzen esatean... Pentsatu nuen gero, aurrez aurre, egitazkoak emango nizekizula...

Neuk bere aurrean egon nahi nuen guzti hauek pasatzerakoan.

Eta asmo berdinarekin utzi nuen idatzi gabe, noski!, osaba Lazaro hona egiten ari zen bidaien berria ere.

Idazten ez nuenean, herriko bisten postalak bidaltzen nituen, aitari memoria piska bat argi ziezaioten... bere oroitzapenekin gonbara zitzaizkan!

Joan nintzen, agindu bezala, bere laguna zen Aldaba Kapitainagana.

Bilbon bizi zen, eta garai hartan lehorrean zeramatzen permisoarekin hilabete batzu; esan zidanez, aitaxo bisitatzea joateko asmotan zen. Nire aitaren lagunik onena zen nonbait, eta zerua zabaldu zitzaidan esan zidanean berarekin itzuli nahi banuen pozik eramango ninduela. Ustekabeko poza!... Eman nion izeba zaharren bizilagun baten telefonoa, hara dei zezan eguna erabakitzen zuen bezain laster.

Uste dut itzulia egiteko bidea zehaztuta ikusi nuen bezain laster hobeto sentitzen hasi nintzela herrian.

Zergatik ez zen Tasio gurasoak ikustera etortzen, gero, joan-etorrian, Aldabarekin itzultzen bazen ere!?

Burutik pasa zitzaidan, hain gauza erraza!

Eta esan nion; ez zitzaion gustatu... Beste baterako uztea nahiago izan zuen, eta honen ordeztu, Tasiok bere lagun guztiakin zuen bazkari batera gonbidatu ninduen neu joan bezperan. Eta joan nintzen, oso talde handia bildu zen beraien arteko baten urteurrena zela eta; jatetxe batera joan ginenean. Arratsaldeko ordubietan eseri ginenean mahaian, eta seietan oraindik eserita geunden eta berriketa berean! Gero, Zirkulo Katolikora joatea erabaki zuten, eta han, mutilak kartatan hasi ziren (konturatu nintzen dirua jokatzeko ari zirela!) eta neskak partxisean jarri ziren.

Aspergarria iruditu zitzaidan.

Gero, Tasiok zioen bezala, valtseoa zegoen plazan, eta neuk hemen ere asperraldi handi bat jasan behar izan nuen.

Konturatu nintzen Tasiok dirua maneiatzen zuela, eta erraz gastatzen, hala iruditu zitzaidan..., eta hurrengo egunean ausartu egin nintzen anaiari gurasoak zer pasatzen ari

ziren esatera: nola ekarri zuten diru gehiena osaba Lazarori prestatu zioten, eta honek itzuli zai zeudela etxetxo bat erosteko...

Ez zitzaion ezer gustatu:

"Neuk ez dut bidaltzen didatena ere gastatzen"...

Eta irten egin zitzaidan: "Baina ez dizute dena gastatzeko bidaltzen!"

"Gainera", erantsi zuen anaiak, "Austiña eta Anasek behartu egiten naute bere kabuz jarri zidaten paga hartzera!", eta amaitu zuen haserre: "Euli hil bat ematen duzu, eta horrez gain Levi-ren tribukoa zara!"

Eta handik aurrera "Levi"rekin geratu nintzen, gehienetan maitekiro esaten bazidan ere.

Tasiok ez zuen estudiatzen; hau argi zegoen, noski. Baina formalki esan zidan falta zitzaiona irailan aterako zuela. "Eta, zergatik ez ekainean?", galdetu nion. "Gero eta zailago jartzen dute..., eta, gainera gauza bera da, honela lana banatuta errazago egiten zait".

Zergatik ez zen aitaxo nire anaiatz gehiago arduratzen? Ez nuen sekula gazteluan ikusi...

Zergatik izan behar ziren kezka guztiak niretzat?!

Gero eta bakartiago irteten nintzen herrian.

Egia zen han ez zela inor galtzen. Egiluztarrekin arrantzara joan nintzen; txalupak zituzten nire amonaren lehengusuak ziren; askotan gonbidatu ninduten eta pozik joan nintzen. Aitaren etxean biltzen ziren eta hogeitamar inguru biltzen ziren anaiarteko familiekin, batzu bilobak zituzten.

Pozgarria zen hango izpiritua; hau izango zen aitaxoren ametsetako bat... Lagundu behar nion egia bihur zedin.

Bere lagunak deitu zuen, larunbatez irten nahi zuela esanez. Lau egun besterik ez ziren falta. Izeba Adela atsekabetu zen: "Zure aitak esan zigun irailaren azkena arte geratuko zinela gurekin". Agindu nion, orain maizago etorriko nintzela, baina nire ikasketen arazoa konpondu behar genuela, eta maisua han lehen hamabostaldian izango zela.

Tasio poztu egin zen, nik uste; ez zen nitaz gehiegi arduratu, baina beretzat karga bat izan nintzen, beharbada bere ohituretako batzu utzi egin behar izan zituen nire erruz...

Niretzat oso pozgarria izan zen, gurasoei biziko nintzen, familiaren arazoetan parte hartuko nuen, eta, azkenik, osaba Lazarorekin zuten arazoa ongi amaitu zela segurtatu nahi nuen!...

Aldaba ostiral gauean etorri zen nire hila, neuk bere etxean lo egitea nahi zuen biharamunean goizean goiz irteteko.

Deitu nuen telefonoz Monsieur Baronen telefonora, eta eskatu nien gurasoei enkargua emateko: biharamuneko arratsean helduko ginela.

Halaxe irten ginen kotxez Hendaiako mugarantz; dagoeneko Hendaiako trabak lasaitu ziren, eta hemen bai, erabili nuen nire pasaporte, seilurik jarri ez bazioten ere. Bidaian sortu ziren isiluneetan ahalegindu nintzen Santurtzin izan nituen inpresio guztiak gogoan hartzen aitaxori denak egiaren argitan kontatzeko.

Zortzi

Gaztelura heldu ginenean nire aitak laguna zirrara handiz hartu zuen. Biak zeuden hunkituta. Besarkatzen ziren behin eta berriz, eta elkarri begira geratzen ziren. Aldabak nire aita baino zaharragoa zirudien; txikiagoa zen, lodikotea, eta burua soiltzen ari zitzaion.

Gela, geure solairu berean prestatu zioten.

Amatxok maneatu zuen afaria, eta bakarrik afaldu genuen; Domingo eta bere familiak, Babianorekin, bereiz.

Aitatxo oso pozik sentitzen nuen.

Uzta amaitua zegoen, eta inguruko lurrak osorik aldatuak aurkitu nituen, dena muskildua zegoen... lurrak, zanpatuak; hilagoak eta zurbilagoak; eta ez zen lau aste besterik lekutu nintzela!... Ez dakit zergatik, baina usaina ez zen hilarena, halere, lore zimelena baizik, eta gozoa... ogi-labearen inguruko lurrina gogorarazten zidana.

Oso pozik sentitzen nintzen nolabait nirea bilakatu zen etxean; etxea, niretzat, familia baitzen!

Aitari sukaldea jasotzen laguntzen ari nintzela esan zidan berri asko genituela; neu kanpoan egon nintzen bitartean gauza asko gertatu zirela... "Bihar hitzegingo dugu... joan zaitezte ahizpok ohera goiz, gaur Aldabarekin geratuko gara amatxo eta ni berriketan."

Nire aitak oheratu aurretik alabak ohean agurtzeko ohitura zuen, bere gaueko adioa bekokian emandako musua izaten zen; neu zai egon nintzen berandu arte, baina beranduago oheratu ziren haiek, nonbait, ez bainuen sentitu.

Hurrengo goizean beti bezala jaiki nintzen. Babianorekin aurkitu nintzen sukaldean. Galdetu zidan ea aitak niretzat zuen sorpresa erakutsi zidan. Ezetz esan nion, eta berak: "Orduan ez dut neuk ezer esan", eta irrifarre maliziati batekin irten zen.

Aita, bi ordu geroago jaitsi zen.

Zai nengoen, noski...

Esan zidan bere lagunari erakutsi nahi ziola propietatea. "Nahi baduzu, etor zintezke gurekin"... Eguraldi freskoa egiten zuen, baina oso argia, zerua oso goien. Gosaltzen zuen bitartean lagundu nion mahaian, hizketan, eta irten egin zitzaidan!...: "Babianok galdetu dit ea niretzako duzun sorpresa erakutsi didazun". Irrifarre egin zuen, gosaria bertan behera utzi eta bere gelaraino eraman ninduen. Amatxo oraindik ohean zegoen. Hanka punttatan hartu zuen pakete luzetxo bat eta nire gelara joan ginen. Han, neu aiduru nengoela joan zen paketeari paperezko azala kentzen... niretzako erregalia karabina bat zen! !

Harri eginda geratu nintzen!...

"Babianok lortu du, zuretzako berezia da, ez du ezer pisatzen, munizio txikia botatzen du..." Neuk ez nuen ezer ulertzen!... "Baina, aita"... eta ez zitzaidan hitzik irteten... Zer egin behar nuen nik karabina harekin?... ni Babianorekin irten eta tiro

egiten zuen bakoitzean danbatekoa nire urdailean sentitzen bainuen!, ahoa txistuz betetzen zitzaidan esturaz, eta oilo-ipurdia egiten zitzaidan zakurrak zekarren eta oraindik bizirik zegoen ehizari biziaren taupadak somatzen nizkionean...

Aitatxok aurrera jarraitu zuen ni neu urduri nengoela ikusi arren:

"Neuk nahi dut zeuk honekin tiro egiten ikastea; Babiano konforme dago zuri erakusteko; ikusiko duzu nola arian-arian gustatuko zaizun. Aldaba laguna hemen dagoen bitartean beraz arduratu behar dut, baina joaten denean, biok joango gara ehizara!

Aitari inoiz entzun nion zentzugabekeriarik handiena iruditu zitzaidan.

Gainera, ez nuen inoiz aita tiro egiten ikusi!

Berriz sukaldera jaitsi ginenean, Aldaba hor zegoen. Aitak bere abizenez deitzen zion, Aldaba; karrera egiten ari zirenean, Joxe Luis asko zegoen, nonbait, eta Aldaba bat bakarra; bestalde, nire aitari, bere izenez, Endrike, deitzen zion.

Gosaltzen amaitu zutenean irten ginen.

Aitak, "luzea" deitzen genion ibilaldiaren bidea hartu zuen. Laster hasi ziren biak hizketan. Ni atzetik, baina une batean, aurrera gindoazela, konturatu nintzen nitaz ahaztu egin zirela. Nire aurrean esango ez zituzketen hitz batzu esan baitzituzten!... Noizbehinka geratzen ziren, eta neuk tartea gordetzen nuen. Bidea askotan ez zen nahikoa zabala bientzat, eta orduan bata bestearen atzetik joaten ziren, inoiz atzera begiratu gabe... Nire aitak jakin nahi zuen nola ikusten zuen Aldabak herriko egoera, zeren eta neu Santurtzin egon nintzen tarte horretan bere hiru arrebak etorri baitziren bisitara eta liluratuta utzi zuten, eta haserre!, haiek aipatzen zuten egoera ekonomikoarekin...: milioiak hemen!, milioiak han!, dirua barra-barra zebilela egia zen beraz!... Aitatxok erabili zuen "satisfechas" hitza... Aldabak eman zion bere bertsioa: bai, Francoren errejimenaren bidetik zebiltzanak ondo bizi ziren, eta beste arazo larri asko ahaztuz...

Aitak ezin zuen sinetsi!, eta gai hau hitz hauekin erabaki zuen:

"Dirudienez, jende batzuk etxetik irten gabe egin dizkitek Amerikak, eta egiten ari dituk oraindik!... Lurrik gabe geratu naizela sentitzen diat... eta seme-alabak sustrai gabe! "

Eta errebeldia zerion bere ahots lehorrari.

Ez dut uste aita lagunari lur hau erakusten ari zenik, baizik eta bata besteari konfesatzen ari ziren. Aitatxok hitzegin zion bere proiektuez, eta baita osaba Lazarori egindako maileguaz ere... Lehen aldiz entzun nion diru mailegu hau "inportantea" izan zela esaten, eta atsekabe handiarekin hitz egin zion Domingo kapatazaz; Babianok kontatu zionez gauza estrainio asko ari zen gertatzen gazteluko administrazioan... Eta Babianori, behien erditzeak zaintzen egoteko aitzakiarekin, ez ziotela gaztelu barruan lo egiten uzten, baina Babiano bera ziur zegoela gazteluan kapataza eta konpainia egiten ari ziren lapurreten lekukorik nahi ez zutelako zela!... Gaez batzutan etortzen zela kanpoan lan egiten zuen semea kamioneta batekin, eta bertan eramaten ari zirela apurka apurka balio zuen edozer... Gaztelua hustutzen ari zirela!!

(Eta egia zen, neuk jakin nuen hau: aitaxok berak ikusi zituen goiztirian kargak gaztelutik atera eta zamatzen, batzu handiak, kuadro, kandelabro eta abar; konkordunak egiten zituen gaztak ere eramaten zituzten... Eta, gainera, herritarrak ziren! (Babianok "zuen paisanoak" deitzen zien!)... Hau zen tristea.)

Aldaba isilik zihoan, noizbehinka harriduraren adierazpenak eginaz.

Hain zen arazo delikatua...

Eskatu omen zizkiola kapatazari liburuak, kontuak, eta Domingok esan omen zion ez zizkiola emango nagusiaren baimenik gabe... Nagusia bere koinatua zen, Lazaro, eta honek hitz bat ez!... Izan zutela aitaxok eta Domingo kapatazak aurkaketa bat, eta harrezkero familia bakoitzak bere aldetik jaten zuela...

(Honek esan nahi zuen, pentsatzen nuen neuk hori entzuten ari nintzela, ni orain etorritz gero ez genuela aparte jaten Aldaba hemen zegoelako bakarrik... Hau izango zen aitaxok esan nahi zizkidanetako bat.)

Ni atzetik, eta nire aita neu ez banengo bezala hizketan...

Esaten ari zitzaion Aldabari, Lazaro, koinatua, gaztelu hori erosi zuenez gero ez zela honeratu, eta kapataz hau ari zela guzti honen jabe egiten... Babianok zioenez, Lazarok laguntza modura lan truke jana eta zigarroetarako behintzat izan zezaten bidaltzen zituen exilatu euskaldunak, beti eskuzabala baitzen euskaldunekin, baina kapatazak berehala jartzen zituen lanean beste nonbait, gaztelutik kanpora...

Halako batean nire aitak esan zion lagunari "gizon peligrosoa" zela kapataza.

Gero, isildu egin zen aita.

Eta laster hasi zitzaion Aldaba bereak, bere arazoak, kontatzen: ba, berak zerbait aurkitu nahi zuela lehorrean, gero eta gehiago kostatzen zitzaiola itsasoratzea. Semeak ez zitzaizkiola ikasketetan langileak irten; emazte ona zuela, baina ez ziela gogor egiten, nahi zutena egiten zutela, eta itsasotik itzultzen zenean ezin zuela egoera hori indarkeriaz zuzendu.

Tristura handiz esan zituen hauek.

Aitaxok gaiari helduz galdetu zion bere semea, Tasio (neuk hemen jakin nuen aitaren aginduz Aldaba anaiari jarraika zebilela) nola zebilen. Bere profesoreek esan ziotela mutil argia zela oso, distiratsua ere, baina aprobatarekin konformatzen zela!... Nire aitak ezin zuen ulertu. Han, Ameriketari, gauza bera gertatzen zitzaion!... Pentsatzen ari zela ez ote zuen oker jokatu adin harekin Europara bakarrik bidali zituenean!... "Baina ez nian Ameriketari geratu nahi, badakik hori, han lurreratu nintzenetik amestu nian itzuleraz; ez diat ezer herri haren kontra, noski, baina hura ez duk nire lurra, nire jendea! Itzuli behar diagu, ez dik gure egoera politiko alu honek beti iraungo!... Neuk beti jakin diat itzuliko ginela... Eta nire alabatxo hauek... Nik nahi nuena huen hemen formatzea eta errotzea...

"Hara zer gertatzen zaidan alaba zaharrenarekin: azken urte hauetan, ez zekiat distantziak zerikusirik duen, barnetegia edo dena dela, osorik aldatua aurkitu diat. Bazirudik lehen zuen espontaneitate gozo hura dena kendu diotela; arduratua nauk, ez duk normala bere adinean orduak eta orduak liburu batekin eserleku batean eserita egotea! Bazirudik, hitz egin aurretik asko pentsatu behar duela, eta ia gaztelera ahaztu ere egin zaiok!"...

Geratu egin nintzen..., eta han joan ziren ni neu hain gertu nengoela ohartu gabe, nire begiak malkoz betetzen ari zirenean, negar-zotirik gabe, isilik... ikusi nituen urruntzen, eman nuen buelta eta arineketa itzuli nintzen gaztelura.

Bihotza eztarrian sentitzen nuen.

Nire aita dezepzionatu nuen!

Eta neuk uste izan nuen ahalegin guztiak egin nituela haien ardura saritzeko!... Aitaren iritzia ez zitzaidan justua iruditu, eta errebeldia handi bat sentitu nuen barruan.

Babianorekin gurutzatu nintzen, eta esan zidan: "Mamusel, badut denboratxo bat libre, hasiko al gara lauretan? Kapitainak (orain honela deitzen hasi zitzaion aitari) esan dit goizean eman dizula karabina txikia. Ez al da polita?". Irrifarre egin nion. Ama bilatu nahi nuen, baina... zer esango nion?... Igo nintzen nire gelara, eta gutun batzuk idazten jarri nintzen; tristeak irten zitzaizkidan denak: amonari, Marie Claire eta Mère Marie Lucieri.

Bazkaltzerakoan aitak galdetu zidan goizean zer egin nuen.

Ahaztu egin zitzaion ni bien atzetik abiatu nintzela. Eta hobe. Esan nion eskutitz batzu botatzera joan nintzela Baronenera, eta semeak esan zidala Lycée Agricole-n hasten zela bigarren urtea datorren kurtsoan. Astelehenero joaten zela, eta ostiraletan itzuli. Neu ere inskriba nintekeela.

Eta nire aitak erantzun zidan:

"Barnetegi gehiago ez!... Gainera, seguraski ez gara hemen geratuko. Egon zaitetz lasai. Hemengo maisuarekin hitzegingo dugu datorren astean".

Babiano bostak aldean etorri zen nire hila bere eskupetarekin, aita Aldabarekin kotxean irteten ari zen puntuan. Neu joan nintzen nire karabinaren hila, oraindik probatu gabe ere gorrotatzen nuena, eta baso aldera eramanez ninduen nire profesoreak. Heldu ginenez aukeratu zuen lekura, eta enbor lehore baten gainean jarri zizkidan patrikeratik ateratzen zituen lau lata txiki.

Ordenak ematen hasi zen modutik pentsatu nuen Babiano soldaduskan sentitzen zela, behin esan baitzidan kabo izatera heldu zela!: "Ea, ikus dezagun... eskupeta, besagainean ondo finkatu behar da, honela"... eta bere eskupeta pasa zidan, ez nire txikia; "kargatua dago, noski! Lata txikiari desta, eta katuari eman!... Jo! Tiro!..." Halaxe egin nuen. Ez dakit norantz irten zen tiroa, neu eserita geratu nintzen! Babianoren irriak!... Bisera kentzen zuen burutik, ilea arraskatu eta berriz hasi ginenez, orain nire karabinarekin, eta orain neronek kargatuta!... behin eta berriz, nekatu nintzen arte eta pototo txikia behin ere jo gabe.

"Zuhaitz batetik zintzilik jartzen dudana botila tiroz lehertzen duzunean bukatuko dut nire lana!", esan zidan.

Ariketa militar hauek jarraitu genituen Aldaba joan zen arte, eta ez astebetez, hasieran pentsa bezala, biz baizik.

Aita nire lanaz zenbat arduratzen zen, Babianoren bidez jakin nuen gehien.

Babiano, maitagarria zen. Grazia handiarekin hitzegiten zuen. Neuk oso ondo pasatzen nuen harekin. Bere lurraz mintzatzen zitzaidan: ia nire adineko alaba zuen, Dolores zuen izena, bere amak bezala. Hauetaz hitzegiten zuenean "mis Dolores" esaten zuen. Behin galdetu egin nion, ea nola heldu zen gazteluraino. "Kapitainari gertatzen zaion antzera, baina diferente!, ezin naiz itzuli, baina itzultzen naizenean, eta Jainkoak Osasuna ematen badit, ni salatu ninduen putasemearen etxeari su emango diot!"

Eta bi hatz gurutzatuta mun egin zuen, promesarako.

Arratsalde batean aitak telefono zenbaki bat eman zidan eta Baronenetik osaba Lazarori deitzeko eskatu zidan. Hor zegoen! Pasa nion mezua: aitak bera ikustera joan nahi zuela; konforme, zioen osabak, joan zedila igandean, betiko lekura. Arineketan itzuli nintzen aitatxori berri ona ematera. Aitak erabaki zuen Aldabaren bidaiaz baliatuz joango zela larunbatean Donibane-Lohizuneraino.

"Ni joan al ninteke zurekin?", galdetu nion.

"Ez, alaba, joan zaitez datorren astean maisuarenera, eta konpon ezazu ahizpen eskolaratzea, eta ea zer esaten dizun zure eskolabideaz. "

Aitatxo eta Aldaba ostiral batez irten ziren, ostera bat eman nahi zuten banandu aurretik. Aldabak agur egin zidanean, bere etxea eskaini zidan neuk nahi nuenerako, eta osaba bat bezala tratatzeko, nire aita eta biak anaiak bezala zirela eta.

Zintzo esan zidala iruditu zitzaidan.

Aita joan zenean, amatxorekin hitzegiteko aukera handia izan nuen. Babianorekin nituen klaseez kanpo, ez nintzen irteten orain ostera handi haiek egitera.

Jakin nuen ama ez zegoela pozik.

Ahizpentzat negurako jantziak josten ari zen bitartean, makurtuta, niri asko begiratu gabe, bere inpresioak ematen joan zen. Arazoa lehenbailehen amaitzea nahi zuen. Leku hura ez zen guretzat. Nekazaritza ez zitzaion gustatzen. Gurea zen etxean kokatua ikusi nahi zuen familia, neskak behar den bezalako eskoletan. Bizitzen ari ziren egoera hura hona ekarri zituzten proiektuetatik hain zen diferentea!, eta irten egin zitzaion: "zoritarreko baietza nire anaiari diru mailegu hartarako eman geniona, hain estutua ikusi nuen!"... dena ahapeka esana. "Gainera, pentsatu beharko dugu Tasiorekin zer egin"... Hau zen bere beste buruhaustea. "Egoera honek jarraitzen badu, uste dut Santurtzira bueltatxo bat eman beharko dudala... Anas eta Austiña oso pertsona onak dira, baina hain xahartuak biak!..."

Neuk uste izan nuen aita igandean itzuliko zela, baina ez zen heldu; amari esan nion, ea nahi zuen neuk telefonoz Donibanera deitzea... "Hobe izango da bere gauzak ongi egiten uztea; gainera, aitak hango egonaldia luzatu behar badu, deituko digu Baronenera.

Astehenean ez nuen Babiano ikusi, bestetan bezala.

Kapatazaren semearekin, Donatorekin, gurutzatu nintzen, eta galde egin nion, ea ikusi zuen. "Gaur astelehena da", esan zidan, "putetara joango zen eta mozkorra pasa zai

egongo da ohean"... Arratsaldean ere ez zen agertu nire bila. Amari esan nion: "Ez ote da hobe ikustera joatea?"... Amak lagundu ninduen. Esan nion behean itxaroteko, egurrezko eskailera hura oso zutika zegoen. Gora heldu nintzenean, beste mundu batera berraldatua sentitu nintzen... Babianoren "gela", lastobalaz inguratua zegoen lastategiko hutsarte bat zen... bero egiten zuen, eta usain berezia somatu nuen berehala... leiho txikitxo bat besterik ez zegoen, hilerrira ematen zuena, hain xuxen; ezer gutxi ikusten nuen, begiak iluntasunera egin zitzaizkidan arte... Belarrez betetako flaskoak kolore berdeskako likidoarekin, eta ihartzen zintzilik jarrita zeuzkan belar sortatxoak nonnahi... Babiano etzanda zegoen ohekutxa batean, bularra estali gabe, marroi koloreko zapitxo bat erdian zuela... eta banda antzeko zerbait zuen bekokian jarria... Deitu nionean ez zidan erantzun; hurbildu nintzaion eta arnastua sumatu nion, ikaratu nintzen eta amari deitu nion goitik, igotzeko kontu handiz, mesedez... Amatxo hurbildu zen bezain laster esan zuen: "Gizon hau gaixo dago, eta sukarra du!... Joan zaitez eta ekar ezazu aitaxoren maletina"... Jaitsi nintzen berehala eta itzulian arineketan igo nintzen. Amak jarri zion termometroa, 40ko sukarra zuen. Sendagaien artean bilatu zuen antitermiko bat... "Aitak, hemen balego, jarriko lioke injekzioa!... Bestela, hobe izango da lau ordu barru sendagileari deitzea"...

Itzulian, Donatorekin aurkitu ginen berriz, eta amak galdetu zion zein sendagileri deitu behar genioken.

"Hori berez sendatzen da beti belarrekin, biharko berria bezala dago!... ez da lehen aldia..."

Ez ginen lasai geratu. Joan ginen tarteka, eta likidoa harrerazi genion pittinka. Amak sukarraren aurkako beste pastila bat eman zion, eta lau orduetara erantzun zigun esanez hobeto sentitzen zela. Jaiki nahi zuen bere enplasto haietako bat prestatzera, eta amatxok esan zion berak prestatuko ziola; halaxe egin zuen... Hango usaina garratza zen, zerbaiten hartxidurarena zirudien. Berria jartzeko lehen zeukan txaplata kendu zionean, izututa begiratu zidan... haragi bizitan zeukan!

Arratsean Baronen semea etorri zen mezua ekartzera: aita biharamunean helduko zela.

Pixka bat lasaitu ginen.

Hark sendatuko zuen berehala; luzea egin zitzaigun egonaldia; hainbesteraino, sarrera nagusira joan nintzen eta bertan eseri, zai. Luzatu zen, bai; azkenean taxi batean heldu zen; igo nintzen eta esan nion bidean Babianorekin zer gertatzen zen. Heldu bezain laster hartu zuen bere maletina eta igo ginen biok; lehen gauza, sukarra hartu zion, oraindik goien zegoen, gizona hobeto sentitzen bazen ere. Prestatu zuen injekzioa, eta esan zion, belarria bular gainean jarri eta gero, uste zuela bronkitisa zela; ohean eseri behar zuen pixka bat, arnasa errazago har zezan.

Babiano ikaratua zegoen, ez zuen injekziorik nahi, ez zioten inoiz jarri. Nahiago zituen belarrak... Aitak ez zion erantzun, saiheska jarri zuen eta hau konturatu zenerako zizta egin zion. Sartua dago!, esan zion aitaxok, baina likidoa sartzen hasi zenean hasi ziren istiluak... ez zen mugitzen, baina ero bat bezala hasi zen garrasika: "Ya, Capitan, ya!!" Aitak esan zion sei ordutik behin etorri zela. Eta sendagilearena joan beharko zuela!

Itzuli ginen gaztelura, eta aita, oso haserre!

"Gizon horrek gazteluan egon behar luke, eta ez hor, animalien modura. Hainbeste leku hemen!... Eta, gainera, arrisku handian bizi gara denok, noiznahi su har dezake lastategiak, Babiano bertan erre, animaliak ere ez lirateke bizirik aterako.

"Ea orain gauza batzu aldatzen hasten diren!"

Ez zuen gehiago esan, etxera sartzen ari ginen.

Aita pozik itzuli zen.

Osaba Lazaro ez zegoen "Euskalduna"n igandean, baina hor utzi zuen enkargua, itxaroteko. Aldabari mugaraino lagundu zion, eta inbiri handia eman zion barrura zihoala ikusteak... Hau esaterakoan, niri irten zitzaidan, askotan bezala: "Eta zergatik ez duzu menditik pasa eta herrira itzuli bat egiten?"... "Hara!, osabaren familiakoa irten zaizu alaba!"..., esan zuen beretzat bezala, baina amatxok ere entzun zezan... eta jarraitu zuen... "Lehen ere badugu nahiko buruhauste bestetan sartu gabe!... gainera nire gurasoak hilko nituzke nahigabez... Eta zertarako? Lagunak ikustera joaterik ere ez nuke izango, eta ezin herrian lasai osterata eman ere... Ez, dena helduko da bere bidetik.

"Gauzek aldatu behar dute, ikusiko duzu"...

Gero, amari eta niri pasa zigun bere itxaropena:

Pentsatzen zuen abendurako dena erabakia egongo zela; irailean ginen, beraz hiru hilabete besterik ez ziren falta. Kontsulatuan onartua izan zen "Podere" bat firmatu zion Lazarok; hau lortzarren luzatu zen pixka bat; hala, aita kapatazaren kontuak ikusi ahal izango zituen, eta bazekarren, bestalde, gazteluko inbentario osoa!

Bihar bertan hasiko zen hau egiaztatzen.

Astebete behar izan zuen Babianok sendatzeko, eta gazteluan betiko alaitasunarekin agertu zen. Ahaleginak egin zituen aitatzok sendagileagana joan zedin, baina alferrik izan zen, "banderilei" esker sendatu omen zen.

Aitari maisuarekin hitzegin nuena pasa nionean, eta ez nuela beragandik laguntzarik jasotzeko modurik izango, esan zidan ez horretaz arduratzeko, hau abenduan konpondutakoan aurkituko genuela aurrerantzerako beste bide bat. Neu ez nengoen erabaki honekin pozik, baina aita Aldabarekin hitzegindakoak etorri zitzaizkidan burura, eta ahalegin handia egin nuen aitaxori irrifarre goxoa erakusteko.

Ahizpatxoek laster hasiko zuten kurtsoa, gogo handirik gabe, noski.

Biharamunean goiz jaiki nintzen, beti bezala. Nire aita dagoeneko sukaldean zegoen, eta baita Martziala anderea ere. Elkarrekin gosalduratu genuen biok eta begikeinu bat egin zidan, neuk zertaz zen asmatu ez banuen ere. Irten ginen. "Inbentarioa egiten lagundu behar didazu", esan zidan. Eta itxaron genuen denak, Martziala anderea ere bai, uztako azken auzolanetara joan ziren arte. Oso lan zehatza egin genuen. Zatika. Aurrena, kapera txikia; ez nintzen inoiz sartu, oso zen polita, zoragarria!: erretaula simple bat zuen, eta zati bat falta zitzaion; Gurutze Bideari lau Pasio-irudi falta zitzaizkion; kandelabro guztiak falta ziren, eta bi imajina: bat, San Juanena, eta bestea, Amabirjinarena, eskulturak, noski. "Ondo hasi gara", esan zuen aita... Hala joan ginen saloi eta gela guztiak ikusten; komodak eta eramateko handiegiak ziren mobleak

besterik ez ziren geratzen; gainerantzeko ispilu, kinke, kandelabro eta kuadroak ere desagertu ziren.

Kapatazaren geletaraino sartu ginen, lauak giltzaz itxita zeuden.

"Hauetako bat biltegi edo almazen bezala erabiliko dute", esan zidan aitatzok, "hemen joango dira gauzak sartzen, hemen enbalatzen, eta semea kamionetarekin etorri arau eramaten dituzte gauez... hau lotsagarria da, geure muturren aurrean ari da gertatzen hau guztia!"...

Babianok arrazoi zuen! Amatrixori kontatu genionean ez zen harritu.

"Ikusten da jende txarra dela; geure jendea bada ere"... esan zuen pena handiz, "hau da Lazarok hauengatik egin duena ordaintzeko modua!

"Baina errua berea da, noizean behin ez etortzeagatik!"

Nire aita umore txarrean zegoen eta esan zuen aurki ekaitza sortuko zela gazteluan... Serenidade handiarekin eskatuko zizkion orain, Lazaroren ageria eskuan zuela, gazteluko kontuen liburuak. Borrokaren bat sortuko zen bildurra zuten gurasoek; Domingoren begiradek ez zuten besterik iragartzen!

Baina gauzak argitu behar ziren lehenbailehen...

Hurrengo egunean nire aitak egiaztatu nahi izan zituen neuk karabinarekin egindako aurrerapenak. Niri bildurra sartu zitzaidan. Joan ginen arratsaldean Babianorekin betiko lekura eta hasi ginen ohizko zeremoniarekin: "Kargatu! Destatu! Tira!"... Lehenengoa huts egin nuen, baina beste hirurak jo nituen! Nire aita zirraratuta zegoen. Hurrengo egunean ohol lodi batekin agertu zen, kleraz egin zuen marra bat, eta esan zidan arrasto horretatik behera botatzeko, eta honelaxe jarraitu genuen tabloi guztia tiroz markatu nuen arte. Aitak, harriturik, egiaztatu zuen nire munizioak ohola alde batetik bestera zulatzen zuela... "Ondo!", esan zuen, "asko aurreratu duzu"... baina Babianok erantsi zuen:

"Mamuselek apunteria ona du, baina latak eta egurrak ez direnei tiratzeko adorea falta zaio. Untxi bati tirako al zenioke?!", galdetu zidan, eta irri egiten zuen gustora.

Goiz batean, oso goiz, kanpanotsak entzun nituen; harritu nintzen; asteartea zen, eta kanpai haiek mezatarako, meza iragartzeko, besterik ez ziren erabiltzen. Babianorekin aurkitu nintzen behean eta esan zidan: "Gaur hila dugu... (Hoy tenemos muerto) Etorri dira zuloa egitera; esan diot kapitainari"... Nire ahizpak eskolara joaten hasiak ziren, eta aitak ez zuen honelako zerbait ikusterik nahi, aise hunkitzen baitziren, batez ere Irene. Ahizpak eraman, eta Baronenetik egunkariarekin nentorrela ikusi nuen hila zekartela. Zerraldoa, beltzez margotutako kaja arrunta zen, eta zaldirik ez eta esku-karroan zekarren alkatearen alaba Kasildak, eta maldatxora heldu zenean atzetik segizioan zetozen batzuk lagundu zioten, hilerrira heldu ziren arte.

Nire aita eta Babiano ikuiluan zeuden, zeremoniala ikusten; dena azkar egin zen, apaiza eta lurperatzailearen artean minutu batzu besterik ez zuen ehorzketak iraun.

Babianok irazkina egin zuen, ez zitzaiola Frantzian hiltzea gustatuko. Jende honek gauzak serioegi egiten zituela... "Neuk, nire herrian nire erdi-familiako egiten denaren

etxea erre, eta nire bi Dolores-ek eta herriko musika-bandak lagundu ondoren... esan dezatela: 'Hor doa Babiano... Genio y figura hasta la sepultura'... Eta ahal badute, bota dezatela suziri bat"...

Nire aita isilik eta serio zegoen, eta bapatean ahopeka esan zuen, beretzat bezala, askotan ohi zuen legez: "Neuk nahi nuke geure lurtean gertatzea, seme edo alabaren bat ezkontuta ikusi eta bilobaren bat ezagutu eta gero"...

Bitartean segizioa itzulian zihoan karroaren atzetik; orain hain hutsa eta arina... haur batek zeraman olgetan.

Bederatzi

Irailaren erdialdea zen nire ahizpak eskolara joaten hasi zirenean.

Lehen ikusi ditugu nire eskutik joaten.

Eskolatxo, eliza aurrean zegoen, gaztelutik hamar minutu oinez. Aita eta biok joan ginen ahizpekin lehen egunean. Irene, garai hartan hamabi urtekoa, beldurrik gabe eta berez zihoan; Pilartxo, hamarrekoa, bere aitaren eskutik eta pixka bat izututa zirudien. Hain politak ikusten nituen amatxok egindako amantalekin! Aitak ongi prestatu zituen gauzak: bakoitzak bere maletintxo zeraman koaderno eta lapitzekin; eskolan emango zizkieten liburuak. Maisuak esan zigun ahaleginak egingo zituela frantsesez hitz bat ere ez zekiten haur horiei laguntzeko, nahiz eta hura soilik nekazal-eskola bat izan, eta unitarioa, beraz, adin guztietako haurrak ikasgela berean zeuzkan...!

"Behintzat", esaten zidan aitak itzulian, "diziplina apur batera egin beharko dira".

Egunak pasa, eta gero eta kexa gehiagorekin zetorren etxera Irene: "Ez dut ezer ulertzen"... "Maisu horrek marikoa dirudi... uste du neuk egun batetik bestera idatziko dudala frantsesa!"... Eta koadernoak estreinatu gabe zetozen oraindik. Ez genuen aintzakotzat hartzen, ezin baitzen besterik egin, eta gauzek honela jarraitu zuten denboraldi batean. Pilartxo, beti errazagoa, zerbait kopiatzera saiatzen hasia zen, baina Irenek ez zuen ahalegin apurrik ere egiten.

Etxerako lanik, ezta pentsa ere!

Eskolatik heldu bezain laster irteten ziren arineketan gazteluko inguru zabaletara, ordurarte itxita zigortuak egon bailiran. Neuk gertutik ezagutzen nuen egoera hura, eta pentsatzen nuen barnetegian ere ez zutela horiek ezer ikasiko... Egun batez joan nintzen ahizpen bila bostetan, eta hirurok gentozela ikuilu aurrean ikusi genuen Donato bere behiekin zelaitik itzulian zetorrela, eta ni ohartu aurretik Irenek, eskuak ahoan bozgorailu gisa jarrita deitu zion ozenki: "Donato güebon!... fils de puuuuuuute!" Gazteari gorritu zitzaion aurpegia eta arineketan alde egin zuen... Haserretzen hasi nintzen Irenerekin!, baina haurrak moztu zidan bidea: "Atzo tititxoak ukitu nahi izan zizkidan!"... Izutu nintzen: "Ez aitaxori ezer esan, eta ez gehiago horrengana hurbildu"...

Baina nire aitak bazekien hori, Irenek berak esan omen zion.

Udazkena aise ari zen sartzen, hozten ari zen. Hasiak ziren berriz lurra goldatzen; horretan ari zen Babiano traktorearekin; uzta garaian bezala, oraingoan ere txandaka erabiltzen zuten. Harrigarria zen lurra iraulita, gorria, ikustea; baziren buztin kolorekoak, gero lehortuaz argitzen direnak; baita beste bakan batzu ia beltzak zirenak ere, denak karratu eta laukizuzen handiak. Nire aitak ere harridura handiz jarraitzen zuen lurraren aldaketa.

Ez zen nekatzen "urtaroen xarma" goraiatzeko!

Gogoratzen naiz goiz batez, azaroa zen, sukaldera jaisterakoan, beti bezala oso goiz, Martziala anderea eta Domingo kapataza, bere senarra, mahai gainean zegoen zerbait irakurtzeko ahaleginak egiten ari zirela. Mahaian neu esertzen nintzen lekuan jarria zegoen irakurgaia; neuk egunon eman bezain laster beste zerbait egiten jarri ziren biak, eta neuk irakurri nuen ongi ezagutzen nuen nire aitaren letra txikia... ingelesez!: "B.M.

Erregina gaixo dago. Eginkizun guztiak, etenak." Eta behean: "Lagundu ahizpei eskolaraino, ekarri gosaria 9:30ak jo eta gero. Vieuxchateau Jauregian, goizeko 4:30" (Her Majesty the Queen is sick, all activities cancelled. Help your sisters to school. Bring breakfast after 9:30. The Vieuxchateau Palace, 4:30 in the morning. The Secretary, Endrike Gorosabel.)

Nire aitak beti ezustean harrapatzen ninduen!

Eraman nituen ahizpak eskolara. Itxaron nuen 9:30ak arte, eta atondu nuen erretilua amatxoren gosariarekin. Gelara sartu nintzenez aita oraindik oheratua zegoen. Ahapeka esan zidan amak gau txarra pasa zuela, gripea zela uste zuela eta pastila bat eman ziola. Bitartean, erretilua hartzen ari zitzaidan... eta gero amaren gosaria jan zuen. "Ez dut uste likidoa baino gehiago hartuko duenik", esan zidan. Halaxe izan zen. Ama kongestionatua zegoen, gorputz guztian zuen min eta doministikuka ari zen. Eta esan zidan: "Nahiago dut bazkaria zeuk prestatzea, ez diot jende horri mesederik zor nahi!"...

Eta halaxe sartu nintzen lehen aldiz otordua prestatzera.

Amaren esanetara jarrita egin nituen gauzak. Martziala andereak bazekien bada ama gaixo zegoela, baina ez zen ezertarako eskaini. Babianok jakin zuenean, laster zen etxean untxi larrutu batekin, eta esan zidan nola egin behar nuen... baina hala ere berak ekin zion lanari; gero joan zen bere gelara, xortatxo bat belar ihar ekarri zidan, eta nire aurrean ongi xehetu eta saltsari erantsi zion esanez: "Hau da ehizari grazia guztia ematen diona".

Aita ohean geratu zen ama gaixo sentitu zen denbora guztian.

Ez nuen ulertzen. Berak zirudien gaixoa. Amak argitu zidan hau bakarrik geunden tarte batean: beti hala egin zuela, eta ez zekiela egitaz ondoeza kutsatzen zion ala bere konpainiarekin lehenbailehen senda zedin egiten zuen.

Egun batez zeru behe eta haizetsua argitu zuen, zuhaitzak biluzten hasiak ziren eta egun horretan euria bezala zetozen orri ihartuak zurrumbiloan... lurrean tapiz eder bat ehotzen zutela. Eguerdian ahizpen bila joan behar nuen, eta ordua heldu zai nengoela lehertu zen neuk espero ez nuen ekaitz ikaragarria. Trumoi hots izugarriak gazteluko isiltasunean! Ama oraindik oheratua zegoen eta aita hura zaintzen..., ez ohe barruan orain, baizik eta janzen zen, gelatik irteten zen noizbehinka eta oheratzen zen berriz, beti amaren ondoan!... eta dei egin zidan, aterkiak hartzeko... Baina konturatu nintzen aterkiak ez zuela ezertarako balio, aitzitik, hirurok osatzen genuen txalupatxoari oihala goratzea bezala izango zen, haizeari indar handiagoz bultzatzeko aukera eskaintzea... Neroni belauntzi banintz bederen!... Nire ahizpa zaharrena, Irene, irten zen atetik eta neuri ezertarako denborarik eman gabe, izututa oihuka joan zitzaidan!...:

"Azkar, lurrikara dator!!"...

Ahizpa txikiarekin etxeratu nintzenerako erantzi eta ama eta aitaren artean oheratua zegoen!...

Nire aita ari zitzaion, lasaitu nahian... "Hemen ez da lurrikararik izaten Caracasen bezala, ez zaitez beldurtu... Gainera, gaztelu honetan!, hemen ez da ezer mugitzen..."

Baina arratsalde hartan ez ziren eskolara joan!

Aste horretantxe, gogoan dut, aitari entzun nion esaten gazteluko kontuak ikusi behar zituela. Eta, zera, aitaren ahotsari beldur kezka bat nabaritu nion... Neuk nuen beldur hori. Nire ama sendatzen ari zen eta hasiak genituen berriz aitaxok eta nik osteratu luze haiek; eguraldi ona egiten zuenean bakarrik, noski, eta gero eta maizago irteten zitzaion "A, zer hotza!"... Neuk utzi nion eserleku bakarti hartara joateari, eta gero eta gehiago egoten nintzen amarekin. Bakarrik geundenean beti lelo bera: "Hau ez da guretzat, eta bi txikiak gero eta basatiago daude!"...

Hilabete besterik ez zen falta abendurako.

Osaba Lazarorekin mintzatu behar genuen; ama, egunak kontatzen ari zen. Neuk jarraitzen nuen amona Mertxedesi idazten, orain Ingalaterrara, (gaztelura jaitsi nintzen bezain laster irten baitzen amona bere alaba txikiagana, ezkonberria orduan), amonak berak erantzuten ez bazidan ere, baina honen ordean izeba Maritxuk idazten zuen; Marie Claire eta Mère Marie Lucie-k bai, erantzuten zuten, eta honek, irakurtzeko liburu zerrendak ere bidaltzen zizkidan.

Abenduaren lehenengo egunetan hasi zen aitaxo geuk okupatzen genituen geletako tximiniak pizten. Denbora asko pasatzen genuen etxebarruan. Suari begira nengoela hartzen ninduen loak; banekien aita pasako zela sua itzali zela egiaztatzerara, eta beti bezala bururaino estaltzen ninduen! Babianok eta konkordunak elkarren artean moztu eta prestatzen zuten sutarako egurra. Enborrak basotik ekartzen zituzten idiekin, lastategiaren azpian zatikatzen zituzten trenka-zerraz bien artean, bat mutur bakoitzean jarrita. Lanean ari zirela ustekabean zerra alde batera joan zen, gehiegi nonbait, hala uste izan zuen Daniel konkordunak..., eta honek labaina atera eta Babianoren aurka bota zuen... eta andaluziarrak zori handiz txiri egin!... "zoratu al haiz, kabroia?!", esaten zion, eta zuri-zuri eginda iheska irten zen gaztelurantz, eta hemen nire aitari esan zion gertatua.

Horrelaxe ari ziren gauzak jartzen.

Eguzkia egiten zuen egun batean ehizara joan ginen aita eta biok Babianorekin.

Ni, neu karabinarekin... Amatek barre egiten zuen ehiztarien antzera jantzita ikusten ninduean: zira handia, bota altuak eta lana berdez amatek berak ehotutako negukoa buruan belarrietaraino hartzen ninduela. Babianok mugitzen zen guztia botatzen zuen. Nik gaizki pasatzen nuen honelakoetan. Aitak bere eskupeta eramaten zuen baina ez zuen inoiz ezer akatu, bota. Eta osteratu amaitu genuenean, hala esaten zuen Babianok: "Ez da ehizan aritzeko apunteria ona bakarrik behar, beharrezkoenak zerak dira... 'agallas', edo hemen dioten bezala: 'les couilles'..., barrabil borobilak"...

Hurrengo egunean, ez nire ez amari deus esan gabe, aitak liburuak eskatu zizkion gazteluko kapataza zen Domingori. Lehenbizi ukatu egin zizkion nonbait, osaba Lazaroren agindurik ez zuelako, baina oraingoan Lazarok berak idatzitako agiria erakutsi zion, eta besteak eman behar izan zizkion. Aita jarri zen bere gelako mahaian eta kontuak ikusten hasi zen. Ez zuen ezer esaten. Gu zai, baina aita isilik...

Egunak egin zituen honela.

Goizean goiz nire aita gosaltzera jaitsi zenean berekin zekartzen liburuak. Ni esnea edaten ari nintzen Domingo sukaldera sartu zenean. Aitak liburuak luzatu zizkion, eta esan:

"Dena oso ongi, dena zure alde! Hemen uztarekin ez dira gastuak ordaintzen ere!, behiek ez dute ezer ematen, lurrak ere ez, eta zuetako bakoitzak soldata osoa kobratzen du eta gainera zigarroak ere kobratu egiten dituzue!!"... Domingok "redios!" handi bat bota zuen, hartu zuen eskuinarekin bere txapela burutik eta bota zuen lurrera amorrur handiz, jauzi bat egin zuen aidean eta ikuiluetarantz irten zen... Bere emaztea, Martziala, bere atzetik sukaldara sartu zenez han ikusi zuen komeria hau dena ezer esan gabe, eta gero gizonaren atzetik joan zen.

Aita eta biok bakarrik geratu ginen. "Hara herritarrekin!", esan zuen, "lapur hutsak!!", aita oso haserre zegoen... "Eta, gainera, Babianori esan ziotenez, bera eta konkorduna kapatazaren kontura ari ziren lanean, eta kontuetan Lazaroren kontura jarriak zeuden!

"Lazarorekin mintzatu behar dut berehala!!"

Amatxori hau bere gelan kontatu nionean, ez zen batere harritu; beretzat bezala esan zuen:

"Ai!, nire anaia hori"...

Eguberri inguruan zen hau, ahizpak oporretan zeuden eta aita hasi zen Donibanera telefonoz deiak egiten. Aitak presa zuen, gero eta gehiago... Hango egoera halakoxea zen. Lazaro ekarri nahi zuen bertora, baina ez zuen telefonoz ere harrapatzen. Lortu zuen batean agindu zion bazihoala... esan nahi dut, bazetorrela, eta gu zai, egun osoak, baina ez zen agertu.

Aitak ez zituen gure Gabonak zapuztu nahi, eta esan zuen egun hauek pasatzen utzi eta gero irtengo zela bidaiari.

Oso Eguberri goxoak pasa genituen, denok elkarrekin... Anaia Tasio falta bazitzaigun ere, eta ez dakit oraindik zergatik!... Baina niretzat hauek ziren lehen Eguberriak guraso eta ahizpekin; amorra..., bai, honen hutsa sentitu nuen! Postatxartel asko bidali nituen!, eta beste hainbeste jaso genituen gutxienez, Caracasetik, Ingalaterratik, Santurtzitik, aitaxoren familiak Bilbotik..., Marie Claire-k eta Mère Marie Lucie-k... Eta joan nintzen denak tximini handian zintzilikatzen! Hotz zegoen kanpoan eta Pirinioetako mendiak zuri eta eder-handi ikusten genituen, eta gau hotzak gure inguru guztia zuritu zuen!

Ahizpentzat harrigarri izan zen...

Giro eder honetan geundela heldu zen aita arratsalde batez Baronenetik, osaba Lazaro ikustera zihoala!

Bere gelara deitu zidan. Amatxo ehotzen ari zen. Eta esan zidan niri ahapeka... hobe zela amatxorekin Donibane-Loizuneraino jaistea. "Bihar goizean irtengo gara, eta baliteke etxetik kanpora gau bakarria egitea; baina nahi dut zeuk hemen ahizpekin lo egin dezazun, atea itxita, giltza kenduta; hemen jarriko dizut koltxoi bat", lekua erakutsi zidan atearen aurrean... "Ekar ezazu zure karabina"... Ez nuen ezer ulertzen!... Amatxorekin itzuli nintzanean, kleraz markatu zuen marra horizontal bat atean eta esan zidan:

"Sumatzen baduzu atea ireki nahi dutela, tiro egin marra honetatik behera!"...

"Baina, aita"...

"Zuk nire esana egin ezazu... Dena kalkulatu dago, etortzen bada, zuk tiro egin, marratik behera, belaunetik behera joko duzu, eta gauza gutxi egingo diozu... gogoratzen zara oholari nola tiro egin zenion?..., ba ate honen lodiera berekoa zen!"...

Ni goitik behera ikaratu nintzen!!

"Aita, baina!"...

Baina nire aitak ez zidan jarraitzen uzten:

"Jende horretaz ez naiz batere fido! Edozer gauza egiteko gai dira... Badakit esaten dizudana egingo duzula, eta gu lasaiago joango gara agindua beteko duzula hitzematen badiguzu"...

"Zergatik ez dizut neuk laguntzen, eta amatxo hemen utzi"...

"Amatxok ez daki tiro egiten, eta zuk bai"...

Eta honela jarraitu genuen puska batean, eta niri txistua egiten zitzaidan ahoan, ez dakit zergatik...

Bitartean, amatxo bidaiareko boltsa prestatzen hasi zen: "Aitaxok arrazoi du, alaba, ez zaizue ezer gertatuko, ez da inor etorriko, baina ongi dago ate hori jotzen badizute zer egin behar duzun jakitea".

Gau horretan ezin nuen lorik egin. Nire gelan nengoen eta amets egin nuen tiro egin behar nuela. Bestetan baino beranduago jaiki nintzen. Baronek taxia ate aurrean zeukan eta gurasoak gosaltzen ari ziren. Kapataza eta familia gure joan-etorriak ikusten, ardurarik erakutsi gabe.

Egun hau laburra egin zitzaidan oso, gauari nion beldurra.

Ahizpak oporretan zeuden oraindik, hotz handia egiten zuen, baina pixka bat irten ginen... Babiano ikusi arte. Ostera txiki bat eman genuen berarekin, beti eskupeta besaburuan; ahizpek inpresio handia izan zuten hark gorantz tiro egin eta zakurra ahoan hegazti bat zuela etorri zitzaigunean!

Gaua heldu zenean, gurasoen gelara bildu eta berton itxi ginen, aitak agindu bezala.

Irenek bazekien gelatik ez zuela irten behar, baina komunera joan nahi izan zuen, inoiz ez bezala!..., eta ez zuen aitaxok utzitako pixontzian egin nahi! Zera, ohean egingo zuela! Gauak amaiezina zirudien, ezin ninduen loak hartu, karabina koltxoi ondoan, atea zaintzen, eta nire buruari galdezka, ea tiro egiteko gauza izango nintzen...

Eguna zabaltzen hasi zuenean bakarrik hartu ninduen loak.

Egun horretan nekaturik sentitu nintzen, eta gaua arte gurasoak noiz agertuko... baina ez ziren etorri. Berriz gau bera... luzea izango zen, bezperakoa bezalakoa... eta hotsak entzuten hasi nintzen, eta zarata txikiak... Norbaitzu zeuden atez bestaldean!... Eskupetari segurua kendu nion presaka, baita ustekabeko zerbait entzun ere... nirea edo besterena!!... Kanpoan zegoen norbaitena!!... joan zen denbora oso geldi... gela honetan nirean sentitzen ez nituenak entzuten ziren! Zakurrek ere inoiz baino maizago eta ozenkiago egiten zuten zaunka! Goizaldera lau aldiz sentitu nuen kotxemotorraren zarata..., hor zetozen!... Ezer ez!..., baina egunsentia heldu zen!

Goizerako buruko min handia jarri zitzaidan, lokietan sentitzen nituen bihotz taupadak eta lepoa zurrin... ukondoetan finkatzen bainintzen zerbait sentitzen nuen bakoitzean!... Joan nintzen aitaren maletinera eta aspirina bat hartu nuen.

Babiano hurbildu zitzaigun goizean sukaldera eta nire menua zein zen ikusi zuen; hiru ahizpek jan genuen Martziala anderearen joan-etorrien aurrean...

Arratsaldean etorri ziren gurasoak!!

Arineketan irten nintzen gazteluko azken maldan motorra sumatu nuen bezain laster... Bazetozen! Aitaren begiradari so egin nion lehenik, eta lasaia zela sentitu nuen, eta baita baikorra ere! Haiek heldu eta nik oheratu behar izan nuen, buruko minarekin jarraitzen nuen, eta logura...

Hurrengo egunean inoiz baino goizago jaiki nintzen, eta denbora asko itxaron behar izan nuen. Sukaldean eserita, Domingo kapatazaren, bere semearen, konkordunaren eta Babianoren gosariaren lekuko isila izan nintzen. Haien artean bere hizkuntzaz mintzatzen ziren. Ez nien ezer ulertzen.

Gaur bezala jakin izan banu!

Mahai berean, baina Babiano beste muturrean, beste munduan, zeukaten.

(Babianok kontatu izan zigun behin baino gehiagotan, kapatazak jenio txarra zuela, baina berak ez zuela gaizki tratatzen... bakarrik, zera, bere onetik irteten zenean, "alubia" deitzen ziola, eta horrekin, baretu egiten zela! Baina nik entzuna nion hitz hori bera Domingoren semeari, Donatori, eta behin, hau sukaldean katiluak jasotzen ari zela, galdetu egin nion horrek zer esan nahi zuen, eta erantzun zidan: "Hori ez da 'alubia', 'aluba' baizik, eta ez da neskek esateko gauza, itsusia da"; garai hartan gure artean ez zen oraindik diferentziarik, eta neuk ekin egin nion, jakin nahi nuela, eta orduan aurpegia gorritu zitzaion eta sukaldetik irten zen.)

Baina hau gure arteko gerra-aurrekoa zen.

Aita jaitsi zenean, orain Martziala anderea sukaldean zegoen, nire aita fin portatu zen, beti bezala gizabidez agurtu zuen. Neuk zerbitzatu nion gosaria; bere begiradan sumatu nuen ez nuela ezer galdetu behar. Kanpoan hotz handia egin behar zuen, leihoko zirrikietatik haize izoztua sartzen baitzen. Halere, aitatzok osterata bat egitera gonbidatu ninduen.

Osaba Lazarok segurtasun guztiak eman zizkion: oraindik bazuen sal zezakeen harrobi bat, geuri dirua itzultzeko, eta nahi bazuen, jar zezakeen gaztelua bera ere bere izenean, aitarenean, eta, mesedez, itxoiteko urtarrilaren azkena arte. Aitatzok ekarri zuen notarioaren izena, Maître Guillaume, Miranden. Aitak esaten zuen nahiago zuela dirua, ibili zirela etxeak ikusten eta bat gustatu zitzaizela: txikia baina polita eta eroso Donibane-Lohizune inguruan: nik ikasten jarrai nezakeen, eta Tasio etortzeko ere erosoago zegoen, mugatik gertu. Tokia oso zen egokia. Bestalde, osabarekin geratu zen, Domingoren familia handik botatzeko, eta honetarako ordaindu behar zen dirua aitatzok berak aurreratuko zion...

"Bai, oraindik hori eskatzen du lapurrak!..."

Aitak Babianorekin hitzegin zuela, eta bere lagun André frantsesak ezagutzen zituela bi seme zituzten senar-emazteak, eta hauetako bat prest zegoela gaztelura lanera etortzeko. Ez dago, ba, problemarik, esaten zuen aitak eskuak igurtzitzen zituen bitartean, osterata honetan jeltuta geratu baizitzaizkigun biei, eta dagoeneko etxeko

sarreran geundela esan zidan: "Amak arrazoi du, toki hau ez da guretzat, 'horri' ere ez zaio nekazaritza gustatzen.

"Donibaneko etxetxoan lortu behar dugu".

Joan zen urtarrila, eta ez genuen osaba Lazaroren berririk izan.

Aita goibeldu zen berriz, urduri ikusten nuen, baina ez zuen ezer esaten. Otsailaren amaieran hasi zen berriz telefonoz deiak egiten, eta berriz erantzun bera!, ez dagoela...

"Berriz jaitsi beharko dugu!!"

Ni, lasaitzen ahalegintzen nintzen, apurtxo bat gehiago itxaroteko... zera nuen beldur, berriz bakarrik eta karabinarekin utziko nindutela!... Aitak erabaki zuen zerbait: "Hau berriz ere luzeegi egiten ari zait... Ezin dugu honela jarraitu, auzi hau konpondu behar da errotik"... Amatzok ere arduratuta ikusten nuen, eta neu ere ardura hark kutsatzen hasia nintzen berriz. Ahizpek ez zekiten ezer! Inbiria nien!...

Honelako batean telefonotik etorri zen aita esaten lortu zuela osaba Lazarorekin hitzegitea. Ez zegoen harrobia saltzeko itxaropenik oraingoan, hobe izango zen gaztelua bere izenean, aitatxorenean, jartzea!...! Aurrena, pentsa bezala, bota, eta ordaindu!, egin behar zuen kapatazaren familia!... Nik, ama orduan eta kezkatiago sentitu nuen: beste ordainketa bat!, eta geuk. Ordaindu, beti geuk, "amerikanoak"; kobratu, besteak!; eta garbia zirudien ezer ez!...; neuk esaten nuen hori; pentsatu, amatzok ere bai... baina amatzok beti isilik, tristurak bizia zurruputzen... Pozik zegoen bakarra, Babiano zen, "alubiak" joan eta kapitaina geratuko zitzaion nagusi bezala!

Domingori aitak diru kontuak konpondu zizkion bezain laster alde egin zuten. Operazio honen bi egiaztagiri eskatu zizkion Domingori; berehala utzi zituzten bertan behera lan guztiak, entzuten genituen geletan egiten ari ziren zaratak, kaxak prestatzen noski.

Eta ezer esan gabe alde egin zuten.

Aitatzok esan zuen: "Lapurrak bezala... hala baitira!... Aurrena sentitu ditut, eta gero ikusi ditut kamioneta kargatzen, ondo betetako kaxa handiak kargatzen... Egon naiz beti almazen gisa erabiltzen zutela esaten nuen gelan, eta karga ezin izan dituzten gauza batzu besterik ez dituzte utzi!" Joan ginen amatzokekin ikustera, oso politak ziren bi kinke zeuden, marko doratuz margoztatutako bizpahiru ispilu handi, bi erloju eta urraidezko kandelabro batzu.

Orain aita lasaixeago ikusi nuen.

Egun horretan bertan Babiano gaztelura aldatu zen bere eskupetekin, eta gehien gustatu zitzaion gela hartu zuen!

Berehala hasi zen Babianoren laguna, Didier, lanera etortzen; Babianori lagunduko zion lurretan eta ganaduekin. Lehen aldiz ikusi nuen aitatzok Babianorekin egurra zerratzen, eta berehala ikasi zuen behiak jaitzen ere, eta pentsatu nuen han geratu zatekeela berez nekazari bezala, amatzogatik eta guregatik izan ez balitz...

Gero eta gehiago sartu zen gazteluko lanetan.

Eta niri amaitu zitzaizkidan berarekin egiten nituen osterak ederrak. Entzuten nion, bestalde, hainbeste gustatzen zitzaizkion operetako ariak abesten, eta behin batean ausartu nintzen "Aida"ren abesti bat laguntzera, eta harrituta begiratu zidan:

"Oraindik gogoratzen al zaizu?"...

"Bai", esan nion, "batez ere Tebaldiren bertsioak".

Bere diskoez galdetu nion, eta esan zidan denak enbalaturik utzi zituela Caracasen... "Gure gauzak konpondu bezain laster, etxea izaten dugunean, esango diot Juanjo lagunari hona bidaltzeko"... Eta honi erantsi zion: "Eta itxaron ezazu, behar bezala bizitzen hasten garen bezain laster eraman behar zaitut Milango Scalara, han entzun behar da opera... Zenbat gauza egin behar dugun elkarrekin, eh?"...

Udaberria hurbiltzen ari zen.

Dena loratzen hasia zen eguzkiaren indarrez, eta aitak esan zidan Notarioa ikustera joan behar genuela.

Motoz jaitsi ginen Mirandera, eta emandako zuzenbidea bilatzeko bidean aitatzok esan zidan egin behar genuena zera izango zela, Maître Guillaume-ri galdetu, ea gaztelua gure izenean jartzeko zer egin behar genuen, eta ahal bazen, nola sal genezakeen; bazekiela "site classé" edo nazioak aldaketarik gabe gorde nahi zuen gaztelu historikoa zela, legez sailkatua zegoela, eta honetaz ere dena jakin nahi zuela. Halaz ere, baldintza honekin saltzeko eskubidea bagenuela baieztatu behar genuen. Notarioak, hartu gintuenean eta aitaren asmoak adierazi nizkionean, altxa zen eta gazteluaren dossier-a bilatzera joan zen. Arreta handiz aritu zen karpeta hartako paperak irakurtzen, eta oso mantso, ongi uler nezan, esan zidan gaztelua hipotekatua zegoela!

Begiratu nion aitari; ez zuen itzulpenik behar, frantsesez oso ondo zekien!, baina ez zuen hitzegin nahi izaten!, ez orain, ez inoiz, entzun nion neuk aitari "bonjour" edo "merci" besterik esaten... Ikusi nuen, gaixoa, aurpegia odolik gabe geratzen ari zitzaiola, papera bezain zuri zegoen!, larritu nintzen... "Galda iezaiozu zer kantitatetan dagoen hipotekatua." Notarioak frankoen kopurua esan zidanean, nire aita altxa zen, eskua eman zion Notarioari, esan zion "Merci" ahul bat eta irten ginen.

Kaleratu ginenean isilik egin genuen bide luze bat... "Ez dut uste motoz itzuliko garenik"..., esan zidan, "garaje batean utziko dugu, ez naiz gauza motoa eramateko"...

Aurkitu genuen taxi bat eta itzuli ginen.

Aitatzok ez zuen hitz bat esaten. Nik ez nekien zer egin! Hain luzea iruditu zitzaidan dena. Bide horretan bere eskua nirearekin bilatzen besterik ez nintzen ausartu, eta nire hatzak bereekin gurutzatu, bere eskuan hartu zidan sendoki nirea, isilik.

Bilatu nuen bere begirada, eta bere begiak ekaitzak joak aurkitu nituen.

Taxitik jaitsi besterik ez zuen egin, amaren bila joan zen. Josten ari zen gelan.

Nik bakarrik utzi nituen.

Nire gelatik entzuten nion aitari... ez nuen dena hartzen, baina kexa bat argi entzun nuen: "Lazarok engainatu gaitu! Hau hipotekatua dago! Eta ez edozein modutan!... Bada ia urtebete etorri ginela, eta ez da gauza izan egia esateko! Baina, nor dela uste ote du horrek!"... Entzuten nuen amatxoren ahapea, oso behetik... ez nuen ezer ulertzen.

Ahizpak bazetozen eskolatik, zaindu nituen eta osteratxo bat ematera joan ginen. Baina, zer izango zen orain gutaz?, hau zen genuen guztia, galdetzen nion neure buruari: zer pasako zaigu?!...

Afaltzerakoan, ama jaitsi zen. Begiak, negar egindakoak ziren. Ez nuen afaritan ezer irentsi, eta esnea edan eta gabonak eman nizkien.

Gau honetan ez zitzaidan aitatzko ohera hurbildu.

Hurrengo goizean Babianorekin aurkitu nintzen sukaldean. Gosaria eman zidan eta neuk hark bezala arraultza prejitua jatea nahi zuen. Ezin nuen, noski... Berehala jaitsi zen aita. Eseri zen mahaian eta isilik egon zen nik esnea berotzen nion bitartean, eta begiratu gabe esan zidan:

"Orain, lortu behar genukeena da... Lazarok, harrobia saldu ezin badu, hipoteka dezala, eta diru horrekin gazteluaren hipoteka arindu eta badago oraindik konponbiderik..."

"Donibanera joango gara.

"Joan zaitez Baronenera eta deitu iezaiozu"...

Halaxe egin nuen, baina esan zidaten osaba Lazaro ez zegoela han. Utzi nion mezua, egunero deituko niola, nire aitak berehala ikusi nahi zuela. Handik bost egun luzera etorri zen Baronen semea enkarguarekin: osaba hurrengo hiru egunetan han egongo zela bere zai.

Eskatu nion aitari, ni eraman nintzan, ez zedila bakarrik joan.

Arratsalde horretan bertan irten ginen, eta gauerako "Hotel Euskalduna"n. Nik aita oso urduri sentitzen nuen, eta ni ere nerbiotsu nengoen oso, noski. Osaba ez zen gaueko hamarrak arte agertu. Guk harekin afaltzea nahi izan zuen. Ez genuen, ordea, ezer jateko gogorik. Bera, osaba, eseri zen eta aplomo handiz esparrago lata bat eskatu zuen; irekia ekarri zioten, hatzez jan zituen banan bana, eta gero latako zukua edan zuen, esanaz:

"Onena da, diuretiko ana"...

Ez zigun ezer galdetu.

Nire aita osabak afari handia nola jaten zuen ikusten egon zen pazientzia handiarekin, baina osaba dena irensten ari zen neurrian ari ziren nire aitaren begiak haserrez kargatzen!

Postrea ekarri aurretik lehertu zen aitatzko:

"Gazteluak oso hipoteka astuna du, zergatik ez didazu esan?!"

Osabak ez zuen zeinu bat egin, jaten jarraitu zuen, afaria ondo dastatzen ari zen, ekarri zioten kopa handi bat izozki xantiliarekin, eta gero kafea eskatu zuen!!

"Hau konpondu behar dugu", esan zion aitak, "behar bada, harrobia hipotekatu eta diru honekin gazteluarena arindu dezakezu... Bota ditut Domingo eta bereak, nere azken diruekin ordainduta, hona hemen agiria", eta mahai gainean jarri zion.

Osabak ez zuen agiria hartzeko keinurik ere egin, gainetik begiratu zion..., eta hasi zen azkenean hizketan:

"Hara, Endrike, har itzazu gauzak patxadan, neuk baditut orain gauza garrantzitsuagoak, alemanek ordaindu behar dizkidaten bi untzi pagatu zai nago, eta hau diru handia da; zuena ez da ezer, neuk egiteko daukadanarekin gonbaratuta. Nolanahi, zuk nahi baduzu emango dizut gazteluari dagokionez nire podere bat zuk "château" horrekin nahi duzuna egin dezazun; mementuz ezin dut besterik egin, itxaron nahi ez baduzu"...

Eta hau esaten zuen egoera hartaz oso seguru balego bezalako tonuan. Baina nire aitak esperientzia handia zuen osabaren esan eta hitzez, eta geratu ziren podere hori biharamunean bertan egingo zutela.

Hurrengo egunean agurtu ginenean, esan zuen osabak espero zuena gertatzen bazen gaztelura pertsonalki igoko zela.

Arratsalde horretan bertan irten ginen etxerantz; trenean gindoazela aitak boz goraz pentsatzen zuen: "Ez dut ulertzen, gizon honek zentzurik ez du edo erotu egin da... Segurtatzen dizut, alaba, gizon honek dirua guk bezala, lanean eta sakrifizioaz, egin izan balu, dena diferente izango zen. Honek duena, sorte handiz kolpetik egin du, kontrabandoan; ausartzen naiz esatera lana, honek ez duela inoiz lanik egin. Axolagabe bat iruditu zait, zainzuri haiek hatzez jaten!"

Eta amaitu zuen: "Amak atsekabe handia hartuko du".

Itzulian, Mirandetik pasa ginen, Notarioarengana joan ginenean utzi genuen motoa jasotzera. Gaztelura arratsean heldu ginen. Amatxo zai zegoen, noski, urduri. Ahizpak oheratuta zeuden. Aita eseri zen neke handia erakutsiz mahaian, eta hasi zen amari kontatzen. Amatxo, aitaren aurrean eserita zegoen gero eta espresio goibelagoarekin, ez zuen hitz bat esan.

Eta aitari dagokionez, berriz, ez gau hartan eta ezta harrez gero gehiago, ez zen pasa gaueko azken agurra egitera.

Iruditu zitzaidan ibiltzeko era ere aldatu zitzaiola, pausoa mantsotu egin zitzaion eta hain kuadratuak zituen besaburuak erortzen hasi eta bizkarra piska bat makurtu egin zitzaion. Desilusio handia erakusten zuen begirada hark... gauzen gainetik irristadan bezala pasatzen zituen tristura handiz.

Aitatxo beranduago jaikitzen hasi zen, eta hau udaberrian!, eta egunak luzatzen hasi zirenean! Mintzatzeari utzi zion, eta Babianoren eta Irene ahizparen graziek besterik ez zuten goibeltasun hartatik ateratzen.

Egun batez, gosaltzen ari nintzela, jaitsi zen eta esan zidan: "Gaur Notarioarenera joango gara, ea gazteluarekin zer egin genezakeen."

Bazkalondoan goiz irten ginen, aitak berarekin hartu zuen osabak eginiko poderea. Maître Guillaumek adi entzun zuen gure nahia eta ikusi zuen agiria, eta esan zigun saltzera joanez gero ez genuela gauza handirik aterako; hipoteka oso handia zen. Nire aitak kalkulatu zuen hor hartzen zuen diruarekin denboraldi bati eusteko eta Domingori eman zion dirua bueltan Lazarogandik jasotzeko izango zuela.

Amari egin zion etxean irazkina: "Ez da geratuko Donibaneko etxea erosteko"...

Amatxok esan zuen orduan:

"Caracasera itzuliko gara!"

Eta aitak harrizko egin bailitzan geratu zen!!

Gero, ohiturarik ez zuten tonuan entzun nien hizketan bere gelan. Hurrengo goizean nire aitak esan zidan: "Beharbada, amak esandakoa egitea ez da errazena, baina bai praktikoena. Caracasen aurrera irtengo ginateke berriro. Gainera, bakarrik joaten bagara, lana gogor eginaz laster egingo dugu herriratzeko hainbat. Zuek Santurtzin geratuko zinatekete Adela eta Maritxu izeba zaharrekin. Hemen, hizkuntzarik gabe, ez dago aurrerabiderik guretzat. Amak arrazoi du."

Osaba Lazaro gorrotatzen hasi nintzen!

Gizon hori zen gure arazo guztien sorburu. Berriz familia banatzera behartzen gintuen.

Ez nion aitak esandakoari erantzun nahi izan; arrazoi zuen, gure lehengo banaketarekin espontaneitate guztia galdu nuen, beti nor defraudatuko nuen beldurrez bizi nintzen, eta asko pentsatu behar nuen zerbaite esan aurretik...

Baina joan nintzen amarengana eta irten zitzaidan tiro bat bezala: "Neuk Caracasera joan nahi dut, ez dut herrian geratu nahi!"

Amatxok maitasunez begiratu eta esan zidan: "Zure aitak ez du hori inoiz onartuko. Orain zure beharra dugu, oso gogorra izango litzateke ahizpak Santurtzin bakarrik uztea. Ez zaitez arduratu, dena konponduko da eta"... Etorri zitzaidan amatxo ni kontsolatzera eta biak puskatu ginen, geure malkoek bat egin zuten; ez nuen inoiz hainbeste negar egin!... Puerto Cabellotik irteterakoan egin nuenez gero.

Orduan hamar urte nituen, baina orain ia hamazazpi beteak!

Gero, dena beherantz abiatu zen, eta azkar...

Ahizpei Santurtzira gindoazela esan zietenean, eskursio batera irten behar genuela iruditu zitzairen, batez ere Pilartxo, txikienari; Irene goibeldu zen apur bat, baina aitaxok esan zion ongi ibiliko zela herrian, Tasio ere han zegoela, eta gazteluko eskola utziko zuela!... eta Santurtzira begira jarri zen berehala.

Gainera, ez zela luzarorako izango...

Bazirudien gure esperantza amaigabea zela, ez dakit oraindik zergatik... beste aukerarik ez genuelako, apika!

Gazteluaren salmenta iragarki bidez zabaldu zen. Hasi ziren kurioso batzu agertzen; aitak eskatu zidan zizerone lana egiteko. Baina etorritakorik ez zen berriz agertzen! Egun batez bikote bat etorri zen; gizasemea, bere pareja baino askoz ere zaharragoa; egin zuten ostera osoa eta gazteak esaten zuen: "Maite, hau da nik nahi dudana!"... Handik bi egunera itzuli ziren eta esan ziguten berek erosiko zutela. Nire aitak baldintza bat jarri zien, uzta pasa eta gero egongo zela entregatzeko prest, eta bestalde, Babiano zela hura ondoen ezagutzen zuena, langile fina zela eta laguntza handikoa izango zitzaiela.

Notarioarenean izenpetu zen erosketarako akordioa.

Berehala hasi zen nire aita gure bidaia eratzen. Kaxak eta maletak trebetasun handiz egiten zituen. Lehenbailehen bidali nahi zituen, gu heldu aurretik Santurtzin egon zitezen...

(Eta aduanagente batekin konponduko zen, noski, denak gu irten baino bi hilabete lehenago heldu baitziren Santurtzira!)

Uzta bildu zen; onenetakoa izan zen, Babianok zioenez.

Amak eta aitak ez zeukaten festarako gogo handirik, baina prestatu behar izan zuten legezko zena. Babiano joan zen ardo bila, eta mahai asko jarri ziren lastategi azpi

zabalean; nire harridura handiz, jan-edanak geratu gabe jarraitu zuten orduak eta orduak, irten zen akordeoia eta dantza ere geratu gabe eta berandu arte egin zen.

Abuztuaren azkenerako aitak esan zuen alde egiteko ordua heldu zela. Nahi zuen, irailean hasten zen kurtsorako gu han egotea; idatzi zion izeba Adelari bi ahizpen inskripzioa egin zezan, ni lehen aldiz Santurtzira heldu nintzenean... sartzeko asmoa zuten Las Hijas de la Cruz-en... amonak mendiz mugaz bertzaldera pasa aurretik.

Zer bueltak, harrez gero!!

Irten bezperan egin nuen aitatzorekin gure azken ostera.

Besoa nire besagainean, estutu gabe, eta hasi zitzaidan esaten nigandik espero zuen guztia. Lasai zihoazen, bazekiten bi ahizpez ongi arduratuko nintzela, eta edozer gauza gertatzen bazen, idatziko niela. Ostera handi eta larri-estua izan zen niretzat!...

Ni aitaren atzetik nindoan batean, bidea estua baitzen, niri begiratu gabe esan zuen: "Zer pena zu geure familiako gizonezko nagusia ez izatea!"...

Bidea zabaltzen hasi zen berriz eta hartu ninduen besotik eta bakarrik hizketan bezala esan zuen: "Doniba-nerako egin genuen azken bidaian jabetu nintzen Lazaroren hondamendiaz!... Zorrez betea dago!... Zer izango da orain bere familia gaixoaz!... Zure amona Mertesdes urrikalgarriak ihes egin zuen errealitate haren aurrean, baina nonnahi dagoela ere, orain Ingalaterran, min hori berekin izango du bizi den arte. Ama baita, gaixoa!... Jainkoari esker gu gazterik gaude oraindik, eta osasuna ere badugu; denbora gutxian bien artean aurreratuko dugu eta itzuliko gara... Bitartean, joango dira herrian politika arazoak konpontzen. Segur egon zaitez, itzuliko gara. Nik Santurtzin hil nahi dut.

Nire begiak malkoz bete zitzaizkidan.

Gaztelura heltzen ari ginen.

Gau osoa gure agurrez pentsatzen egon nintzen. Larritasun handi batek hartua nengo; edozer gauza egingo nuen gurasoekin joan ahal izateko!

Eta heldu zen eguna:

Babiano agurtu genuen, orain gazteluko kapataza, eta laster etorriko zitzaizkion nagusi berriak. Igo ginen taxira, eta abiatu ginen mugarantz. Tasio anaia eta izeba Adela gure bila aurreratu ziren, Hendaian baitzeuden gu heldu aurretik. Jatetxe batera joan ginen denok; nire aitak eta Tasiok bi anaia ziruditen. Adela jaso zuen gure dirua, aitaren asmotan urtebeterako nahikoa izango genuena.

Gurasoak hegazkinez irtengo ziren gero, Paristik. Ni ez nintzen hitzegiteko gauza, negarrari ezin eutsirik nengo, garrasia eztarrian irten nahian... Eta heldu zen muga bertan azken agurra egiteko ordua. Aitak, beti bezala, azkeneko gomendioak. Denak besarkatu ziren, eta azkena gelditu nintzen, nire ama negarrez ari zen, bi ahizpak bidean zihoazen Adela eta Tasiorekin...

Nire aitak, besarkatu gabe, bekokian eman zidan musu luze bat: "Hara... zoaz eta ez ezazu atzera begiratu!" Abiatu nintzen eta ezin bete izan nuen aitatzoren agindua, begiratu egin nuen atzera... eta elkarrekin ikusi nituen, ama aitaren besoari lotuta, eta aita bera masailak bustita niri azken aldiz begira...

Hamar

Santurtziko bidaia laburra izan zen.

Tasio eta Ireneren artean sekula bata besteagandik aldendu ez balira bezalako harreman erraza sortu zen; biak ziren txispa eta etorri berekoak, eta bertsolarien artean bezala batak besteari txiste moduan erantzuten zion elkarri... Pilartxo isilik, Adelaren eta nire artean eserita, nire besaburura arrimatzen zuen burua, amatxorekin lotarako bezala; apur bat zorabiatuta ere bazihoan; neroni ere larri nindoan, ezin nuen arnasa barru-barruraino hartu.

Kostako bidea, oso polita izanik ere, nekagarria zen, bihurgune asko zuelako.

Bilbo iragan eta Sestao eta Barakaldorantz gindoazela Irenek bota zuen: "Alua!, Tasio, zer itsusia den hau!"... (Coño, Tasio, qué feo es esto!)

Txoferrak harrituta begiratu zion!

Anai-arrebak kreolez lotsagabekeria handiz txipristintzen zituzten beren esaldiak; gaztelera eta kreolera nahasian erabiltzen zituzten txispa handiz. Ni lotsatu egiten ninduten jendartean kreolaren arrunkeiak erabiltzen zituztenean; geuk bagenekien hitz hauek berez ez zutela Venezuelako herriaren ahoan konnotazio bera, baina ez geunden han! Hau zen arazoa!... Nik honetan neukan burua taxia ezkerraldeko ibai bazterretik aurrera zihoala... eta Santurtzira heldu ginen bezain laster Tasio bere etxera joan zen, Anas eta Austiñarenera, eta gu hiru ahizpok, Adelarekin, berera.

Maria zai zegoen, aurpegi borobilean pozargia!

Udako eguzki gozoa bailitzan!

Astebete barru jaso genuen gurasoen postal bat Paristik, Caracaserako hegazkina hartzera zihoazela, eta heldu bezain laster idatziko zigutela esanez.

Aspaldi heldu ziren hara ere, baina egunak etorri eta gauak joan, eta ez zen hangorik etortzen.

Lainoetako bidean galdu bailiran!

Baina nik banekien ez geundela gurasoen eskutitzaren zai egoteko bakarrik... Bi ahizpen jantziak prestatu behar ziren azkar, eta ni aita egiten ikusten nuen modura ahalegindu nintzen uniformeak, liburuak eta detaile guztiak ongi prestatzen.

Kolejioko lehen astea hondagarria izan zen!

Diziplinara itzuli zirenean, nire ahizpatxoak errebelatu egin ziren; gogorra baitzen!, batez ere Irenerentzat! Arratsaldean etxeratzen ziren bezain laster jartzen zen Pilartxo, isilik, gaixoa, bere etxeko lanak egiten, baina Irenek edozer gauzarekin arreta galtzen zuen, irudiei begira jartzen zen eta laster zen olgetan. Eta neuk ekin nion amona Mertzedesen errosarioarekin: denbora ongi aprobetxatu behar da, kolejioa garestia da, gurasoak urrun daude gugatik sakrifizioak egiten... "Nota onak atera behar dituzue, pozik egon daitezten"... Baina ni ez nintzen amona Mertzedes, eta Irenek ere ez zuen nire izaera, eta behin batean, neu amonarena egiten ari nintzela... aurrez-aurre begietara so jarri zitzaidan lotsagabe, eta ni gauza izan ez nintzen errebeliarekin esan zidan: "Nik

Caracasen banekien Simon Bolivar eta Himno Nacional!, *Chateauvieux*-ko marikoia hasi zen Napoleon eta La Marseillaise-rekin!... eta orain hemen hasten zaizkigu ez dakit nongo Erregeen zerrenda luzearekin... Ez!, uste dut!!... Neuk nahikoa dut, orain!!" (No, ya!.. Yo, ya!!)

Honetarako ez nuen erantzunik; ezagutzen nituen ongi batetik bestera ibiltzeak dakartzan nahasteak!

Hau zen exilioaren giharrea...

Bestalde, herrian berehala egin zituzten lagunak, herria deskubritu zuten, honek eskaintzen zien askatasuna, batetik, eta bestetik, babes... nonnahi etxean sentitzen baitziren! Caracasen ez bezala, gazteluan ez bezalako jende eta gizabidearekin... Hemengo higadura, hemengo dantzak eta mutilak!

Batez ere hamabi urteko Irenek zuen hemen jokoa!

Izeba Adela eta Maria ziren zorionsuenak, hain bakartia zen bere mundua bete zitzaien!, eta Tasiok bere habian egiten zuena hasi zitzaigun Irene gure izebekin egiten: nahi zuena...

Heldu eta hiru bat atera hasi nintzen egiazki kezkatzen eta egunero postariaren zai jartzen. Lehendik banekien hau zer zen, han eta hemen, familia zatituta bizi izatearen beste ardatzetako bat... karteroa 11-12tan pasatzen zen, eta nik zaintzen nuen bada ongi!..., eta berriz etxebizitzarako lau solairuak igotzen nituen bitartean atzerapenak justifikatzen nituen: heldu eta gero ez zuten guri idazten jartzeko denbora asko izango: bizileku berria aurkitu, baita lana ere!... Lehen eskutitza hilabete t'erdira heldu zen; nire amarena izan zen eta Adelari zuzendua zetorren! Eskatzen zion izeba zaharrari behar genuen guztia erosteko, eta ahal zuen guztietan arraina jaten emateko, gazteluan ez genuela arrainik ikusi ere egin, eta gure adinean beharrezkoa genuela... Gainerako guztia guretzat zen: aita iparramerikar batzuei kontabilitatea eramaten hasia zela, eta ama bera negozio txiki bat, dendatxo bat, jarri nahian zebilela. Baikorra zen oso. Beste helbidea bidaltzen zigun, etxebizitza berria; orain arte lagun min batenera idazten bainuen neuk...

Hasieran, egunero!, aitak eskatu bezala, gure xehetasun guztiak emanaz.

Laster heldu zen aitaren lehen gutuna, bere letra bereziarekin idatzitakoa; niri zuzendua zetorren, ohitura zuen bezala! Ez ziren oraindik ahizpak kolejiotik etorri, eta mantso, hitz bakoitza dastatzen, eta gero beste hiruzpalau aldiz gauza bera, irakurri nuen!... Aita ere baikor sentitzen nuen, berriz proiektuz betea zegoen, eta zera esaten zidan gainera, beharbada bere kapitain titulua Venezuelan berretsiko zuela, berriz itsasoratzeko asmoz!

Exilatuen beste ardatz nagusia hauxe izaten baita: ofizio berria ikasi edo lehengoaz bizi izateko ikasketak berritu beharra!

Iparamerikarrek ongi ordaintzen zuten itsasoan, eta hau izango zen diru berri bat aurreratzeko modurik onena!! Berehala galdetu nion Adelari ea zenbat gastatu genuen bi hilabete hauetan. Uste dut ez zitzaiola gustatu, eta eman zidan pezeta kopurua oso handia iruditu zitzaidan! Egia zen uniformeen eta berokien eta zapaten erosketak, denak hor sartuak zeudela, baina hala ere irten egin zitzaidan: "Aitatxok utzitakoak hark

esandako denbora osoa iraun behar du"... Eta Adelak esan zuen: "Ez zaitetz arduratu, geuk ere badugu, eta behar bada Aurrezki Kutxatik aterako dut".

Anaiak behin bota zidana sentitzen nintzen, "Levi", judaka!

Aitak irten aurretik esan zidan inoiz diruaren beharrik sentitzen banuen, ez familiako inori eskatzeko, ezta bere gurasoei ere: "Zu joan zaitetz nire lagun Aldabarenera, eta eska iezaiozu behar duzuna, dirua edo behar duzuna, eta ni konponduko naiz gero berarekin; laguna bera itsasoratua dela gertatuko balitz, bere emazteari eskatu, gai honetaz hartu ditu eta senarraren aginduak"...

Ez nuen hau gertatzerik nahi.

Anaia Tasiorekin hitzegin nuen.

Harrituta bezala begiratu zidan: "Ez zaitetz ardura, 'Levi', neuk badut zerbait gorderik; gainera, Anas eta Austiña ongi daude diruz".

Ahizpen zaintzaile sentitzen hasi nintzen. Erantzupide handia hartu nuen nire gain, eta denbora aurrera zihoan neurrian konturatu nintzen nire ahizpa Irenek ez zituela nire iritziak kontuan hartu ere egiten! Nire aurrean plantatzen zen! Nik zerbait esaten nionean erantzuten zidan:

"Eta nork esaten du hori?"...

"Nik"

"Eta zu, nor zara?!", irten zitzaion hamalau urteko lotsagabeari.

"Zure ahizpa zaharrena!", erantzun nion.

"Aja!, eta zer diozu horrekin?!"... (Ajá, y entonces?!, kreole hutsean), eta buelta eman, eta behin azken hitza bezala amaitu zuen: "Agur, Ama Superiora!" (Au revoir, Madre Superiora!)

Gabonak inguratzen ari ziren, eta tristatzen hasi nintzen.

Orain arte ez nuen niretzako ezer pentsatu, baina bilatu behar nion nire egoerari irtenbide bat, nik nire gurasoei laguntzeko bide bat, eta bidez nire etorkizunari atek ireki. Nire estudioak jarraitu... Baina, zein estudio? Barnetegian ez nuen batxilergoa amaitzeko denborarik izan. Orain, ikasi, baina zer! Gasturik txikiena sortuko zuen zerbait, eta, gainera... ustekabeen igaro zen ordurako eskolurtearen lehen hiruhilabetekoa!

Noraezean aurkitzen nintzen.

Ustekabeen, "postariaren zaintzaile" bihurtu nintzen!, eta hau ez zen ogibide bat!!...

Bestetik, gutun-idazlea!... Egun jakinetan idazten nuen, eta ahizpak ere horretara behartzen nituen: Pilartxok pasarte luzeak idazten zituen, baina Ireneri asko kostatzen zitzaion... "eta zer esango diet?", eta sabaira begira jartzen zen. Ahizpek, lehen hiruhilabetekoaren notak ekarri zituzten: oso onak izan ziren Pilartxorentzat, eta porrot handi bat Irenerentzat. Honek ondo egiten zituen eskulanak, baina estudioetan ez zen batere ahalegintzen; piper egiten ere hasia zen, bere ahizpari ezer esan gabe, eta hau arnas gabe etortzen zen kolejiotik: "Irene hemen al da!"... eta arineketan irteten zen ahizpa galduaren bila: batzutan haurrentzako filme bat ikustera, edo osteratxo bat egitera joaten zen!; gainera, bazuen bere mutil taldetxo ere; galtza laburrekin, batera eta bestera laguntzen zuten!

Nik hau nire anaia Tasiori esan nionean, honek pikardiaz irrifarre egin zidan: "Utzi izeaiozu, ez zaitetz ardura... disfruta dezala eta egon zaitetz lasai, herri hau lasaia da, baketsua, hau da gure herriaren xarma"...

Nik ez nuen berdin pentsatzen, eta ikusten ari nintzen ez nuela parada hau gaitzetzeko kemenik.

Nire gurasoei zuzentzen nizkien gutunetan ez nituen gauza onak besterik aipatzen, nola kezkaraziko nituen bada gurasoak hain urrundik! Anai zaharrenaren laguntza, ikusi nuen nolakoa zen! Zer egin behar nuen egoera hartan denbora galdu besterik? Ez nintzen, ez nire ahizpak zaintzeko gauza, eta ezta neronek zerbait ikasiaz nire familiari, eta egoera kritiko honetan!, laguntza eskaintzeko ere.

Zerbait erabaki behar nuen!

Gabon haiek, lau anai-arrebok elkarrekin igaro genituen.

Ez zen honelakorik azken zortzi urtetan gertatu; baina oraingoan gurasoak ziren falta zitzaizkigunak. Anas eta Austiñaren etxean bildu ginen gau hartan izeba Adelaren baimenarekin; oso berandu erretiratu ginen. Atariko giltza neuk nereman, handi-pisu horietakoa; eskerrak, bestela tirrina jo behar izango genuen eta zarata handia ateratzen zuen tirrin zantar hark..., batez ere gauaz! Sartu ginen hirurok amonaren gelan, eta beste gelan izebak xuxurlan ari zirela oheratu ginen geu: ni amonaren ohean, besaulki ederraren ondoan zegoenean, eta bi ahizpak izeba Maritxuk eta nik lo egiten genuenean. Dena isildu zen berriz, ahizpen arnasak loak hartutakoarenak ziren, eta ni neu bidean nengoela, ordubete barru edo, jo zuen sukaldean zegoen zintzarrikada dardarti elektrikoa hark!!... Nik jauzi handi bat egin nuen ohean!... ahizpek lotan jarraitzen zuten, baina izeben gelan garai bateko trumoi hotsak bezala bota zituen bi xaharrak ohetik kanpora!...

"Nor ote da, izeba", galdetu nuen.

"Zaudete lasai", esan zidan Adela, "Beltza izango da, ordu honetan"... eta marmarrean irten zen gelatik, hartu zuen sukaldetik nik mahai gainean utzi nuen giltza, eta gaixoa han doa eskaileran behera... nire belarrietan balebiltza legez sentitzen nituen bere txinalak arrastaka...

(Azken etorrialditik hona, aldaketa handiak sumatu nituen zaharren artean... denei belarriak hazi zitzaizkien, oinak herrestan zeramatzaten, hortzak koloka zituzten eta denak gortzen ari ziren... Nabarmenak iruditzen zitzaizkidan, batez ere azken hau, zeren eta ahotsa altxa behar genuen, eta batzutan garrasi pixka bat ere egin behar, esan nahi geniena adierazteko...)

... eta gau honetan Adela eskailerak jaisten ari zenean jakin nahi nuen nor zen, agian Adela aipatutako 'Beltza'... Nola zitekeen hau!! eta honek ahapeka hitzegin nahi zion, baina ahotsa igo behar izan zuen Adelari hitzak buruan sartzeko, eta denaz enteratu nintzen... Osaba Lazaro eskatzen ari zitzaion izeba zaharrari biharamunean, goiz hartan

bertan, telefonoz dei bat egiteko, "Manuel-en partez", eta hura konforme bazen, "12etan, beti bezala, eta baietz esaten badizu, zure gelako leihoan zapi zuri bat eseki".

Kotxe bat abiatu zen...

Izeba Adela gorakoan, nekez, zioen... entzuten nion!: "Ama Birjina!... egunen batean nahigabe handi bat emango digu, eta gainera orain etxean ditugu gure bilobatxoak!"

Izeba oheratu zen, sentitu nuen, eta entzun nuen gainera bi izeben marmar itoa ere... otoitz egiten seguraski!

Hurrengo egunean oso goiz aitortzen zidan Adela oraindik dardartsu: "Beltza etorri da bart..., ez dakit nola esan ez dadila etxe honetara etorri, egunen batean harrapatuko du poliziak eta hilko dute tiroz... eta gero denok gartzelan amaituko dugu!!"

Gaixoa!

"Telefonoz deitzera noa, meztara joan aurretik"... Pena handia eman zidan izeba zaharrak, hain xahartua eta hain urduri... Eta Lazaro hemendik, eta Jainkoak daki zertan... han dindilizka handian bere familiako pertsona... asko utzi eta gero!!

Bigarren trimestrean Irene gaixotu egin zen.

Ez dakit gure aita nola konpondu zen, baina hark zaindu eta kutsaduretatik libratu gintuen gaitz guztiak pasatzen ari ginen orain. Don Isidoro, sendagilea, bigarren solairuan bizi zen, familiako medikua eta laguna zen; igo zen ikustera eta botika bat eman eta esan zuen egun batzutan ohean geratu behar zuela. Halaxe egin zuen, baina neskatala bere hartan geratu zen, hobekuntzarik gabe, sukar handiarekin. Irene kexa larri batekin hasi zen, goraka joan zen, eta laster agindu bat izatera heldu zen arte: "Nik nahi dut aita etortzea, gaizki sentitzen naiz, sendagile hori 'bolsa' bat da. Aita etor dadila!" Eta honela hiru bat egun iraun zuen. Gau eta egun aita itzultzea eskatzen zuen. Pilartxok eta nik larrituta begiratzen genion... "Hil egingo naizela, aita etor dadila, oraintxe!"...

Susperraldia mantsoa izan zen, eta Kolejiara joan gabe aldi luzetxo bat egon zen.

Eta udaberriarekin etxaurreko parkea oso polita ari zen jartzen!; hainbestekoa zen itsasoarekin egiten zuen kontrastea!, laugarren bizitzako leihotik genuen ikuspegia zoragarria zen!... Behin heldu zen Irene kolejio ondoan "Tontikomio" bat ireki zutela esanez, halaxe bataiatu zuen honek: ikasle txarrak izan eta ikasketak jarraitzeko sortutako zerbait. Laster hasi ziren gure arazoak. Gaztetxoek atzeko ate batetik ihes egiten zuten, nonbait, eta planak egiten zituzten neskekin, Irenek berak zioenez, denbora pasatzeko horietakoak, inoxenteak, baina nahikoa zen hori ni estutzeko. Zerbait egin behar nuen. Hasi nintzen nire ahizpatxoan joan-etorrien arazoak jarraitzen...

Aitaz gogoratzen nintzen ni!

Eta lehen gazteluko inguru hartan sortu zizkidan oztopoak hasi nintzen ulertzen orain.

Nahiz eta hau, geure sendi guztiaren herria izan, eta ez hango ezezaguna... Neuk aitari idatzi nion eskutitz batean esaten nion barnetegi bat ez ote zen hobe. Erantzuna oso nekez etorri zen. Oso gogorra iruditzen zitzaion alabatxoentzat, eta ez zuten nahi neuk lehen pasa nituenak hauei pasa eraztea!

Bitarte honetan, izebei laguntzeaz kanpo, etxean irakurri egiten nuen, baina neuk galtzen nuen bigarren kurtsoa zen hau...

Aitak esaten zidan gutun batean: zergatik ez nuen hizkuntzekin jarraitzen. Orduan hasi nintzen Santurtzin bertan zer egin nezakeen ikusten. Herrian ezer ez! Tasioren lagun batek esan zidan behin Bilbon bazegoela hizkuntzetarako Akademia on bat. Joan nintzen. Matrikula itxita zegoen ordurako, baina esan zidaten nekienarekin sar nintekeela eta azken azterketetara aurkeztu. Egun hartan bertan eman nuen izena. Honek esan nahi zuen egunero egin behar nuela Santurtzitik Bilbora arteko joan-etorria. Irakasleak..., iruditu zitzaidan, gramatika bazekitela, baina, bai frantsesa eta bai ingelesa, biak, oso gaizki ahoskatzen zituztela, katalanez hitzegingo balute bezala; katalandarrak baitziren!! Eman zidaten frantses idatzian itzulpen bat egiteko aukera eta oso aurreratu bat ingelesez. Ez nuen arazorik izan, aise egin nituen, baina ez nintzen pozik sentitzen.

Eta aitari esan nion.

Laster etorri zitzaidan erantzuna: "Bila ezazu soluziobiderik onena, zeuk erabakitzen duzunarekin konforme nago."

Bide batez, aitak berak liburu batzu eskatzen zizkidan kapitain azterketak berriro Venezuelan pasatzeko, eta, bi ahizpek bezalaxe!, ekainean. Bidali nizkion azkar!... Eta jaso nuen batean, azterketak ongi gaintu zituelako berri pozgarria izan nuen, eta itsasora zihoala berriz. Poztu ninduen berri honek. Ez zen bide erraza: Maracaibo-Aruba bitartekoa egin behar zuen petroleo garraioan; bero handia pasa behar zuen, baina aitak ez zion horri begiratzen, irabaziko zuena lehenbailehen itzultzeko izango zen eta!

Eta heldu zen uda, eta arazo handiekin.

Irenek alde egiten zuen eta ez genekien nondik nora zebilen; ez zen otorduetara garaiz etortzen, pozik zebilen! Pilartxo oso desberdina zen; bi urte gazteago zen, baina ez zen honegatik bakarrik. Tasiok andregaiia zuela, eta oso pozik ikusten nuen; gainera, kurtso bat besterik ez zitzaion falta Komertzioa amaitzeko, nahiz eta bi materia geratu zitzaizkion iraila arte.

Idatzi nion aitari, gustatuko zitzaidakeela Ingalaterrara joatea, izeba Maritxuren etxera. Gainera, amona ere han zegoen.

Aitak esaten zidan, ondo iruditzen zitzaiola, eta orduan bi ahizpentzat barnetegi batetan pentsatzen hasi beharra zegoela, zeren eta Adela eta Maria zaharregi zirela erantzupide hori bere bizkar uzteko, eta ni joaten banintzen, ez zen lasai geratuko. Ez zegoen arazo ekonomikorik: "Bila ezazu biderik erosoena, alaba, ikusten dut bi ahizpak herrira ongi egin direla; pozik nago horretaz, baliteke datorren udan amatxo horra bueltatxo bat egiteko moduan izatea!"

Dena normaltzen hasia zela zirudien.

Barnetegiko asmoak asko kezkatu zuen Irene: "Eta zer, itxita!, astero irteteko biderik ba al daga!"... Gau batez, larrituta, niri aurpegiratu zidan aldaketa honen errua, ahizpak abandonatzen ari nintzen! "Noski, zeuk joan nahi duzu eta gu barnetegian sartu!" Errudun sentitu nintzen, baina bestalde lasai. Nik ezin nuen ahizpa kontrolatu eta ikusten nuen, gero eta zailago egiten zitzaidala!

Joan zen uda hura, eta amaieran, Berrizko barnetegira eraman genituen ahizpak. Iraila zen, joan nintzen lehen bisitara eta Southamptonerako bidaiak prestatu nuen. Agurtu nuen familia guztia. Nire aiton-amonek, aitaxoren gurasoek, ez zuten nire erabakia onartzen:

"Zure amaren familiako joera duzu, ez zara toki batean geratzen". Ez zuten "bando"rik aipatu, baina hori zuten buruan!... Bestalde, ez nuen alderdi horretatik laguntzarik jaso. Hurrengo egunean irteten nintzen. Dena gertu neukan. Penaz utzi nituen Adela eta Maria maitagarriak.

"Orain berriz bakarrik geratzen gara!"... esan zidaten; eta agindu: "joango gara zure bi ahizpatxoak ikustera igandero, eta hemen izango ditugu oporraldietan."

Ilusioz beteta irten nintzen.

Hemeretzi urte egingo nituen laster, eta ez nuen niretzat ezer prestatzerik izan! Bidaiak Parisetik barrena egin nuen; gero Calais-London, eta, azkenean, Southamptonera hurrengo gauean heldu nintzen.

Ustekabean heldu nintzaian!

Ez bainuen egun jakinik eman. Taxian heltzen ikusi nindutenean poztu ziren; izeba Maritxu, oso adierazkorra zelako... Haur baten zai zegoen urrirako!!, amabitxi izateko garaiz heldu nintzen!... Ez zidan niri hitz bat esaten uzten... Sartu nintzen saloira eta amona Mertesdesekin aurkitu nintzen!!, tximiniaren ondoan eserita zegoen, hurbildu nintzen, eta beti ezagutu nuen bezala, mantso, altxa gabe, neu makurtu nintzaion eta besarkatu ninduen, eta eskua pasa zidan maitekorki masailetik; uste izan nuen irrifartxo bat egin nahi izan zuela... baina ez; bere begietan tristura sakona ikusi nuen.

Zaharrago aurkitu nuen, baina uste dut, fisikoki aldatu baino... begiratzeko bidea zela aldatu zitzaiona, eta honekin, aurpegi osoa... "arimaren ispilua"...

Espresiorik gabe geratu bailitzan.

Nik ezagutu nuen amona asko xahartu zen!!!

Gero, izeba Maritxuk sukaldean kontatu zidan ahapeka... Nire amaren Caracaserako azken bidaiak asko hunkitu zuela... eta baita Kerrochen gertatu zenarekin ere... Badakizu?... Ezetz erantzun nion buruarekin, dena ahaztu nahian... Baina izebak jarraitu zuen aitorketan bezala: "Subastan saldu behar izan dituzte etxea eta lurrak!... Anaia Lazaro hondatu da, porrot egin du... Zer hondamena! Nire anaia gaixoa... Eta zortzi seme-alabarekin..."

Neuk ez nuen irazkinik egin, hori dena aitaxok aurreratu zidan...

Eta han, izebaren etxean, neukan bere gutuna zai.

Maracaibo-n datatua zegoen.

Aitak ongi ezagutzen ninduen, aspaldi nengoen konfidantza honetan, eta ni Southamptonera heldu zai egon zen esateko zenbat sentitzen zuen ni errorik gabe uztea!... "Ezin ulertu dut zergatik ez zaren Santurtzin geratu! Banuen, bada, zure lurrera eta herrira egunen batean ohituko zinelako ustea", hau esaten zidan bere letra txiki garbiarekin, ondo biribildutako letra ederrarekin.

Laster, Maritxuren senar zen Kotanoren laguntzarekin sartu nintzen kolejio ingeles batean; hutsean irteten zitzaidan!; gastuak, txikienak izatea nahi nuen!

Hasi nintzen klaseak hartzen, eta oso pozik nengoen.

Bestalde, osaba Iñigo eta bere familia gertu bizi ziren, Southamptoneko baso baten erdian, eta gonbidatu ninduten asteburuak han pasatzera. Gogoz eta kementsu aritu nintzen ikasketetan lanean, asko idazten nien gurasoei, eta baita Santurtzira ere, Tasiore, Adela eta Mariari, baita ahizpei ere, noski; hauek kexu ziren, ez zirela ondo pasatzen ari, diziplina zen gogorrena barnetegian, eta ik pasa nuenaren ondoan ez zitzaidan hainbestekoa iruditzen...

Asteak aise joan zitzaizkidan!

Amona Mertzxedesekin asko egoten nintzen.

Igandetan ikusten nuen nola itxuraldatzen zen! Lehengoa zirudien!! Bere kapa beltza jazten zuen, bere lepoa astrakanezko lepokoaz apaintzen zuen, jartzen zuen gasa finezko amantila burugainean eta irteten ginen mezatarara. Eta ez ginen gertuen zegoen elizara joaten, ez zitzaion apaiza gustatzen!, bide luzea egiten genuen kapera txiki eta abegitsu bateraino joateko, han sentitzen zen, nonbait, gustora.

Etxe ingeles guztiek bezala, gureak ere bazuen lorategi txiki bat; txikiagoa etxaurrean, eta handixeagoa atzean. Bazituen izebak txoriak, hauek errespetatzen zituen katu bat, eta loreak... lore asko! Eta... mintzaldi asko (nik ez nion izebari ongi ulertzen) lau seme zituen Mrs. Davis bizilagunarekin... Izebak egiten zuen ingelesa oso berezia baitzen. Ni heldu bezain laster esan zidan izebak bizilagunak denak xarmangarriak zirela, eta batez ere David, Mrs. Davisen semea. Ez zuen denbora asko galdu izebak esateko Davidek moto berria erosi zuela eta, nire harridura eta ikara handirako!..., motoan osteratxo bat ematera gonbidatzen ninduela. Hau amonaren aurrean esan zidan izebak, eta hark amaitu zuen gonbidapenarekin: "Ez dakit nik zertarako joan behar duen ganberro horrekin eta moto gainean!"

Inguruan, beti ni zaintzen!!!

Urtarrilean jaso nuen aitaxoren gutuna esanez urdailean molestia txiki batzu zituela, joan zela sendagile holandar bat ikustera Aruban, eta ultzera bat zuela esan ziola; tratamenduan jarri zuela, baina horrekin konpontzen ez bazen hobe izango zela ebakuntza bat egitea; batez ere untzian errejimenak jarraitzea zaila egiten zelako. Uste zuen, horko beroek ere ez ziotela onik egiten, asko sufritzen zuen bero handi horiekin, zioen berak, eta urtarorik gabe! !

Urtaroak ziren aitaxoren gai nagusia.

Behar zituen, nonbait!

Bere aldetik, amatxok esaten zidan aita egun batzutan lehorrean egon zela, eta molestia txiki horiez kexu bazen ere, oso ongi ikusten zuela, eta oso baikor, soldata handia zuelako, eta amari ere denda ongi zihoakionez gero..., eta berri handi bat: Tasio zetorren datorren astean beraiekin egotera!

Laguntzera, seguraski.

Eta niri ez zidan anaiak ezer esan!... Nire laguntza ere beharko zuten ba!...

Ahizpei idatzi nienean ez nien ezer esaten, agindu nien uda pasatzera joango nintzela, eskatzen nien asko ikasteko, ahaleginak egiteko; batez ere Ireneri letra batzu

bidaltzeko eskatzen nionez, erantzun zidan laster: "Estudioei dagokienez, ez zaitez 'boltsa' izan!" (en cuanto a los estudios, no sea usted bolsa!)

Hau ezin zen honez gero aldatu.

Otsailaren hasieran, aitaren gutunak iragartzen zidan lurreratu egingo zela, Dr. Gonzalo Aranguren ikus zezan, eta mediku on eta leial honek ere ebaketa bat egin behar zela esaten bazion, ebakuntzara zihoala, ez baitzuen holandarrak jarritako tratamenduak ezer egin.

Hala, berriz postariaren zai-zai jarri nintzen.

Hurrengo eskutitza amatxorena izan zen, aita operatu zuten eta ondo ari zen suspertzen, laster jarriko zen ongi eta berak idatziko zidala. Handik laster, martxoaren erdialdean, osaba Iñigo etorri zitzaidan. Amaren eskutitz bat hartu zuen, eta nekatua sentitzen zuela; gau eta egun aitatzoren ondoan egon behar... alabaren laguntza beharko lukeela, bere ustez...

Zerua ireki zitzaidan!!

Amatxok bere anaiari horrelakorik eskatu ez bazion ere, osaba konturatu zen, eta hau zen biei, aitari eta amari, sorpresatxo bat emateko garaia!

"Hala baderitzazu, konpon zure gauzak, eta bihar goizean etorriko naiz zure bila. Aireporturaino lagunduko dizut."

Denbora gutxi behar izan nuen nire gauzak konpontzeko, eta biharamunean, jarritako orduan, zai nengoen. Goiz irten ginen, hegazkina martxoaren 18ko arratsaldean nuen. Egun seinalatua egin zitzaidan pozbiderako. Londresen izan nuen nahikoa denbora biletea hartu eta denda batzu ikusteko... Hor erosi nion aitatzori entretenigarri polit bat: 800 piezatako buruhauskarria fragata eder bat osatzeko; aitak bazuen gusto berezia horrelako lan luzeekin denbora pasatzeko. Osabak, "Fancy"n gustatu zitzaizkidan zapatak erosi zizkidan!, gorriak, oso politak, eta takoi altu xamarrak zituen nire gustorako, baina hau izango zen nire lehen kapritxoa. Zapatadendatik irten nintzen gona eskozesari ederki egokitzen zitzaion txaketa berdearekin. Pixka bat haunditzen ninduten zapata berriek, eta azkenean ilea moztua nuen ordurako!... Hara bada!... neroni aurkitzen nintzen emakume!...

Osabak, agur egiterakoan, esan zidan: "kontu egiozu orain zure amatxori, deskantsa dezala, eta idatzi iezaguzu, arren!!"

Lehen aldia hegazkinez bidaia egiten nuela:

New York-era, Irlandan eskalatxo bat egin eta gero. Dena iruditu zitzaidan azkarra, New Yorkeko aireportura heldu ginen arte; hemen hiru ordu itxaron behar izan genuen Venezuelarako hegazkina hartzeko. Gero eta urduriago nindoan, laster bainintzen etxean; orain dela ia hamar urte irten nintzen Caracastik, eta oraingo hau ez zen lehengo etxe bizitza, baina gurasoak hor zeuden, nik asko maite nuen eguzkia ere bai, eta lanerako prest nengoenez, heldu zitzaidan familiari zerbaitetan laguntzeko garaia, gero denok batera herriratzeko, aitatzok hainbat nahi zuen bezala.

Hainbesteko gorabeherak pasa eta gero!

Maiquetia-ra heldu nintzenean, nire paperez arduratu behar nuen, eta maletaz ere bai, noski, baina azkenean jarri nintzen nire bila norbait etorri ote zen... Ez nuen inor ikusten... Ez nuen ezer esan nik, baina osabak deituko zuen... eta nire maletarekin

arduratuta nengoela hurbildu zitzaidan andere batek galdetu zidan: "Endrikeren alaba al zara?... zure bila etorri gara"... Ondo jantzia zegoen gizon bat aurkeztu zidan...

Neuk buruhauskarria neraman eskuetan, maletaren zai, eta gizonak hartu zuen nire maletatxoa.

Eta etxea gero eta gertuago... hona hemen hainbeste bihurgune zituen Caracaserako bide luzea!... orduan ez baitzen oraindik autopistarik..., eta bide zaharrak gogarazten zizkidan hondartzara jaisten ginenekoak... Dena utzi bezala, berdina zen oraindik paisaia idorra. Galdetu zidaten ahizpengatik, Ingalaterrako osaba-izebengatik..., denak ezagutzen zituzten, amaxoren eta aitaxoren aspaldiko lagunak ziren.

Hain nengoen hunkituta, oso laburra egin zitzaidan dena... Bero egiten zuen, bai!... ahaztu egin zitzaidan bero hau, eta gainera ia negurako jantzia nentorren!... Eta Caracas barruan, ez nuen erreferentzia ezagunik aurkitzen, oso aldatua zegoen!... Eta bestelako begiekin ari nintzen orain begiratzen, noski!... Ez nintzen ezertaz gogoratzen! Panteon Nacional-era hurbildu ginenean hasi nintzen toki batzu ezagutzen... eta Rosa Chacón-ekin bizi izan ginen etxea ere ikusi nuen... Non ote zegoen andre hura?!...

Eta berehala heldu ginen etxebizitza berrira.

Hirugarren bizitzara igo ginen.

Tirrina jo nuenean eta atea ireki, lore usain estrainioa usaindu nuen... Eta salatxoaren erdian zerraldoa eta nire aita barruan hilda! Uste dut korderik gabe geratu nintzela!... Saloitxoa jendez betea zegoen, denak beltzez jantzita, milaka begi niri begira!... Buruhauskarria nire bi besoekin eta nire bularraren kontra... Harri bihurtu banantz bezala sentitzen nuen dena, barruraino...

Aitaxoren aurrean geratu nintzen, orain hilda!!!!

Jende guztia kanpora botako nuen nik ahal izan banu! Bakarrik geratu nahi nuen berarekin!... bi besoak zerraldoa besarkatzen... itxi nituen begiak eta tximista izugarri batek jo banindu bezala sentitu nintzen goitik beheraino gorputz guztian... ordurarte lo eduki nuen zer bait zen nire gorputza pasatzen ari zena, taupadak bihotzik ez nuen tokian sentitzen nituen, eta nire aitaren begiradak ezetz bazion ere, eta deitzen niri: "Alaba, ez!"... hartu nuen eskupeta eta tiro egin nion osaba Lazarori, zuzenean, hutsik egin gabe, aita agintzen zidan bezala, probak egitera joaten ginenean bezala... eta belaunetatik behera, aita esan zuen bezala!... eta hor ikusi nuen osaba Lazaro odoletan ezin pausoa emanik...!... Berriz ikusten nuen aitaren aurpegi ederra; hurbildu nintzaion eta mantso lastandu nuen, iruditu zitzaidan ez zegoela hotza, berdin zegoen, eguzkiak pixka bat beztua, eta bere ile laburra usaia zuen baino luzeago orraztua... Musu eman nion bekoki maite hartan, eta altxatzen ari nintzela iruditu zitzaidan betazal itxien barrutik ikusteko gai nintzela bere begirada naharoa...

Lagundu zidaten amarengana, gelara... Han zegoen besaulkian burua atzera buruki batean deskantsuan. Zuri, begiak itxita. Mme. Simonek, amaxoren lagunak, zaintzen zuen. Frantsesa zen, eta erizaina...

"Ez zaitetz arduratu", esan zidan, "lasaigarri bat eman diot deskantsu har dezan... Atzo lipotimia batek jo zuen, eta sendagileak beste pastila bat agindu du gorpua irteterakoan... Dena hain azkar pasa da! Urgentziaz egin behar izan zioten bigarren ebaketa. Gibleko konplikazio bat... Quelle malheur!..."

"Zer zorigatza! Horrelako gizon ederra, hain gaztea!!"

Tasioz galdetu nion...

"Itsasoan da; Frantziako enbaxada arduratzen ari da untzia aurkitu eta dei bat irrati bidez bidaltzeko. Laster izango da hemen."

Irten nintzen berriz. Gero eta jende gehiago zegoen. Hurbildu nintzaion aitari.

Arestian bezalako gauza bera sentitu nuen, eta osaba Lazaroganako sentimendu bera berriz... Gorrotoa ezagutzen ari nintzen, eta barrutik, sakona, sentitzen nuen osabaren aurka. Hau izan zen heriotza honen errudun... Honen erruz nire aitak ezin izan zuen besterik ez bazen ere beti eskatu zituen hiru gauza egin: bere lurrean hil, seme-alabetako bat ezkondu eta ikusi eta bilobatxo bat ezagutu.

Kaxa isten ari ziren, eta bazeramaten, eskaileretan behera, eta ni atzetik abiatu nintzen..., Mme. Simonek besotik hartu ninduen arte:

"Gera zaitetz, zure amak beharko zaitu, neuk gaueko txanda dut gaur."

San Jose eguna zen, martxoak 19; nire aitaxok bete berriak zituen, urtarrilean, 48 urte gazte.

Aurkibidea

Bat

Bi

Hiru

Lau

Bost

Sei

Zazpi

Zortzi

Bederatzi

Hamar